



# ZARAUZKO HISTORIA LABURRA

Juan Mari Iraola Aguirrezabal  
Igor Etxabe Iruretagoiena



Lege gordailua:  
D 01050-2022

ISBN:  
978-84-09-44307-9

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zati batean kopiatzea edozein bitarteko edo prozedura erabiliz, elektronikoa zein mekanikoa, tratamendu informatikoa, alokairua edo beste edozein beste lagapen modu bat, copyright-aren titularren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Juan Mari Iraola Aguirrezabal eta Igor Etxabe Iruretagoiena, 2022.



ZARAUZKO UDALA

**Zarauzko Udalak liburu honen argitalpena diruz lagundu du.**

**Maria Amor Zubizarretari, bere bultzadarik gabe kontakizun hau ez  
bailitzateke existituko.**

# ZARAUZKO HISTORIA LABURRA

## AURKIBIDEA

HASIERAKO BURUTAZIOA .....	8
SARRERA.....	9
1.- ZARAUZKO SINTESI KRONOLOGIKOA ETA DEMOGRAFIKOA.....	12
2.- HISTORIAURREA.....	24
3.- ANTZINAROA.....	24
4.- ERDI AROA.....	25
4.1.- ERDI AROKO URTE ILUNAK.....	25
4.2.- 24 AHAIDE NAGUSIAK, JAUNTZOAK, BANDOKIDEAK ETA ERMANDADEAK.....	26
4.3.- ZARAUZT UDALERRI OSO NOBLE ETA LEIALA.....	29
5.- ARO MODERNOA.....	29
5.1.- ZARAUZKO ONTZIOLAK. ZURA, BURDINGINTZA ETA BESTE ARTISAUTZA BATZUK MENDERATZEA.....	29
5.2.- ITSASONTZIEN ERAIKUNTZA XX. MENDEAN.....	33
5.3.- BAKAILAO ETA BALEA ARRANTZALEAK.....	33
5.4.- ITSAS EKONOMIAREN ENPRESA-SAREA.....	34
5.5.- HONDORATZEAK ZARAUZTEN.....	34
5.6.- ARO MODERNOKO ERAIKINAK.....	35
TORRE LUZEA.....	35
ZARAUZT DORREA ETA SANTA MARIA ZERURATZE PARROKIA.....	36
NARROS JAUREGIA.....	37
MAKAZAGA ETXEA (Makatza).....	39
FRANTZISKOTARREN KOMENTUA.....	40
SANTA KLARA KOMENTUA.....	41
PORTU JAUREGIA, GAUREGUNGO UDALETXEA.....	42
DOTOREKUA ETXEA.....	44
SAN PELAIOKO ERMITA.....	44
SANTA BARBARAKO ERMITA.....	45
6.- ARO GARAIKIDEA.....	45
6.1.- ARO GARAIKIDEKO ERAIKINAK ETA OBRAK.....	45
ZARAUZKO PORTUA.....	45
ZARAUZKO KARMELDARRAK.....	46

VILLA MANUELA, GAUR EGUNGO PHOTOMUSEUM.....	47
MISERIKORDIA ETXEA, GAUR EGUNGO SANTA ANA EGOITZA.....	48
VILLA MUNDA.....	51
VISTA ALEGREKO TORREOIA.....	52
6.2.- PASCUAL MADUZ.....	53
PASCUAL MADUZ, NOTA BIOGRAFIKOAK.....	53
MADOZEN EGONALDIA ZARAUTZEN.....	54
ZARAUZT 1840AN. ZER EGIN ZUEN MADUZEK ZARAUZTEN ALDE.....	56
6.3.- ARISTOKRAZIA.....	58
NARROSKO MARKESAK 1830 ETA 1900 ARTEAN.....	58
ISABEL II, ALFONSO XII ETA ALFONSO XIII.....	58
ARISTOKRATEN UDALDIAK.....	60
ETXEAK ETA JAUREGIAK HONDARTZAN BERTAN.....	61
6.4.- HEZKUNTZA.....	64
URTSULINAK.....	64
LA SALLE.....	65
ANTONIANOAK ETA J.D. EPELDE ETA BITORIANO GANDIAGAREN FUNDAZIOAK.....	65
ESKOLA PUBLIKOAK. GAUR EGUNGO OROKIETA.....	66
MARIA INMACULADA ESKOLA.....	67
SALBATORE MITXELENA IKASTOLA.....	68
LIZARDI INSTITUTUA.....	68
MONTE ALBERTIA LHII, IRUDI PERTSONALEKO PRESTAKUNTZA-ZENTROA.....	68
6.5- INDUSTRIA.....	69
EHUNGINTZA, ZUR, METAL ETA BESTE INDUSTRIA MODERNOEN JATORRIA.....	69
ZARAUZKO INDUSTRIALIZAZIO MODERNOA.....	70
ZARAUZTEN GARAPENA 1850ETIK – 1900ERA.....	71
MADOZEN ONDORENGO INDUSTRIA.....	72
LAS DELICIAS GOZOTEGIA ETA GUERECIA TXOKOLATEAK.....	72
ANDAZARRATEKO BURDIN MEATEGIAK ETA MOLLARRIKO KARGALEKUA.....	72
ALEMANIAR EKINTZAILEAK ZARAUZTEN.....	74
INDUSTRIA GERRA ZIBILAREN ONDOREN.....	74
EHUNGINTZA.....	76
ALTZARIAK.....	76
ARTISAU MAISUAK.....	80
INDUSTRIA METAL-MEKANIKOAK.....	80
MUSIKA INSTRUMENTUAK ETA JOSTAILUAK.....	83

BESTELAKO INDUSTRIAK .....	84
6.6.- OSTALARITZA.....	85
JOERA ALDAKETA: ARISTOKRAZIATIK TURISMORA.....	85
HOTELAK.....	86
EKIMEN ETA TURISMO ZENTRUA.....	87
EUROMAR TURISMO ETA SUKALDARITZA ESKOLA.....	88
AIALA SUKALDARITZA ESKOLA.....	89
6.7.- MERKATARITZA, TABERNAK ETA JATETXEAK XX. MENDEAREN BIGARREN ERDIAN.....	89
DENDAK ETA LANBIDEAK.....	89
TABERNAK.....	91
JATETXEAK.....	95
DISKOTEKAK ETA DANTZALEKUAK.....	97
SAGARDOTEGIAK.....	97
TXAKOLINDEGIAK.....	98
AISIALDIKO, KULTURAKO ETA GASTRONOMIAKO ELKARTEAK.....	98
6.8.- OSTALARITZAREN ETA INDUSTRIAREN GAINBEHERA.....	99
6.9.- ARTE ADIERAZPIDEAK ZARAUTZEN.....	99
MUSIKA.....	100
LITERATURA.....	103
BERTSOLARIAK.....	104
ANTZERKIA ETA FESTAK.....	105
DANTZARIAK ETA POXPOLINAK.....	107
PINTURA.....	108
ESKULTURA.....	110
ZINEA.....	110
6.10.- ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA.....	111
6.11.- KIROLA ZARAUTZEN.....	112
MOLLARRI SPORTS CLUB.....	112
ZARAUZKO KIROL ELKARTEA, ZKE. 75 URTE BAINO GEHIAGO.....	113
BESTE KIROLAK ZARAUTZEN.....	121
7.- ITURRIAK ETA LEKUKOTZAK.....	127
LIBURUAK ETA DOKUMENTUAK.....	127
ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAK.....	129

## **HASIERAKO BURUTAZIOA.**

ZarautzOn irabazi asmorik gabeko tokiko elkarte da, 2013an sortua, eta bere helburu nagusietako bat Zarauzko herritarren garapena bilatzea da.

Juan Mari Iraolak, bere zuzendaritzako batzordekideetako bat izanik, Zarauzko ondare industrialaren laburpen historiko bat egiteko proposamena jaso zuen, Zarauzko Tekno Ondarea izena hartuko lukeen zerbait.

Juan Mari Santa Ana egoitzako batzordeko kidea ere bada, eta Zarautz Kirol Elkarteko (ZKE) zuzendaritzako partaide izan da, Herri Kirolen saileko lehen presidente gisa.

2019an, ZKEren 75. urteurrenean, klubaren historia idatzi zezakeen pertsona baten bila ibili zen, arrakastarik gabe.

Egileak Zarauzko gertaera historikoak ikertu ditu aurrez aipatutako hiru esparruetan (industria, Santa Ana egoitza eta ZKE) baina liburu honetan haratago joan da eta Zarauzko historia labur eta osatu hau idaztera iritsi da.

Gure eskerrik beroenak liburu honekin Zarauzko herritarren garapenean laguntzeagatik.



## SARRERA.

Herri gutxi aurkitu daitezke, Zarautz bezala, Historiaurretik gaur egunera arte populatuta egon direnak.

Dokumentu honen helburua Zarauzko historia laburra deskribatzea da, bertan jazotako gertaerak XXI. mendeko zarauztarren buruetan iltzatzeko asmoarekin.

Historiaurretik Zarauzko historia bildu, berrantolatu eta laburbildu nahi izan da.

Laburra izango da, erronka erraza ez bada ere. Landuko diren gaien zabaltasunak arlo bakoitzaren oinarrizkoena soilik aipatzea eskatzen du, eta zentzu honetan, liburu honek atea irekita uzten ditu hemen emandako datuak sakondu nahi dituztenentzat.

Antzinako mendeak eta haien protagonista garrantzitsuenak laburbiltzen ditu, eta ondoren, gehiago zentratzen da Aro Garaikidean; izan ere, garai honen memoria berriagoa da, dokumentatuagoa dago eta herriko eztanda demografiko indartsuenari dagokio.

Hainbat gertakizunen protagonista izan eta hauek oraindik oroitzen dituzten makina bat zarauztarren testigantzak ere jasotzen ditu, oraindik bizirik daudenenak.

Zarautzek, 1850etik aurrera, industria-, ostalaritza- eta gizarte-jarduera garrantzitsua izan zuen, arrakasta nabarmeneko, enplegua sortu eta biztanleria hazkundera ekarri zuena.

Mende bat geroago, 1960an, Zarautzek 8.000 biztanle inguru izango zituen. Garai hartan ez zegoen gaur egungo turismoaren kontzepturik.

Aristokrata familien eta dirudun berrien udako egonaldiak zeuden, garai hartako klase aberatsenenak, uda sasoiaren herriari ekarpen ekonomiko gehigarri bat eskaintzen ziotenak.

Zarauzko bizilaguentzat euren diru-sarreraren osagarri bat zen. Hala ere, sektore industrialak zen jarduera nagusia, nahiz eta gaur egun hori entzutea harrigarria den; herriko industriak etorkin asko ekarri zituen Zarautzera, eta baserrietako nekazaritzarekin batera (aberastasun txikiagoa ematen zuten

arren), zirkuitu ekonomiko eta sozialaren muina osatzen zuen. Arrantza, garai batean garrantzitsua izan zena, ordurako ez zen esanguratsua.

2022an, Zarautz klase ertaineko jendearen bizilekua da, eta ia 24.000 biztanle ditu, 1960an baino %300 gehiago.

Hazkunde hori, lehenik eta behin, industriak erakarrirako immigrazioak eragin du (batez ere Extremaduratik eta Galiziatik etorritakoenak) eta, bigarrenik, hurbileko herrietatik lekualdatutako familien etorrerak. Azken hauentzat, Zarautzek duen bizi-kalitatea, ingurunea, kokapen geografikoa eta higiezinaren eskaintza faktore garrantzitsuak izan dira.

Higiezinaren eskaintza hori garai bateko aristokraten lurretan egin zen hasieran, eta lurzoru industrialean gero.

Familia berri horiek asko handitu dute Zarautzko bizilagunen kopurua. Euren seme-alabak zarautzarrak dira, izan ere, logikoa denez, gizaki guztiok jatorri, herri eta sentimendu identitate bakarra baitauekagu.

Baina kanpotik etorritako bizilagun hauen seme-alabek ez dizkiete gurasoei Zarautzko istorio asko entzun. Eta, hala ere, planeta honetan dauden lekuan daudelarik, norbaitek nongoak diren galdetuz gero, beti esango dute: "zarautzarra naiz". Ez dago besterik. Hori horrela izanik, kontakizun honekin euren sorterriarekiko harrotasuna pizten saiatuko naiz.

Ingurunearen ezaugarriek eta kultura kolektiboak pertsonen garapenari eta hazkundeari zuzenean eragiten dietenez, baliagarria iruditu zait Zarautzko herritar guztiei hainbat kontu azaltzea: zein den beren herriaren historia eta ondarea, nondik datorren beren nortasuna eta beren pertenezia-sentimendua, zer egin zuten aurrekoek (bereziki sortzaile, ekintzaile, solidario eta ospetsu izan zirenek)... logikoa denez, zenbat eta biztanle gehiago izan, orduan eta giza sorkuntza handiagoa izan baitzen Zarautzen.

Zarautz izan da aurrena (edo aurrenetariko) honakoak izaten: bakailao-arrantzako lehen pilotua, estatuko historiako lehen doktorea, lehenengo argazki-museoa, lehenengo Euskal Jaia, emakumezkoen ile-apaindegiko lehen eskola, kros misto bat, hondartzako futboleko txapelketa bat, emakumezkoen tuna, halterofiliako klub bat, maratoni bat, ostalaritzako eskola bat, Victoria itsasontziaren balizko eraikuntza... Zarautz anónimoen garezurrak ditugu Parisko Gizakiaren Museoa eta Madrilgo Antropologiako Museo Nazionalean. Eta horrekin batera, hainbat herritar entzutetsu izan

ditugu ekonomian, kulturean, zientzian eta kirolan ere.

Horregatik guztiagatik, interesgarria iruditu zait Zarauzko historiaren ikuspegi labur hau ahal bezain zehatz idaztea. Informazioa dokumentatuta dago, eta gertakizunen lekukoek kontatuta, betiere kontakizunak gizarte-bizikidetzaren alderdietan zentratuz, hala nola: demografia, eraikin historikoak, garapen ekonomikoa, bizitza kulturala, pertsonaia ospetsuak, etab.

Gehienak memoria-testigantzak direnez, baliteke pasarte batzuetan zehaztugabetasunak izatea. Horrelako kasu gutxi izatea espero dut eta liburuaren funtsari kalterik ez egitea. Hala ere, hainbat kontakizunetan aldeak egon daitezke kontsultatutako iturrien arabera.

Ekarpen guztiak ontzat hartu dira, eta parte-hartzaile horietako bakoitza heroi ezezagun txiki bat izan da. Bizilagun horietako asko aipatzen saiatu naiz, euren ondorengoek kontakizun honen lekuko bezala gogoratu ditzaten.

Autoreak bere eta ingurukoen pasadizo batzuk kontatzeko lizentzia ere hartu du, irakurleen onginahiak barkatuko dituelakoan.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet kontakizun hau posible egin duten guztiei, eta alde zurratik barkamena eskatu nahi diet aipatu ez ditudanei.

Adimenaren oinarria kontakizuna denez eta historiak historia egiten duenez, “hobe eginda perfektua baino” esaera aplikatzen saiatu naiz.

Nolanahi ere, amaieran aipatzen diren bibliografiak eta datuek gaien inguruko ezagutza zabaltzen eta zehazten lagunduko diote irakurleari.

Zarautz, 2022. urtea.

# 1.- ZARAUZKO SINTESE KRONOLOGIKOA ETA DEMOGRAFIKOA.

## HISTORIAURREA.

Kuaternariotik, K.a. 3100 urtera arte (sumertar idazkera agertu arte).

Erdi Paleolitotik aurrera Zarautzek eta bere inguruek historiaurreko aztarna arkeologikoak dituzte.

## ANTZINAROA.

Idazkeraren agerpenetik erromatar inperioaren amaierara arte (476. urtea)

Zarautzek garai hartako aztarna arkeologikoak ditu, eta kronikari erromatarrek aipatzen dute.

## ERDI AROA.

Erromatarrengandik, bizantziar inperioa erori zen arte (1453. urtea)

Garai honetan hasi ginen dokumentu propioak eskuratzen.

## Idatzitako historia.

**1025.-** Zarauzko lehen aipamen idatzia urte honetakoa da. Dokumentu horietan Altzoko Salbatore Olazalak dokumentatutako Hayako eta Helkanoko mugak kontatzen dira. Dokumentu horiek Huescako San Juan de la Peña monasterioari laga zitzaizkion. Orduko Euskal Herria gizarte feudala zen, eta gerra funtsezko jardueretako bat zen. Gizarte zaharkitua, ezer gutxi aurreratu zitekeena. Adibide gisa, hamarkada batzuk lehenago, Almanzorrek Toledo, Leon, Burgos, Zaragoza eta Bartzelona arpilatu zituen.

**1056.-** Gure eskualdeari buruzko lehen izena agertzen da, izen honekin: IPUZKOA (G gabe).

**1237.-** Fernando III.ak Donostiako forua eman zion Zarautzi, eta Udalerri Noble eta Leial titulua.

## **ARO MODERNOA**

Berpizkundetik AEBen independentziara arte (1776. urtea)

**1401.-** Zarautz jendez hustuta geratu zen izurri izugarri baten ondorioz, eta bizirik atera ziren guztiak inguruko mendietara lekualdatu ziren. Urtebete geroago, herrigunera bueltatu ziren eta elizara joaten hasi ziren berriro.

**1492.-** Gutxi gorabehera 1.000 biztanleko errolda. Garai honetan Getariak 1.700 biztanle zituen. Eta Gipuzkoak 60.000 inguru, Bizkaiak eta Arabak bezalaxe.

**1520.-** Juan Ortiz de Zarauz y Gamboa egungo Narros jauregia eraikitzen hasi zen, lehen zegoen beste jauregi baten orubean.

**1522.-** Juan Sebastian Elkano Sanlucarrera (Huelva) iritsi zen, munduari bira eman ondoren.

**1540.-** Teilatua berriro zen parrokiak.

**1542.-** San Pelaio ermitan beste erretaula bat egin zen.

**1545.-** Matias Etxebeste jaio zen Zarautzen, Ternuako bakailao-arrantzaren pilotu aitzindaria.

**1560.-** Andres Araoz parrokiako erretaula egiten hasi zen eta bere seme Joanek amaitu zuen.

**1577.-** Ternuara joatea euskal arrantzaleen artean nabigazio arriskutsuenetako bat zen. Eguraldi beldurgarriko urte hartan 17 zarauztar hil ziren.

**1610.-** Juan de Mancisidor zarauztarrak, Flandrian Felipe III.a erregearen idazkari izan zenak, frantziskotarren komentua eraikitzeko dirua jarri zuen.

**1611.-** Narros etxeko Mariana de Zarauz y Gamboak Santa Klara komentua eraikitzeko dirua jarri zuen. Bera eta bi alaba komentuan sartu ziren, Lermatik etorritako 6 moja klaratarrekin batera. Lanak amaitu bitartean, 6 moja hauek Narros jauregian egon ziren.

**1617.-** Bertan bizi ziren frantziskotarren eliza eta komentua amaitu ziren.

**1619.-** Pedro de Zarauzek deituta, Altzolatik Zarautzera etorri ziren moja hirukoiztarrak edo trinitariak, egungo Trinitate kalean kokatutako komentu batera, Narros jauregiaren ondora. Handik gutxira utzi zuten, eta ermita bat geratu zen kale horretan 1932ra arte, urte horretan eraitsi baitzuten. Ermita horretako kanpaia gaur egun Gure Kabia elkartean dago.



(Trinitate kalearen eta Trinitarien Atearen argazkia 1900 inguruan).

**1625.-** Santa Klarako lanak amaitu eta mojak bertan bizitzen hasi ziren.

**1632.-** 800 biztanleko errolda.

**1707.-** Santa Barbarako ermita berritu zen, baleen talaia gisa erabiltzen zena.

**1729.-** Marina Alzuruk ermita bat eraikitzea agindua zuen Santa Marinaran. Urte honetan berritu zen, Francisco Maria de Alzururen aginduz.

**1733.-** 1.200 biztanleko errolda.

**1745.-** Aita Larramendi jesuita andoaindarrak, Gipuzkoako Foruen defendatzaile handiak, Hiztegi Hirueleduna argitaratu zuen euskaraz, gaztelaniaz eta latinez.

**1746.-** Fraideen komentua misiolarien eskola bihurtu zen, herriz herri misioak predikatzen joateko.

**1766.-** Prezioen espekulazioaren aurkako matxinadak arrakasta izan zuen

Zarautzen ere. Matxinada izena San Martin olagizonen patroitik dator. Gisa honetako errebolta batzuk izan ziren XVIII. mendean.

**1768.-** 1.500 biztanleko errolda

## **ARO GARAIKIDEA.**

AEBen independentziatik gaur egunera arte.

**1793-1795.-** Konbentzioaren Gerra Frantziako Errepublikaren eta Espainia eta Portugalako erresumen artean, Pirinioetako bi muturretan.

**1794.-** Zarauzko fraide eta mojak erbesteratu egin zituzten Konbentzioaren Gerran. Fraideak Baionara eta mojak Bilbora.

**1794.-** Zarauzko herriak gerra bat ezagutu zuen lehen aldiz frantsesen etorrerarekin. Harrapaketa eta arpilatze ugari egin zituzten herrian eta galerak, Probintziari eskatu zitzaizkionak, 262.750 errealekoak izan ziren.

**1800.-** 1.400 biztanleko errolda.

**1798-1820.-** 1804 eta 1814 urteen artean, lehendik zorrez itota zegoen udalak, bere herri-mendiak saldu behar izan zituen, armada bonapartistak ezarritako zerga bat ordaintzeko eta behar ziren 2.000.000 erreal lortzen laguntzeko.

**1801.-** Euskararekiko interesa erakutsi zuen Humboldt hizkuntzalari ospetsua Zarautzen egon zen. Narros jauregian hartu zuen ostatu eta Zarautzi buruz idatzi zuen.

**1808.-** 1.310 biztanleko errolda. Haurren heriotza-tasa oso handia zen, %50 bakarrik iristen baitzen 20 urte betetzera.

**1804-1814.-** Independentzia Gerra. Frantsesek gerra-eremu bihurtu zuten Zarautz. 1809an, Frantziaren aurkako gerrillarien lehen armada eratu zen. 1812an zarauztar askok frantsesen aurkako Gipuzkoako gudarostea osatu zuten.

**1830.-** Aita Antonio Añibarro, bizkaitar idazle euskalduna, fraideen komentuan hil zen.

**1838-1840.-** Charles Dembowski italiar-poloniarra, Euskal Foruen berri izan ondoren, Zarautzera etorri zen hauek aztertzeraz.

**1840.-** Aita Juan Mateo Zabala, "Verbo regular Vascongado del dialecto vizcaino" liburuaren idazlea, fraideen komentuan hil zen.

**1840.-** Sasi euskalduna zen Mendizabalen Gobernuak Elizaren ondasunen lehen desamortizazioa agindu zuen, eta komentuko bi frantziskotar erbesteratuak izan ziren.

**1842.-** 1.369 biztanleko errolda.

**1846.-** Pascual Madoz jauna Zarautzera iritsi zen, mediku batek Francisca bere alabak zuen gaixotasunarentzat itsas-bainuak eta eguzkia gomendatu ostean. Frantziskotarren komentuaren aurrean eraiki zuen bere etxea. Pertsonaia ospetsu hau Zarautz eta bertako biztanleez maitemindu zen. Zarautz modernoa hasi eta bultzatu zuen.

**1850.-** 9 urte betetzear zela Francisca hil zen, Madozen alaba, hondartzan itota, olatuek eramanda. Madozek Zarautzekin zuen lotura hazi egin zen gertaera triste honen ondorioz.

**1851.-** Ermita berri bat eraiki zen San Pelaion, gaur egun ezagutzen duguna.

**1857.-** Pascual Madoz jaunak Zarauzko lehen fabrika modernoa inauguratu zuen: La fabril linera, 170 langilerekin eta hauek gaixotasun kasuetan babesten zituen montepio batekin. Zarauzko industrializazioaren hasiera izan zen. Data horretatik aurrera, Zarautzen industriako eta zerbitzuetako lanpostuak ugartzen joan ziren, eta nekazaritza eta arrantza indarra galtzen hasi ziren.

**1860.-** 2.117 biztanleko errolda.

**1865 eta 1866.-** Isabel II.a erregina Narros jauregian izan zen udan, 34 eta 35 urterekin, markesek gonbidatuta, itsasoko bainu osasungarriak hartzeko. Zuen gaitzari aurre egiteko, bere mediku belgikarrak itsas bainuak, eguzkia eta zozoak zituen leku bat gomendatu zion. 1864an Madril-Irun trenbidea inauguratu berria zen.

**1867.-** Frantziskotarrak komentura itzuli ziren.



**1868.**- Pezeta jαιο zen, moneta-unitate berria.

**1866-1868.**- Wilem Jan Van Eys hizkuntzalari holandar ospetsua Zarautzen geratu zen, Gregorio Arrue eskolako maisuarekin eta frantziskotarrekin euskara ikasteko. Mathilde emazteak 1927an argitaratu zituen Zarauzko oroitzapenak, eta bertan kontatzen du, besteak beste, 1868an zezenketa bat egin zela eta Isabel II.a bertan izan zela. Villa Mundan kokatutako Velasco doktorearen anatomia konparatuko museoa ere ezagutu zuen, gizakien, animalien, hegazti diseinatuen eta abarren hezurrekin.

**1869.**- Aita Jose Antonio Uriarte fraide bizkaitarra frantziskotarren komentuan hil zen, Luis Luciano Bonaparte printzea babestu zuenetako bat. Azken hau izan zen Aita Uriarteri Biblia gipuzkerara itzultzeko agindu ziona.

**1870.**- Madoz hil zen Genovan, Amadeo Savoiakoa Espainiako parlamentuko errege izan zedin konbentzitzeko sortutako batzordeko kidea zelarik. Frantziskotarren beste atzerriratze bat gertatu zen.

**1877.**- 2.178 biztanleko errolda.

**1878.**- Frantziskotarrak Zarautzera itzuli ziren eta gaur egun arte bertan diraute.

**1883.**- 2.500 biztanleko errolda.

**1884.**- Maria Cristina de Habsburgo-Lorena erreginak Zarautz bisitatu zuen.

**1890.**- Gregorio Arrue eskolako maisu eta idazlea hil zen.

**1890.**- Francisco Manuel Egaña zarautzarra hil zen, Madrilgo Parlamentuko diputatu eta Maria Cristina erreginarekin ministro izatera iritsi zena. Xabier Lizardi poetaren aitona zen.

**1893.**- Juan Miguel Orkolaga apaiz hernaniarra Zarauzko bikario izendatu zuten, eta han hasi zen bere lehen behaketa meteorologiko zorrotzak egiten, enbatak aurreikusteko eta bizitzak salbatzeko. 1905ean Igeldoko egungo behatoki meteorologikoaren sortzailea izan zen.



(Zarauzko argazkia 1895ean).

**1896.-** Jose Maria Agirre Egaña poeta euskalduna jaio zen Zarautzen. ezizenez Xabier Lizardi bezala ezagutua.

**1900.-** 2.838 biztanleko errolda.

**1901.-** Flores Kaperotxipi margolaria jaio zen, frankismo garaian Argentinan erbesteratu zena.

**1903.-** Gaur egungo merkatu estalia eraiki zen udaletxearen ondoan.

**1903.-** Zarautzen jaio zen Miren Etxabe idazle eta kronikari euskalduna. 1920ko hamarkadan Naste Borraste taldeak antzezten zituen antzeztanak euskaratu zituen. 1924ko Euskal Jaien hasieran parte hartu zuen eta erbestean Eresoinkaren kide izan zen abeslari bezala, Esteban Berazadi zarautzar dantzariarekin batera.

**1906.-** Alfonso XIII.ak 20 urte zituen, eta Victoria Eugenia Battenbergekoa britainiarrarekin ezkondu zen. Urte horretan emakumeek Finlandian boto eskubidea lortu zuten.

**1908.-** San Pelaio Martiria Langile Katolikoek Elkarteak sortu zen, ELA-STV baino 22 urte lehenago (1930ean). 1857an, Zarautzen Madozek montepioa sortua zuen aurrekari modura.

**1910.-** Ingalaterrako Eduardo erregeak Zarautz bisitatu zuen.

**1910.-** 3.167 biztanle.

**1912.-** Aita Jose Domingo Epelde azkoitiarrak Juventud Antoniana sortu zuen.

**1913.-** Inaxio Eizmendi Basarri bertsolaria jaio zen Granada Errekan. Urte berean Eskola Publikoak eta Vista Alegreko torretoa eraiki ziren.

**1916.-** Alfontso XIII.ak golfa inauguratu zuen.

**1917.-** Espainia osoan lehenengo greba orokor iraultzailea egin zen.

**1918.-** San Pelaioko Etxebeltz baserrian jaio zen Salvatore Mitxelena, frantziskotar eta idazle euskalduna. Frankismo garaian Suitzara erbesteratu behar izan zuen etorkinen kapilau gisa, eta han hil zen.

**1920.-** 3.570 biztanleko errolda.

**1923.-** Marokoko gerra krudelaren ondoren, Espainia egonkortasun politikoa eta aurrerapena bilatzen hasi zen, eta Primo de Rivera jeneralaren diktadura monarkikoa iritsi zen, Espainia politikari profesionalengandik askatzeko asmoarekin.

**1924.-** Lehenengo Euskal Jaiak ospatu ziren irailaren 14an. Aristokraten uda luzatzea zen helburua. Arturo Campionek euskararen eta euskalduntasunaren aldeko hitzaldi sutua eman zuen Musika Plazan. Euskadiko lehen Euskal Jaia izan zela uste da.

**1929.-** Julian Ugarte margolaria jaio zen Zarautzen.

**1930.-** 4.786 biztanle.

**1932.-** Lizardik "Biotz begietan" poesia lana argitaratu zuen. Manolo Urzelai Gipuzkoako txapeldun izendatu zuten boxeoa, pisu erdi-astunetan.

**1932.-** Niceto Alcalá Zamora errepublikarrak, garai hartan estatuburu zenak, mitin politikoa eman zuen Musika Plazan.

**1933.-** Lizardi gazterik hil zen Tolosan, 37 urte zituela, Perot fabrikako kudeatzaile zela.



(Belaunzurango kioskoaren eta plazatxoaren argazkia, Santa Barbarara begira, 1930 inguruan. Gaur egun Zolinako Bizkondearen kalea da).

**1934.-** Euskalzaleak elkarteak Lizardiren oroimenez antolatutako Olerki Eguna ospatu zen.

**1934.-** Martxoaren 4an greba orokorra egin zen, EAJk eta ELAk antolatuta. Alkate tradizionalista, dirudienez, ez zen beharrezko botoetara iritsi. Guardia Zibilak 12 manifestari atxilotu zituen.

**1936-1939.-** Espainiako Gerra Zibila.

**1940.-** 5.251 biztanleko errolda.

**1944.-** Otsailaren 8an Zarautz Kirol Elkarte sortu zen.

**1944.-** Itxaropena argialetxeak gerra osteko lehen liburua argitaratu zuen, Aita Balzolarek "Argi Donea".

**1946.-** Nazio Batuen lehen bilkura.

**1947.-** Flores Kaperotxipik "Pintores vascos y no vascos" liburua argitaratu zuen Buenos Airesko EKIN argialetxearekin.

**1948.-** Modelo zinema aretoa eraiki zen.

**1949.-** "Arantzazu, euskal-sinismenaren poema" argitaratu zen, Salvatore Mitxelenaren lehen poesia liburua, eta Basarrik "Atano III" bere lehen liburua argitaratu zuen.

**1951.-** “Ama-semeak Arantzazuko kondairan” argitaratu zen, Salvatore Mitxelenarena.

**1953.-** “Jautarkol” ezizena erabiliz, Luis Jauregi erreteriar, jesuita eta karmeldarren kapilauak “Ipuinak” argitaratu zuen Kulixka Sorta bildumaren barruan. Zarautzen hil zen, 75 urte zituela, 1971n.

**1955.-** Montevideoko munduko pilota txapelketetan, Sebastian Aristik urrezko bi domina irabazi zituen pala motzean.

**1958.-** Salvatore Mitxelenak "Unamuno eta abendats" argitaratu zuen Baionan, "Iñurritza" ezizenarekin. Urte berean Xenpelar bertsolariari buruzko beste liburu bat argitaratu zuen Jautarkolek.

**1960.-** 8.161 biztanleko errolda.

**1960.-** Basarrik "Kantari nator" argitaratu zuen.

**1962.-** Amarika, Arteta, Dionisio Azkue, Balentziaga, Baroja, Beobide, Cabanas, Rogelio Gorden, Flores Kaperotxipi, Martiarena, Nicolas Mujika, Olabe, Olasagasti, Tellaetxe, Salaberria, Pablo Uranga, Ramon Zubiaurre, Valentin Zubiaurre eta Ignacio Zuloagaren lanekin "Euskal pintoreen antologia" erakusketa egin zen Zarautzen.

**1963.-** Flores Kaperotxipik Pablo Urangari eskainitako liburua argitaratu zuen.

**1964.-** Julian Ugartek aire zabaleko lehen pintura lehiaketa antolatu zuen. Maria Teresa Peñak irabazi zuen.

**1965.-** Salvatore Mitxelena hil zen, 46 urte zituela, La Chaud de Fond herrian (Suitza), etorkinen kapilau gisa.

**1966-67-68-69.-** Abebe Bikila (66), Mamo Wolde (67 eta 68) eta Gebru (69) etiopiarrek irabazitako nazioarteko lau maratoniak antolatu ziren. Carlos Perez galiziar txikia bigarren sailkatu zen birritan.

**1967.-** Jose Ramon Ugartek Euskal Jaietako I. argazki lehiaketa irabazi zuen. “Ez Dok Amairu” taldeko abeslariak bertan aritu ziren.

**1967.-** Zarautz Kirol Elkartearen aste intelektuala hasi zen ospatzen, hainbat hizlarirekin: musikariak, margolariak eta bestelako parte-hartzaile ospetsuak.

Hamar urte iraun zuen.

**1968.-** Tomas Hernandez Mendizabalek irabazi zuen I. Horma Pintura lehiaketa egin zen.

**1969.-** Imanol Urbietak haurrek abestutako "Aur kantariak" diskoa argitaratu zuen Bartzelonan. Ibilbide musikal luze bateko lehena.

**1970.-** 11.764 biztanleko errolda.

**1970.-** Zarautzen 8 mm-ko lehen zinema lehiaketa antolatu zen.

**1970.-** Abuztuaren 29an Euromarren "Euskal Dantzariak" kongresua ospatu zen. Euskal Jai egunean, Euskal Dantzarien Biltzarra ospatu zen, eta Euskadi osoko 1.400 dantzari bildu ziren Zarautzen. Dantzariak Zarauzko ehunka etxetan bazkaldu zuten.

**1971.-** Oleskariak taldeak "Euskadi Kanta" diskoa argitaratu zuen.

**1972.-** Oleskariak "Irrintzina" diskoa argitaratu zuen, aurrekoaren jarraipena.

**1973.-** Imanol Urbietak eta Ikastolako irakasleek "Haur kantarien birlorak" abesti bilduma argitaratu zuten.

**1974.-** Jose Angel Iribarrek Espainiako futbol selekzioarekin jokaturako nazioarteko partiden errekorra hautsi zuen, Ricardo Zamora mitikoak zuena.

**1975.-** Franco hil zen. Gaur egungo demokrazia hasi zen.

**1981.-** Ekainaren 1ean Aritzbataldeko kiroldegia inauguratu zen.

**1983.-** Adinekoentzako egungo Santa Ana egoitza inauguratu zen.

**1985.-** Europan lehen telefono mugikorrak merkaturatu ziren.

**1986.-** 16.404 biztanleko errolda.

**1989.-** Berlingo harresia eraistea.

**1993.-** Photomuseum, Espainiako lehen argazki-museoa inauguratu zen.

**1998.**- 19.806 biztanleko errolda.

**2000.**- 20.774 biztanleko errolda.

**2003.**- 21.680 biztanleko errolda.

**2021.**- 23.271 biztanle.

**2022.- Zarauzko egungo demografia:** 23.200 biztanle ditu, zifra borobiletan:  
**Jatorriaren arabera:**

Zarautzen jaiotakoak, 10.500 biztanle (%45). EAEn jaiotakoak, 8.500 biztanle (%36).

Estatuko gainerako lekuetan jaiotakoak, 2.200 biztanle (%10).

Atzerriko emigranteak, 2.000 biztanle (%9), horietatik 1.400 (%6) latinoamerikarrak eta 600 (%3) munduko gainerako herrialdeetakoak.


**Adin-tarteen arabera:**

18 urtetik beherakoak, 4.000 biztanle (%17)

18 eta 65 urte bitartean, 14.600 biztanle (%63)

65 urtetik gorakoak, 4.600 biztanle (%20)

Gaur egun atzerrian bizi diren zarauztarrak, 650 (%3).



## 2.- HISTORIAURREA.

Zarautz Erdi Paleolitoan populatuta egon zen, hainbat aztarna arkeologikoren lekukotzaren arabera.

Ondo-ondoan ditugu:

- Pagoetako larreetako monumentu megalitikoak: trikuharri bat eta tumulu bat.
- Altxerriko haitzuloak, Aiako mugan, labar-pinturekin.
- Amaldako leizeak Altzolarasen (Granada Erreka), Mustertar garaikoak (K.a. 35.000 urte), su eta tresneria hondarrekin.
- Ekaingo haitzuloak Zestean, labar-pinturekin eta tresneria hondarrekin.

1988an, industria litiko baten aztarnak aurkitu ziren Herrikobarra kalean (hondartzatik 300 metrora): silexezko 100 lauza eta orein, hartz, uro, otso, basurde eta antzeko animalien 6.000 hezur hondarrekin.

## 3.- ANTZINAROA.

Antzinaroan, informazio gutxi dago eta kronikari erromatarrei buruzkoa da. Erromatarrek Menosca deitu zioten gaur egungo Zarauzko biztanleriari.

### **Menosca eta erromatarrak**

I. mendean, egungo Zarauzko lurretan, barduliarrek bizi ziren, euskal tribuetako bat.

Erromatarrek feniziarren garaian asmatutako kabotajea egiten zuten, hau da, itsasertza bistatik galdu gabe nabigatzen zuten, eta Oiasson (Irun), **Menoscan** (Zarautz) eta Mundakako itsasadarrean (Forua) kokatu ziren gure inguruetan, eta urrutixeago, Flaviobrigan (Castro Urdiales). Plinio zaharrak eta Klaudio Tolomeo geografoek hala kontatzen dute.

Trinitate kalean etxe bat eraikitzean, Adrianoren irudia (K.o. 118. urtea) zuen sestertzio bat aurkitu zuten lurperatuta. Garai horretakoa den Zarautz eta Getaria arteko galtzada erromatarra ere badugu, Santa Barbaratik igarota.

Historialarien arabera, Zarautzen barduliarren eta erromatarren arteko elkarbizitza (mende bat edo bi iraun zuena) baketsua izan zen, eta elkarren arteko ezagutza-trukea egon zen.



Egiaztatutako beste aztarna erromatar batzuk parrokiako lurretan daude, eta xehetasun historiko guztiak Zarauzko Arte eta Historia Museoan eskaintzen dira, Santa Maria Zeruratze parrokian bertan.

## **4.- ERDI AROA.**

Erdi Aroan Zarautzi buruzko dokumentazio asko dago. Gertakari garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

### **4.1.- ERDI AROKO URTE ILUNAK.**

Erdi Aroan zehar erreinu bisigodoa, inperio karolinjioa, arabiarrek, gurutzadak, Iberiar Errekonkista, Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko erresumak, etab. txandakatzen dira.

Normala denez, orografiak eta mendeetan zeharreko giza joan-etorriak baldintzatu egin du euskaldunen historia eta, beraz, baita Zarauzkoa ere.

Pirinioetako mendikatearen ertzek 6 km-ko zabalgunek bat dute Bidasoan eta 3 km-ko beste bat La Junqueran.

Pasabide natural horietatik, gehi itsasotik, igaro ziren Penintsulako inbaditzaile guztiak historian zehar: feniziarrek, iberiarrek, zeltak, kartagotarrak, erromatarrek, sueboarrak, alanoak, bisigodoak, arabiarrek, etab.

Gure historiari dagokionez, udalerrri mailako datu historikoen hutsune garrantzitsu bat dago, erromatarretatik hasi eta ia 1.000 urtera arte. Datu historikoen gabezia orokor horrek Zarautzi ere eragiten dio.

Monasterioetako monjeak eskuz idatzitako kopiak egiten hasi zirenetik, eta batez ere inprentaren asmakuntzaren eskutik, greziarren eta erromatarren erregistroak berreskuratu eta transmititu dira.

Zarautz mendeetan zehar herri nahiko isolatua izaki, bere historia gertaera nabarmenik gabe garatu zen, babesik eta erasorik gabeko herri bezala, probintziako beste hainbat udalerriren antzera.

Zarautzi ere eragiten dion datu historikoen gabezia orokor horretaz gain, aipatu beharra dago 1551ko ekainaren 23an Zarauzko udaleko artxiboak su hartu zuela, eta horri gehitu behar zaio 1936ko irailean udaletxea, Musika Plazan zegoena,

erre egin zutela. Bi gertakari horietan, egiaztatutako informazio asko eman zezaketen dokumentuak desagertu ziren.

#### **4.2.- 24 AHAIDE NAGUSIAK, JAUNTXOAK, BANDOKIDEAK ETA ERMANDADEAK.**

Euskal Herriaren historia ezin da azaldu, ezta ulertu ere, **ahaide nagusiak (jauntxo eta banderizo** bezala ere ezagunak direnak) aipatu gabe. Erdi Aroko azken hiru mendeetan, gutxi gorabehera, gerraren eta lurraren jaun horiek euskal lurraldearen bizitza politikoa, soziala eta ekonomikoa baldintzatu zuten. Beren lur eta etxe gotorretan babesturik, ahaide, aliatu, gaizkile eta zerbitzariz inguraturik, beren existentzia etsaia ezabatzeraz bideratu zuten, botere eta ondasun gehiago lortzeko; azken finean, euren esaldi batek zioen bezala, "lurrean gehiago balio izateko".

XII. mendera arte, noblezia, zentzu hertsian, ez zen existitzen gurean. Besteak baino lur edo baserri gehiago zituzten jauntxoak baino ez ziren, baina XII. mendeko krisiarekin bizilaguna erasotzea hedatu zen, Hondarribitik Urduñara indarkeria handiko mendeak ekarriz. Horrela, 1320. urte inguruan gotorleku-etxeak eraikitzen hasi ziren, bide bazterretako salgaien trafikoa defendatzeko eta kontrolatzeko.

Penintsulako mugak Ebron egon ziren Aro Modernora iritsi arte, eta euskaldunen zeregin praktikoa abangoardia izatea zen, Frantzia aldetik etor zitezkeen inbasioen aurrean.

Gaur egungo Gipuzkoako lurraldeko jaun haiek elkarren aurkari ziren bi bandotan elkartu ziren: oinaztarrak eta ganboatarrak. Belaunaldiz belaunaldi, mendietan eta itsasoan arpilatu zuten, hiribilduei desafio egin zieten, Nafarroako eta Gaztelako erregeak zerbitzatu zituzten, eta gure historiaren orrialdeetan saminezko eta indarkeriazko testigantza bat utzi zuten.

Zer dira ahaide nagusiak? Horri erantzuteko, Gorosabel historialari gipuzkoar ospetsuak gaiari buruz utzi zuena baino gauza zehatzagorik ez dugu aurkitu; Revista Bascongada aldizkarian argitaratu zen, 433. orrialdean eta hurrengoetan, XXVIII. urtean. — LVI. liburukia. 1907ko maiatzaren 30a. — 937. zenbakia.

Garai batean, ahaide nagusi deitu zitzaizkien probintziako zenbait zalduni, lursail zabalen jabe zirenei, hots, bertako aberats-gizonei. Hala ere, beste batzuen ustez izendapen hori inguruko lehen familia populatzaileen arbasoak izateagatik

dagokie, eta beraz, gure lurren fundatzaile eta maioralak izateagatik.

Garai zaharragoetan, zaldun horien menpekoak ezin ziren ezkondu haien baimenik gabe, eta etxerik ere ezin zuten eraiki haien oniritzirik gabe. Orain arte adierazi den guztiaren arabera, ahaide nagusiek klase pribilegiatu bat osatzen zuten Gipuzkoako gizartean, ahaltsua eta oso errespetatua.

Hitz batean, esan daiteke beren lurretan eta jabetzetan jaun naturaltzat hartzen zirela, eta bertako bizilagunak euren basailutzat. Basailu horiek jaun horien erdi-esklaboak ziren.

Bi leinu edo bando zeuden Gipuzkoako jaun ospetsu hauen artean: bata **Oñazeko** tituluduna, hau da, **oinaztarrak**, eta bestea **Ganboakoa**, **ganboatarrak**.

Geratu zaizkigun aurrekari historikoen arabera, **oinaztarrei** zegozkien honako orubeak: Lazkao, Amezketa, Loiola, Ozaeta, Gabiria, Arriaran, Iartza, Berastegi, Unzueta, Lizaur, Murgia, Alzaga, Agirre, Zerain eta Ugarte.

**Ganboatarrak** Olaso, Balda, **Zarautz**, Iraeta, Zumaia, Jaolaza, Zegama, Donemiliaga eta Atxegako orubeetakoak ziren.

Beste datu historikorik ezean, uste izatekoa da aipatutako bi bandoen arrazoa edo jatorria lurraldea modu eksklusiboan menderatzeko nahia izan zela, bere lehia, etsaitasun, mendeku eta guzti.

**Kausa hauek edo antzekoek** beste lurraldeetan ere zatiketak eragin zituzten. **Bizkaian** Urkizu-Abendaño eta Muxikas-Butroi leinuen artean; **Arabian** Aiala eta Calleja bandoen artean; **Nafarroan** Beamontar eta Agaramontarren artean; **Gaztelan** Castro eta Lara delakoen artean, etab.

24 ahaide nagusiek, beren ondasun handiengatik, euren treguen eta enkomien atxiki eta menpeko ziren deboziziozko pertsona asko mantentzen zituzten, eta hauen lankidetzarekin gizartean are indar handiagoa metatu zuten.

Gehientsuenak, herri desberdinetako parrokia-elizen fundatzaile eta sostengatzaile gisa, haien zaindari eta kudeatzaileak ere baziren; bertako apaizak izendatzen eta nahieran mugitzen zituzten; beren barrutietako hamarrenak eta primiziak eskuratzen zituzten beren diru-kutxak gizentzeko; azken batean, hainbat ohore zituzten.

Gauzak honela, herri batzuetan alkateak eta beste gobernu-ofizial batzuk ere

izendatzen zituzten, eta gerra garaian, beren interesen defentsan altxarazten zuten jende armatua gidatzen zuten.

Horretarako, erregeek dei berezia egiten zieten ahaide nagusiei, euren senide, lagun, atxiki eta mendekoekin kasuan kasuko gatazkan zerbitzatzeko prest egon zitezen. Horixe irakurtzen da Fernando V.a errege katolikoak 1512ko maiatzaren 28an Burgostik bidali zien gutun batean, eta geroago, Karlos I.a enperadoreak 1523ko azaroaren 6an igorritako beste batean.

Jasotako ohitura baten ondorioz (eta ez eskuratutako eskubidearen ondorioz) normalean haietako bat probintziako **koronel nagusi** izendatzen zen, hau da, probintziako tertzioen buru nagusi, **foru-probintziak altxatzen ziren kasuetarako**.

Kontua da zaldun haiek gorteen babesa zutela, eta, beraz, **ezin zirela auzitara eraman, ezta probintziako epaile arrunten aurrean auziperatu ere**.

Beste eskumenik nabarmenetako bat zera zen: probintziak korporazioan monarken etorrerari egiten zion omenaldiaren ondoren, bakoitzak bere aldetik egin zezakeela beren klasearen araberrako leialtasun eta obedientziaren zina. Hala egiaztatu zuten 1475ean, Elisabet I.a katolikoak Gaztelako tronua eskuratu ondoren.

Hain zuzen ere, zeremonia politiko ospetsu honetan Olasoko Martin Ruiz, Isasagako Garcia Alvarez, Lazkaoko Juan Lopez, Baldako Juan Garcia, Loiolako Beltran, Iraetako Juan Beltran, Zarauzko **Juan Ortiz eta Fortuño**, Gabiriako Lope Garcia eta Ozaetako Juan Perezen izenak agertu ziren.

Aldi berean, harrotasun handikoak ziren, izaera nagusikoak, eta hain ziren elkarren etsai bi bandoak, ezen bataren afiliatuak nekez igarotzen baitziren besteak egoten ziren kaleetatik. Jantzi ohi zituzten jantziak ere desberdinak ziren erabat, edo behintzat, bereizten saiatzen ziren: adibidez, **oinaztarrek** kapelugangak eta zamauak ezkerretara etzaten zituzten, **ganboatarrek** eskuinetara erabiltzen zituzten bitartean.

Hain egoera kontrako eta bortitzak zalaparta, **eskandalu eta nahasmendu ugari sortu zituen herrialdean**, kontakizun honen izaerari ez dagozkionak.

Hainbesteko gehiegikeriaz nekaturik, probintzia honetako biztanle baketsuak elkarren defentsarako konfederatu behar izan ziren, eta udalerrriak, bidegabekeriez asperturik, **Ermandadeetan** antolatzen hasi ziren ahaide nagusiei aurre egiteko.

Beraz, eginkizun handi horretarako Gaztelako monarken botereak babesturik, hainbat xedapen eman ziren, hurrenez hurren eta etengabe, zaldun nahasi horien gehiegikeriak zapaltzeko. Horietako neurri asko anaidien ordenantza probintzietan eta garai hartako beste errege zedula batzuetan sakabanaturik daude, aurrez pairatzen ziren egoeren larritasuna argi eta garbi frogatzen dutenak.

#### **4.3.- ZARAUTZ UDALERRI OSO NOBLE ETA LEIALA.**

Dokumenturik sinesgarrienean diotenez, Zarautz Fernando III.a Santua Gaztelako erregeak sortu zuen udalerrri gisa 1237an, eta Zarautzi Donostiako forua eta Udalerrri Noble eta Leial titulua eman zizkion. Foru edo hiri-gutun hori halako autonomia-estatutu moduko bat zen udalerrri batentzat. Autogobernurako eta bere ordezkariak alkate eta zinegotzi gisa aukeratzeko gaitasuna ematen zuen, herria libreago eta dinamikoago bat bihurtuz aurreko egoera feudalekin konparatuz, hauetan jauntxoak pertsona eta ogasunen jabe baitziren.

Iturri batzuen arabera, Fernando III.ak Sevilla konkistatu zuenean, Zarauzko marinel ausartek Ormaetxearen gidaritzapean izandako jokabidea lagungarria izan zen erregeak gure udalerrriaren patroitzat bere gain hartzeko.

### **5.- ARO MODERNOA.**

Aro Modernoan informazio gehiago dago eskuragarri, garai hartako Zarautz ezagutzeko aukera ematen diguten dokumentu ugari baitaude.

#### **5.1.- ZARAUZKO ONTZIOLAK. ZURA, BURDINGINTZA ETA BESTE ARTISAUTZA BATZUK MENDERATZEA.**

Itsas nabigazioa giza jakintzaren zientzia zaharrenetako bat da, K.a. 4000 urte inguruan hasi baitzen.

K.a. 3000 urtean egipziarrek Nilon korrontearen aurka nabigatzeko bela asmatu zuten.

XV. mendean jauzi kualitatibo bat eman zen karabelen eraikuntzarekin, masta bakar batek egiten zuen esfortzua hiru makilen artean banatuta.

Marinelen orientatzeko trebetasunak ere aurrera egin zuen, haizeak, korronteak,

astroen kokapena, iparrorratza, seikotea eta abar erabiliz. Helburua beti zen itsasontzi azkarragoak egitea, edo zama handiagokoak edo urrunago iritsi zitezkeenak.

Ez da harritzekoa zarauztarrek, marinelak izateaz gain, mendeetan zehar itsasontziak eraikitzeko hainbat lan egitea, zura, burdina, erremintak, tresneria, altzariak eta abar landuz.

Amerikaren aurkikuntzatik eta munduari lehen bira eman zitzaionetik aurrera, Espainian, Frantzia, Ingalaterran eta Holandan, itsasontzi handien eskaria nabarmen handitu zen, bai armadarako eta baita itsaslapurretarako.

1557an, Juan de Escalante Mendozak idatzi zuen Zarauzko ontzioletan era guztietako itsasontzi handi eta txikiak eraikitzen zirela, haiekin munduko osoko itsasoetan nabigatzeko.

Espainian, Mundu Berriarekiko merkataritza guztia Sevillatik kontrolatzen zen, baina geroago Coruña gehitu zitzaion, eta Kantauri itsasoan eraikitako ontzi asko bi hiri hauetarako ziren, nahiz eta beste ontzi asko kabotaje bidezko garraioan edo arrantzan aritzen ziren.

Orduko ontziolak ez ziren gaur egungo dartsenak bezalako leku finkoak, bertara beharrezko material guztiak garraiatzen diren horietakoak. Erdi mugikorrek ziren eta ibaien bokaleetatik hurbil kokatzen ziren, basoen hurbiltasunaren edo egurra ontziolara eramateko erraztasunaren arabera. Batzuetan, kaskoa leku batean eraikitzen zen, eta barruko ekipamendua eta mastadia, beste toki egokiago batean edo portu baten babesean.

Hiru izan ziren itsasoarekin lotutako jarduera nagusiak Orion, Zarautzen eta Getarian, garai hartan: ontzigintza, arrantza eta merkataritza. Hiru jarduera horiek etengabe egokitu behar izan ziren denboran zehar errealitate ekonomiko aldakorretara.

Bere latitudea dela eta, Zarautz Bizkaiko Golkoko punturik hegoaldekoenetako bat da, Matxitxako lurmuturraren babesean, eta ezaugarri geografiko eta ozeanografiko bereziak ditu.

Bakailao eta balea ugari dituen Ternuaren antzeko latitudean dago. Portu hau Cabotek aurkitu zuen, 1497an.

Itsas korronteez hegaluzearen, bisiguaren, antxoan eta abarren arrantza-

aberastasuna bermatzen zuten.

Itsas jarduerak ekonomiaren dinamizatzaile gisa ere funtzionatzen zuen: arrantza-kanpainetan kontsumitu beharreko **elikagaiak**, itsasontziak eraikitzeko beharrezkoa zen **egurra**, burdinoletan erabilitako **ikatza**, ontzigintzarako eta merkataritzarako erabiltzen zen eraldatutako **burdina**, etab.

Itsasoa izan zen zarautzar haien izaera, kultura, ekonomia eta lurraldearen egitura politikoa eratu zituena.

Aro Modernoan zehar, XVI. eta XVII. mendeetan (Berpizkundetik Industria Iraultzara arte), Zarautzek ontziola ugari izan zituen, porturik ez izan arren.

Aian, Orion eta Zarautzen baso-baliabide aberatsak zeuden, ezinbestekoak ontzigintzarako eta burdinoletako ikatzetarako. Aldi berean, eskulan espezializatua ere bazegoen.

Oria ibaiaren beheko arroaren ingurua ontziolen kontzentrazio-gune nagusietako bat bihurtu zen; batzuk ontzi handietan espezializatuta zeuden, eta beste batzuk ontzi ertain eta txikietan. Lehen esan bezala, basoak eta burdinaren industria osagarria eskura zituzten, bereziki zurezko piezen (kurbatoiak, tabloiak, etab.) eta burdinazko itsas tresnen (klabeak, aingurak, kateak, mota guztietako burdineriak, etab.) beharrak asetzeko.

Hondartza zabala zuen, harmaila ez oso handiak (zurezko egitura soilak) altxatzeko paregabea, bertan neurri desberdinetako ontziak eraikitzeko. Zarautzen gehienbat tamaina ertaineko ontzietan espezializatu ziren: pinazak, bajelak, patatxeak, fragatak, etab., bi edo hiru makilakoak, txopako gaztelurik edo toldotxorik gabeak.

Hondartzak ontzi handiak eraiki eta uretaratzea zailtzen zuen arren, ontzi handi batzuk eraiki ziren (200, 300 eta 600 upelekoak), 300 idi-juntaren bidez uretara eramanak. 1620an uretaratu zen azken ontzi handia, San Joan Bataiatzailea izenekoa, 600 upelekoa. Garai hartan, Zarauzko biztanleria 1.000 herritarretik beherakoa zen.

Zarauzko zurgintza gremioko maisu eta ofizialen trebezia eta kualifikazioak oihartzuna zuen orduko itsas eremu osoan, Kantauri Itsasoko bazter desberdinetako ontzien enkarguak jasoz eta iparraldeko kosta osotik etorritako ikastunak formatuz.

Zarauzko lantalde asko joaten ziren Kantauriko portuetara bertan ontziak eraikitzen, eta behin Argentinako Mar de Plataraino ere joan ziren.

Ontziola ugari horien artean, Txiliku izenekoa aipatzen dute dokumentuek (parrokia eta Frantziskotarren artean egun ez dagoen ibai txiki baten ondoan kokatua), baita kanaleko bokalean eraikitako beste bat ere, Errota Berri inguruan. Garrantzi txikiagoko hirugarren ontziola bat ere aipatzen da, Santa Klara komentutik gertu.

Gaur egun eztabaida bizia dago Victoria itsasontzia, Elkanok munduari lehen bira emateko erabili zuena, 1515ean Zarautzen eraiki ote zen ala ez erabakitzerako orduan. Batzuek baietz diote, eta beste batzuek, berriz, ez dituzte nahikotzat jotzen gertaera hori ziurtatzeko aurkeztutako frogak.

Frogatuta dagoena zera da: Zarautzen ontzi ugari eraiki zirela eta 1670 arte ontziolak egon zirela.

Kronika batzuen arabera, zurgintzari lotutako ur-bazterreko lanbideek bikaintasuna lortu zuten Zarautzen.



(Yulen Zabaleta elgoibartarraren marrazki lumatua).



## 5.2.- ITSASONTZIEN ERAIKUNTZA XX. MENDEAN.

1960ko hamarkadan, Joxe Arrillaga “Kintxe” zarauztarrak, Orioko San Pedro de Aristerrazuko adreilu erregogorren fabrikaren eta Arrillaga erretegiaren jabeak, Aguilafuenteko finka erosi zuen. Gaur egungo urbanizazioa eraiki aurretik, harmaila bat jarri zuen malekoiaren ondoan zuen lorategian, eta metalezko kroskodun arrantzontzi berritzaile bat eraiki zuen, sareak popatik askatuz eta bilduz. Lursailak malekoiarekin zuen horma hautsi ondoren, uretaratzea hondartzan egin zen, itsasgorarekin eta traktoreekin. Ontzi horrek ez zuen espero zen arrakasta ekonomikoa izan, ez baitzituen gainditzen oraindik Getariako portuan (Lazkano familiaren egungo Astillero jatetxeko dartsenan) eraikitzen ziren egurrezko krosko ontziak.

Merezi du tartetxo bat egitea zurgintzan trebeak ziren zarauztar guztiak omentzeko, beren batela eraikitzen baitzuten portutik atera eta sartuta arrantzan aritzeko.

Linazasoro familiari ere aipamen bat dagokio. 50 urtez piraguak eraiki zituen, lizar edo gereziondozko egiturarekin eta Zarautzen egindako eta linaza-olioz iragazgaitutako olanarekin. Piragua hauek hondartzan alokatzen ziren itsaso oneko egunetan. Artean ez zen surfa praktikatzen Zarautzen.

## 5.3.- BAKAILAO ETA BALEA ARRANTZALEAK.

Zarauzko armarriak balea bat izatea ez da kasualitatea.

XVI. eta XVII. mendeetan, Ternuako bakailaoa eta Kantauriko balea arrantzatzen zituen marinel talde zarauztar bat egon zen.

1577an Zarautzek 100 marinel inguru izan omen zituen, kostaldetik hurbileko arrantzan eta baleen arrantzan aritzen zirenak, Narros jauregiko uztaiei lotu eta hondartzan uzten zituzten traineruekin. Baina marinel haietariko asko inguruko portuetako ontzi handiagoetan ere ibiltzen ziren.

1619an bere seme Juanek kontatzen duenez, **Matias Etxebeste** zarauztar pilotua, Ternuako itsaso haietan nabigatu zuen lehen marineletako bat izan zen, eta bertara 28 bidaia egin zituen 1545 eta 1599 bitartean, urte horretan 74 urte zituela hil zen arte. 1577an 80 marinel zarauztar zeuden Ternuan eta horietatik 17 hotz handien ondorioz hil ziren.

Balearen arrantzari dagokionez, eta marinelen liburuaren arabera, zarauztarrek 56 balea ehizatu zituzten 1637 eta 1801 artean, gehi 1844an harrapatutako beste bat. Garai hartako dokumentuetan urte askotako datuak falta dira.

Urte batzuk geroago, 1878an, beste balea bat harrapatu zuten, Roke Etxabe zarauztarrek arpoia sartu ziona. Balea horren jabetzaren inguruan eztabaida dago getariarren eta oriotarren artean. Eskeletoa Donostiako Aquariumean gordeta dago.

Oriotarrek 1901ean harrapatu zuten azken balea.

#### **5.4.- ITSAS EKONOMIAREN ENPRESA-SAREA.**

Mende haietako tokiko leinuek (horietako batzuk Zarauz abizeneko ahaide nagusien ondorengoak) boterea bereganatu zuten itsas ekonomian, merkataritzan eta baita estatuko administrazioan ere. Gipuzkoako eta Bizkaiko jauntxoek ezagutzak eta trebetasunak oso aintzat hartzen ziren, bai estatuan, bai Europako itsasertzean eta baita Mundu Berrian ere.

Leinu oparoak izan ziren: Ortiz de Zarauz, Zarauz y Gamboa, Beltran de Portu edo Puerto, Aldamar, Lopez de Zarauz, Juan de Mancisidor, Juan Martinez de Zarauz, Francisco de Veroiz, Laurgain, Alzuru, Segurola, Arrazubia, Lertxundi, Etxabe, Iriarte, Lapazarank, Ostolaza, Atxega eta enparauak, boterea handitzeko euren artean ahaidetzen zirenak.

#### **5.5.- HONDORATZEAK ZARAUTZEN.**

Itsasoa harrotzen denean, Zarauzko hondartza oso arriskutsua bihurtzen da olatu eta korronteekin. Nire aitak beti esaten zuen: “itsasoa, onean lagunik onena da, eta txarrean, etsairik handiena; baretzen utzi behar zaio”.

1572an, higanoteen ontzi batek ihes egin zuen Frantziatik, eta hil arte jazarri zituzten. Itsasontzi hori Zarauzko hondartzan hondoratu zen, eta bizirik geratu zen pertsona bakar bat geratu omen zen, Narroseko gela urdinaren kondaira sortuz.

1823an Figuerasetik Baionara gatza garraiatzen zuen “Ntra. Sra. de la Merced” ontzia hondoratu zen.

1833an “General Oquendo” bergantina hondoratu zen.

1840an “Aimable” ontzi frantsesa hondoratu zen.

1857an beste itsasontzi frantses bat hondoratu zen.

1868an Getariako portutik askatutako ontzi bat hondoratu zen.

1874an, “Gustav” ontzia hondoratu zen, eta haren egitura oso ondo ikusten dugu marea bizi batzuetan, golfaren parean. Bere kanpaia Santa Ana zaharren egoitzan dago. Alemaniatik zetorren 1.500 merkantzia upel eta 350 petrolio latarekin, eta karlistek errekisatu zuten. Ahaleginak egin ziren uretaratzeko, baina ez zuten lortu.

1882an beste ontzi bat hondoratu zen Munoa parean.

1907an, egurra garraiatzen zuen “Benito Gómez” ontzia hondoratu zen.

## 5.6.- ARO MODERNOKO ERAIKINAK.

### TORRE LUZEA.

Erdi Aroan, Zarautzek harresirik izan ez bazuen ere, hiribildua dorretxe batzuek defendatzen zuten.

Torre Luzea, dirudienez, Zarauzko leinuen lehen etxea izan zen.

Torre Luzeak, gaur egun existitzen ez den Torre Laburrarekin batera, hiribilduaren ekialdeko sarrera babestu zuen, inguruan eraikinik ez zegoen garai batean. Bien artean, Orio eta Donostiarako bidearekin lotzen zen irteera egongo zen, Mendizorrotz eta Igeldotik barrena. Hala ere, defentsa-motako eraikina izan arren, XV. mendearen erdialdean, Enrike IV.ak, ahaide nagusien **bandokideen gerrak** geldiarazteko, dorretxeen defentsa-elementuak mozteko agindu zuen. Ziur asko, Torre Luzearen jauregi itxurak mozketak horiek egitea eragotzi zuen.

Dorre hau euskal defentsa-arkitekturaren adibide garbia da, eta gotiko zibileko onenetakoa. Lodiera handiko hormetan gezileiho batzuk daude oraindik, argia eraikinaren barrura sartzeko. Goiko aldean bi ezproi (alboetako kontrahormak) ikus daitezke, zurezko egiturei eusteko funtzioa izango zutenak, lau fatxadak errematatzen dituzten mentsuloiek (hegal baten pisuari eusteko piezak) bezala.



(Torre Luzearen gaur egungo argazkia).

## ZARAUTZ DORREA ETA SANTA MARIA ZERURATZE PARROKIA.



(Zarautz Dorrea eta parrokiaren gaur egungo argazkia).

Getariatik etorrita, Zarauzko sarreran dagoen eliza da.

Santa Maria Zeruratze parrokia gotiko estiloan eraiki zen XV. mendearen

amaieran. Ordutik, ordea, hainbat erreforma izan ditu. Adibidez, XVI. mendean alboko kaperak gehitu zitzaizkion.

Erretaula nagusia, Andres Araozek 1560an hasi eta bere seme Joanek bukatutakoa, XVI. mendearen amaierakoa eta XVII.aren hasierakoa da, eta Andre Mariaren irudi gotikoaren neurria egina dago.

Nire harridurarako, Burgosko katedrala lehenengoz bisitatu nuenean, bertako erretaula eta Zarauzko parrokiakoa berdinak zirela konturatu nintzen, irudi kopuruari eta banaketari dagokienez. Dirudienez, Astorgako katedralekoak eta garai bereko beste batzuk ere bai.

Parrokia Santa Maria Zeruratzearen multzo arkeologiko monumentalekoa da, Zarautz Dorrearekin batera. Azken honek kanpandorrea eta erlojua ditu, eta herriko eraikinik zaharrena da (XV. mendekoa). Kanpandorrean Arte eta Historia Museoa kokatuta dago, eta bere hormen azpian Zarauzko lehen nekropoliaren aztarnak aurkitu ziren (X-XV. mendeetakoak).

## **NARROS JAUREGIA.**

**Zarauzko jauregia**, gaur egun **Narros jauregia** deitua, parrokiaren parean dago.



(Narros jauregiko argazkia, Gabonetako jaiotzarekin).

**Lehen jauregiaren** jabea Fortun Sanchez de Zarauz y Gamboa izan zen 1237an, Gipuzkoako Justizia burua. 24 ahaide nagusien dokumentu batek dio Fortun Sanchez de Zarautz ganboatarra izan zela.

Ordura arte, antzinako dorre bat izan behar zuen, Gaztelako Enrike IV.ak 1460 inguruan eraisteko agindu zuena, ganboatarren eta oinaztarren arteko bandogerretan borrokatzen zuten noble erreboltariak zigortzeko. Garai hartan Lope Martinez de Zarauz bizi izan zen jauregian, Enrike IV.aren Kontseiluko kidea zena.

**Gaur egungo jauregia** 1536an eraiki zuen Juan Ortiz de Gamboak eta fatxadako armariak, 1237an udalerrria sortu baino lehenagoko leinu bat jauregian bizi izan zela berresten du. Izan ere, «Zarauz Zarautz baino lehen» inskripzioa irakur daiteke, hau da, Zarauz familia bertan egon zela, herriari 1237. urtean izen hori eman aurretik.

Dirudienez, gaur egungo jauregiaren jaberik zaharrenetako bat Pedro Ortiz de Zarauz izan zen. Geroago, Corraletarrekin ahaidetu zen, eta noble-tituluak gehitu zizkien ondorengoei: Granadako eta Villahermosako dukea, Narrosko markesgoa, Lunako dukea, Friaseko dukea, errege-konderria, Sinarcasko konderria, Vilanovako bizkondea.

Leinu haiek asko aberastu ziren Aro Modernoko mendeetan, ontzioletatik, burdinoletatik, arrantzatik, Espainia, Amerika eta Europako merkataritzatik eta erregearen menpeko administrazio publikoko postuetatik eratorritako enpresasareei esker. Euskal kapareak oso ongi ikusiak izan ziren errege-etxeetan.

Jauregi honetako horretan gorputz osoko lau erretratu ikusi ahal izan ziren, **Velazquez eta bere tailerrak margotuak: Antonia de Ipeñarrieta y Galdos andreaarena eta bere seme Luisena, Diego del Corral eta Arellanorena** (biak 1905ean Prado Museoari dohaintzan emanak), **Feliperen IV.arena**, 1624koa (New Yorkeko Metropolitan Museum of Art delakoan dagoena) eta **Olivares konde-dukearena**, orain São Pauloko (Brasil) Arte Museoan ikusgai dagoena.

### **Gela urdinaren kondaira.**

1572an naufragio bat Zarauzko hondartzara iritsi zela dioen kondaira dago. Narrosko markesek jaso zuten jauregian eta logela urdinean sartu zuten, hegoaldera begira dagoen eraikineko gela eguzkitsuenetako batean. Naufragoa izatez noble ingeles bat zen baina higanote izaera zeukan, katolikoek Frantzian

San Bartolome gauean eragindako sarraskitik ihesi baitzeturren.

Zainketarako laguntza jaso arren, higanotearen osasun-egoera okertzen joan zen eta gau batean hil egin zen. Apaiz katoliko baten eskutik azken olio igurtzia jasotzeari uko egin eta anfitrioien inguruan luzaro gaizki esaka aritu omen zen, pozoitu izana leporatzen baitzien.

Orduz geroztik esaten da gela sorgindua dagoela eta urtero, abuztuaren 24ko gauean (Parisko San Bartolome eguneko sarraskiaren urteurrenarekin bat eginez), higanotearen izpiritu oinazetuak protesta egiten duela, gelako horma urdinak apaintzen dituzten erretratuen begiak mugituz eta gaueko isiltasuna kate-kirrinkaz eta garrasiz hautsiz.

Luis Coloma aita jesuitak, uda garaian jauregian atsedean egun batzuk pasatzen zituenak, bere esperientzia propioa izan zuen gela horretan lo egiten ari zela, eta 1912an "El salón azul" izeneko ipuin bat argitaratu zuen, elezahar hori jasotzen duena.

Duela urte batzuk gela urdin ospetsua pertsonalki bisitatzeko aukera izan nuen.

XIX. mendean, jauregiaren eraikina zaharberritu egin zuten, eta 1845ean, egungo alboko bi hegala gehitu zizkieten.

Jauregi horretara Espainiako Isabel II.a erregina gonbidatu zuten udako denboraldi luzeak egitera, bi urtez jarraian. Horrek Zarautz Kantauriko turismo meka gisa sortzea ekarri zuen; izan ere, erreginari aristokrata askok eta Gorteko pertsona askok lagundu zioten, eta udako hilabeteak Zarautzen pasatzen hasi ziren. Jauregia aristokraziako pertsona ospetsu askok bisitatu zuten, hala nola Maria Kristina Habsburgokoa erregina amak, Alfontso XII.aren bigarren emazteak, haren seme Alfontso XIII.a erregeak eta emazte Viktoria Eugeniak, Albako dukesak, Infantadoko dukeak, ehun urte geroago Balduino Belgikakoak eta haren emazte Fabiolak, etab.

## **MAKAZAGA ETXEA (Makatza).**

Erdi Arotik Zarautzen kontserbatzen diren arkitektura zibileko hainbat elementu daude. Zolienetatik hasita, Makazaga etxea nabarmendu behar da, Musika Plazan.

XV. mendeko defentsa-dorrea da, gezileihoak, erdi-puntuko arkuak eta gargolak dituena.



(Makatza etxearen gaur egungo argazkia).

Interes probintzialeko monumentu historiko artistikoa da.

Bertan jaio eta hazi zen Jose Angel Iribar nazioarteko futbol atezaina.

### **FRANTZISKOTARREN KOMENTUA.**



(Frantziskotarren komentuko egungo argazkia).

Eraikina 1600 urte inguruan sortu zuen Juan de Manzidor zarauztarrak, Felipe III.a erregearen idazkari eta kontseilariak. Eraiki eta urte gutxira, frantziskotarrek okupatu zuten.



Frantsesek ospitale eta biltegi bezala erabili zuten Konbentzioaren Gerran (1793-1795), eta ondoren arpilatu egin zuten, aurretik sortzaileak Flandriatik ekarritako erlikia ugari eramanez.

Elizak, komentuk eta ikastetxeak osatzen dute eraikin-multzoa. San Juan Bataiatzailearen eliza neoklasiko estilokoa da. Egindako erreforma ugarien ondorioz, gune artistiko konplexua da, eta zaila da estilo bati atxikitzea. Barruan liburutegi garrantzitsu bat du.

1830ean zaharberritu egin zuten, eta 1959an elizaren nabea handitu zuten, klaustroaren eta patioaren hegal bat erantsita. Egungo fatxada ere orduan eraiki zuten.

Frantziskotarren nobiziotegi nagusia izan zen, aurretik Arantzazun hasten baitzuten erlijio-heziketa, 1960ko hamarkadara arte.

Irakaskuntzari dagokionez, XX. mendearen hasieran, Antoniano ikastetxean eskaintako lehen hezkuntzaz gain, kontabilitateko lanbide-eskola bat zuen. Aurrerago, Mekanikako Lanbide Eskola bihurtu zen, eta, ondoren, egungo Lanbide Heziketako Oteitza Lizeoa sortu zen.

## SANTA KLARA KOMENTUA.



(Santa Klara komentua gaur egungo argazkia).

Narros etxeke Maria Ana de Zarauz y Gamboa andreak sortu zuen 1625ean. Laster 400 urte beteko ditu. Maria Ana andrea bertan sartu zen, bere bi alabekin batera. Hasieran, Lermatik zetozen moja **klaratar** hauek fundatzailearen jabetzako Narros

jauregian kokatu ziren, eta eraikuntza amaitu zenean, Gipuzkoan sortutako klaratarren lehen komentu honetara pasa ziren.

Komentua lerroz osatutako eraikin zorrotza da, eta materialen erabileran soila, frantziskotarren eraikinen sinpletasunari jarraiki.

Gelak patio baten inguruan daude banatuta. Eliza, Miguel Esnaolak 1656an egina, barrokoaren hastapenetakoa da. Kanpaientzako hiru baoko horma batek fatxada errematatzen du, eta sarreran, santuaren irudia kokatzen den horma-hobi bat dago.

2019an azken mojek alde egin zuten eta udalak erosi zuen. Ia lau mendetan 263 moja hartu zituen.

Gaur egun bisita gidatu eder bat egin daiteke, klausurako bizitza batera eramaten gaituena.

## **PORTU JAUREGIA, GAUR EGUNGO UDALETXEA.**

Orube horretan kokatu zen XVI. mendean Aiako Portu familia, merkataritza- eta ekonomia-sareetan aritutako leinu nagusietako bat.



(Portu etxearren argazkia, 1937tik udaletxea dena).

Mende batzuk geroago, 1904tik 1914ra, eraikinak La Salleko anaien eskolaren lehen egoitza hartu zuen Zarautzen.

XX. mendearen hasieran, udaletxea, bere estilo neoklasikoko zutabeekin, Musika Plazan zegoen, gaur egun BBVA bankua dagoen eraikinean. 1936ko irailaren 20a baino lehenagoko egunetan, auto bat iritsi zen plazara. Handik mono urdinez jantzitako lau pertsona jaitsi ziren, anarkistak edo beste interes batzuetakoak, eta udaletxea gasolinaz busti ondoren, su eman eta Meagaseko errepidetik ihes egin zuten. Plazan bizi ziren nire aita eta osaba Azpeitiko Epaitegira deitu zituzten egileak identifikatu zitzaizketelako, baina ezezagunak suertatu zitzaizkien.



(Aurreko udaletxearen argazkia, 1936an erre zena).

Sute horrek informazio historiko asko galduarazi zion Zarauzko herriari, ondorengo belaunaldion ezagutza osatzeko oso ondo etorriko litzaigukeena.

1937an Zarauzko Udala Portu etxera pasa zen, eta bertan darrai gaur egun.

Ateburuaren gainean Jesusen Lagundiaren anagrama ikusten da: IHS (Jesus), honen zergatia oso ondo ezagutzen ez delarik.

## **DOTOREKUA ETXEA.**

Zigordia kale horretan bertan dago Dotorekua etxea, Juan Ortiz de Zarauz doktoreak eraikia. Castro Urdialeseko korrejidorea izan zen, garai hartan Kantauriko portu garrantzitsua zena. XVI. mendekoa da eta izkina batean kokatuta dago, hirigune historikoaren mugetan hain zuzen. Harlanduzkoa da, hiru altuerakoa, bolumen trinkoduna, soila, eta XVII. mendean kokatzen gaitu. Gaur egun Laboral Kutxa dago bertan.



(Dotorekua etxearen gaur egungo argazkia).

## **SAN PELAIOKO ERMITA.**

Karmeldarren kapilau zen Venancio Amezti apaiz zarauztarraren 1925eko kontakizun baten arabera, urte horretan ospatu zen San Pelaio martiriaren hamargarren mendeurrena. Santuaren debozioa, beraz, X. mendetik existitzen zen.

Badirudi zarauztarrek santuaren irudia aurkitu zutela kanalean, itsasotik oso gertu, ekaitzaldi batean itsasontziren batetik askatu eta gero.

Zarauztarrek patroï erlijioso bezala aukeratu zuten, eta 1540an zutik zegoen ermita baten lekuan beste bat eraiki zuten. Baselizako erretaula 1542an egin zen. Ekainaren 26an zezenketak egiten ziren aspalditik, baina ospakizun hauek 1585ean debekatu egin ziren. 1844an gaur egungo ermita eraiki zen toki berean.

## **SANTA BARBARAKO ERMITA.**

1707an eraiki zuten. Baleak ikusteko talaia bat zen.



(Santa Barbarako ermitaren barruko argazkia).

## **6.- ARO GARAIKIDEA.**

Garai honetan Zarauzko esparru sozial guztiei buruzko dokumentazioa dago eskuragarri. Laburpen honetan, ikusiena, deigarriena edo anekdotikoena aipatuko dugu.

### **6.1.- ARO GARAIKIDEKO ERAIKINAK ETA OBRAK.**

#### **ZARAUZKO PORTUA.**

1850ean, artean Zarautzek 1.400 biztanle zituela, Zarauzko badian antxoak inguraketa harrapatzen zen.

Orduko hartan, Zarautzen 5 traineru eta 2 txalupa zeuden, 60 bat arrantzalerekin. Itsasontziak hondartzan lotzen zituzten, gaur egun oraindik ikusgai dauden Narros jauregiko uztaietan.

Arrantza, bizimodua hobeto irabazten laguntzen zuten beste jarduera batzuekin txandakatzen zuten. Horrela, baziren arrantzale ez ezik nekazariak zirenak, mendian ikatza egiten zutenak, errepideetan edo lanbide arruntetan lan egiten zutenak edo inguruko beste portu batzuetako itsasontzietan ontziratzen zirenak.

Arrantzale koitadu haien bizimodu zaila kontuan hartuta, Pascual Madozek marinelen gremioarentzat babesleku bat eraikitzea erabaki zuen, 385.000 erreal kuarto ordainduta.



(Hasierako portuaren argazkia, horma berririk gabe).

## **ZARAUZKO KARMELDARRAK.**

**Karmeldar Oinutsak** Santa Teresa de Jesusek sortutako agindua da. Bere izena Karmengo Ama eta eskapularioari dagokio.

Zarauzko monasterioa 1906an sortu zuten Bordeletik etorritako karmeldar batzuek, eta ordutik, itxiera mojek munduak dituen behar guztien aldeko otoitzaren lekukotza eskaini digute.

Gaur egun 10 moja daude, 9 nazionalak eta bat mexikarra.



(Karmeldarren komentuko egungo argazkia).

## **VILLA MANUELA, GAUR EGUNGO PHOTOMUSEUM.**

14 x 14 metroko eta bost solairuko eraikuntza karratua da, XIX. mendearen amaieran eraikia.

Photomuseum, Argazkigintzaren Euskal Museoa, izaera historiko eta teknikokoa da, eta 1993an ireki zuten. Liburutegia, hemeroteka, erakusketa-aretoa eta argitalpen-zerbitzua ditu.

Gaur egungo Photomuseumaren eraikina, Villa Manuela, XX. mendearen hasieran okupatu zuten moja urtsulatar frantsesek, eta garai hartan frantsesa irakasten zuten neskatoen ikastetxe bat ezarri zuten bertan. Urtsulatarrak Zarauztik joan zirenean, Villa Manuela La Salleko Anaiek okupatu zuten eta mutilen ikastetxe bihurtu zen.

La Salle ikastetxea Abendañoko egungo kokapenera lekualdatu ondoren, eraikina **Espainiako lehen Photomuseuma** bihurtu zen, irudien eta argazkigintzarekin lotura duten tresnen bildumekin. 2020an hil zen Ramon Ignacio Serras argazkilari eta irudi-esperimentatzaile handiak eta Leopoldo Zugazak sortu zuten.

1981 inguruan, Ramon Serrasek eta beste zale batzuek Zarauzko Argazkizale Elkarteak sortu zuten.

Aipatu Serras eta Zugazak gain, beste hainbat argazkilari zarauztar aipatu daitezke: Foto Gar, Mora eta Martin profesionalak, Miguel Angel Eiguren, Luis Butron, Txomin Lasa eta abar luze bat.



(Gaur egungo argazkia: Villa Manuela, Photomuseumaren egoitza).

### **MISERIKORDIA ETXEA, GAUR EGUNGO SANTA ANA EGOITZA.**



(Hasierako Misericordia etxearen argazkia).

Ongintzako Batzordea 1849an sortu zen. Bere lana hiriko pobreen aldeko dohaintzak biltzea eta banatzea zen, eta ahal zen neurrian, haien osasun-beharrei erantzutea.



Urte haietan Zarautzek, bere 15 km<sup>2</sup>-etan, 100 baserri baino gehiago zituen sakabanatuta, lurrezko edo lokatzezko bidez konektatuta, eta bertara iristea zaila eta luzea egiten zen, oinez zein idi-gurdiekin. Eragozpen horiekin, Ongintzako Tokiko Batzordeak, hasiera-hasieratik, herriko behartsuak etxe batean biltzea erabaki zuen, hobeto artatu ahal izateko. Artean Pascual Madoz batzorde honetako kide zela, urtean 3.000 erreale inguruko laguntza onartu zuten udalaren kontura, aristokraziaren eta herriko beste ongile batzuen esleipenekin batera.

Zaintza-lana errazteko eta joan-etorri luzeak ekiditeko, 1881ean, garai horretan Zarautzek 2.400 biztanle inguruko errolda zuela, Josefa del Corral y Suelvesek, Narrosko IV. markesak, oinetxe bat eman zuen altzariekin eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin Miserikordia Etzerako. Gaur egungo kokalekuan zegoen, garai hartan Amaskarko gunea zen lekuan, eta herriko eta haren jurisdikzioko 12 behartsuentzako edukiera zeukan, mantendutako eta gobernaturako erregimenean. Gastuetarako, markesak 2.000 pezetako urteko errenta ordaintzen zuen.

1890ean, Ongintza Batzordeak, udalaren laguntzarekin eta 1849ko Ongintzaren Lege Orokorren babesean, etxea bota eta erruki-etxe berri bat eraikitzea proposatu zuen, nortasun juridiko propio eta independentearekin.

Luis Aladren arkitekto donostiar ospetsuak egin zuen proiektua, egungo Donostiako udaletxea egin zuen berberak. Bere emaztea zumaiarra zen eta ordainsaririk gabeko lana burutu zuen. Garai hartako kontabilitate erregistroetan agertzen denez, etxearen mantenu ekonomikoa udalaren eta herritarren dohaintzen bidez lortzen zen, eta azken hauen artean, partida ekonomiko garrantzitsuenak udako aristokraziatik etortzen ziren.

Eraikinen erdiko blokea 1892an inauguratu zen, eta ondoren, bi hegal gehitu zitzaizkion alde banatan. Etxe hori zerbitzatzeko **Santa Anako Karitateko 4 ahizpa** etorri ziren, eta zaharrei arreta emateaz gain, ondoren XX. mendearen amaierara arte funtzionatu zuen nesken eskola bat bultzatu zuten. Erruki-etxearen erregimenaz eta antolaketaz Ongintza Batzordea arduratzen zen.

### **Nesken ikastetxea.**

Zarautzek 2.600 biztanle inguru izango zituen orduan, eta hazten zihoan.

1893an, udalak Asiloko Ahizpa baten ordezkari Eskolaurreko Maistra titulua zuen beste bat jartzeko eskatu zuen. Herrian irakaskuntza behar garrantzitsua zegoen.

Hor hasi zen mojen hezkuntza lana, 100 urte iraun zuena eta irakaskuntza ertaina, batxilerra eta idazkaritza ikasketak barne hartu zituen.

Eskola handitzeko, eraikin gehigarri bat eraiki zen, eskola itxi zenean hutsik geratu zena. Euskaltegia Villa Manuelan hasi zen lanean baina Photomusum egitea erabaki zenean, eraikin honetara eraman zuten.

Famatuak izan ziren Felisa ahizpa, eskolaurreko irakaslea eta ostegun arratsaldeetan Miserikordiako behartsuentzat etxez-etxe limosna eske joaten zena, eta Felipa ahizpa, bizitza osoan sukaldetik irten gabe egon zena.

### **Anbulatorioa.**

1962an, Gizarte Segurantza garatu ahala, zarauztarren zerbitzurako mediku kontsulta eskaintzen zuen ambulatorioa ere izan zen, Evaristo Uranga jaunaren ekimenez. Adorazio Ahizpa izan zen zentroko erizaina.

### **Gaur egungo Santa Ana Egoitza.**



(Egungo Santa Ana Egoitzaren argazkia).

1980an, Bernabe Apeztegi arkitektoak aurkeztutako proiektuarekin, gaur egungo beharretara hobekiago egokitzen zen egoitza berri bat egiteko premia planteatu zuten Batzordeak.

%80tik gorako finantzaketa publikoa lortu zen Madrilen, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren eskutik, eta gainerakoa herri-ekarpena izan zen, dohaintza partikularrekin, berbenekin eta zozketekin, beharrezko diru-funtsa lortu arte.

1981ean eraikin zaharra eraitsi zen, oso hondatuta eta oztopo arkitektoniko handiekin baitzegoen, eta gaur egungo Santa Ana Egoitza eraiki zen. 1983ko apirilaren 17an inauguratu zen, Miserikordia hitza desagertuz. Obrek iraun zuten bitartean, adinekoak Villa Mundan egon ziren behin-behinean.

Gaur egun, Aldundiko Gizarte Zerbitzuekin itundutako erregimenean dihardu.

Beste jende askorekin batera, Arantxa Zabalegiren lana nabarmendu behar da, eraikuntza berriaren bultzatzaile nagusietako bat izan baitzen, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi bezala hasieran, eta Batzordeko lehendakari moduan ondoren.

Une horretatik aurrera, nortasun juridiko propioa eta independentea duen fundazio bat eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen babesean. Bere helburu soziala adinekoentzako irabazi-asmorik gabeko arreta eskaintzea da. Fundazioak gobernu- eta administrazio-organo gorena du: Patronatua. Honako hauek osatzen dute: alkatea edo zinegotzi delegatuak, Santa Maria Zeruratze parrokiako erretoreak, zentroko zuzendariak eta borondate oneko 5-6 herritarrek. Guztien artean presidentea aukeratu eta karguak musutruk betetzen dituzte.

Aurreko Miserikordia etxeko kanpaia sarrerako lorategian dago gaur egun. Kanpai hori Gustav itsasontziarena izan zen, ekaitz baten ondorioz golfaren aurrean hondarretan hondoratu zen ontziarena. Hondar asko daramaten marea biziak daudenean, Gustaven egitura bistan geratzen da golfaren aurrean.

## **VILLA MUNDA.**

Zeleta Berri bezala ere ezaguna da.

1861ean eraiki zuen, orduko hilerriaren muga, Pedro Gonzalez Velasco doktoreak, Madrilgo Medikuntza Fakultateko museoan zuzendari izandako anatomista eta antropologo adituak. 1882an hil ondoren, alargunak Linaresko markesari saldu zion. Gaur egun udalaren jabetzakoa da eta Udal Musika Akademiaren egoitza da.



(Villa Mundaren gaur egungo argazkia).

### **VISTA ALEGREKO TORREOIA.**

1913an, Muñizko markesak, Vista Alegre finkaren jabeak, begiratoki hau eraikitzea agindu zuen; iturri batzuen arabera, Gipuzkoako hormigoi armatuzko lehen eraikina izan zen, eta 2019an birgaitu zuten.



(Vista Alegreko Torreoiaren gaur egungo argazkia).

## 6.2.- PASCUAL MADDOZ.

### PASCUAL MADDOZ, NOTA BIOGRAFIKOAK.



(Pascual Madozen erretratua, 1870ean “La Ilustración de Madrid” aldizkarian argitaratua).

Isabel II.a iritsi baino hogeit hamar urte lehenago, Zarautz erreferentzia zen udaldietarako. Pascual Madoz politikariak, Villahermosako dukeak, Errealeko kondeek eta Aguilafuenteko markesek dagoeneko beren jauregiak eraikiak zituzten Zarautzen, Madrilgo uda itogarri eta osasungaitzetik ihes egin eta Kantauriko aire garbiaz, temperatura leunaz eta ur osasungarriez gozatzek zekarren hobekuntzagatik.

Pascual Madoz Zarauzko lehen udatiarretako bat izan zen, baita **adopziozko zarauzta ospetsua** ere, herriaren alde egin zituen gauza ugariengatik. Zarauzko industria modernoaren aitzindaria izan zen.

Haren oroimenez, Zumardiari (gaur egun Nafarroa hiribidea denari), frantziskotarretatik hasi eta San Pelaiora arte, bere izena jarri zitzaion mende batez.

Iruñean jaio zen 1806an, eta Genovan hil zen 1870ean, 64 urterekin.

1823an (17 urte), Monzoneko gazteluaren defentsan parte hartu zuen Fernando VII.a babesten zuten San Luisen Ehun Mila Semeen aurka, eta ondorioz, kartzelan sartu eta **Frantzia erbesteratu zuten bi urtez**. Estatistika ikasi zuen Parisen, Sorbonan.

1825ean (19 urte) amnistiaturik izan ondoren, **Legeetan batxilerra** egin zuen Zaragozan.

1833an (27 urte) Fernando VII.a absolutista hil zen.

1835ean (29 urte) Artilleriako kapitain mailara iritsi zen eta Aran bailarako **gobernadore militar** eta lehen instantziako epaile izendatu zuten. Urte berean "Reseña sobre el Clero español y examen de la naturaleza de los bienes eclesiásticos" argitaratu zuen.

1836tik aurrera (30 urtetatik aurrera) **Kongresuko diputatu** izan zen zenbait hauteskundetan.

1846an (40 urte) Zarautzera iritsi zen, aurrerago azalduko dugun bezala. 1854an (48 urte), **Bartzelonako gobernadore zibil** izendatu zuten.

1855ean (49 urte) **Gorteetako buru** izan zen Madrilen eta Ogasun ministro izendatu zuten. Elizak lur handiak zituenenez, gehienak ez-emankorrak, Elizaren ondasunen bigarren desamortizazioa gauzatu zuen, Mendizabalen desamortizazioaren jarraipena.

1868an (62 urte), Iraultza Loriatsuaren ondoren, Isabel II.a tronutik kendu eta erbesteratu zenean, Madrilgo gobernadore izan zen, eta **Estatuko behin-behineko Batzorde Iraultzaileko presidente** izendatu zuten, baina gobernu probisional horren aurka agertu zen. Espainian hutsik geratu zen tronurako Amadeo de Savoia-aren hautagaitza babestu ondoren (monarkia parlamentarioa bermatzen zuena), Espainiako koroa eskaintzeko Florentziara bidalitako ordezkari izan zen, baina Genovan heriotzak ezustean harrapatu zuen, 1870ean (64 urte).

Beti izan zen absolutismoaren aurkako liberal bat, herriak boterea zuen monarkia parlamentarioaren aldekoa. Eskaini zitzaizkion titulu aristokratikoak edo prebenda dotoreak ez zituen inoiz onartu.

Bere oroimenez, Iruñeak kale bat eskainia dio, bere jaioterrian.

## **MADOZEN EGONALDIA ZARAUTZEN.**

1846an (40 urte), Madoz eta bere emazte Matilde Zarautzera etorri ziren, bere alabetako batek, lau urteko Francisca Madoz y Rojas txikiak, oso osasun egoera txarra zuelako eta medikuek eguzkitako eta itsasoko bainuak hartzeko agindu ziotelako. Tragikoki hil zen, hondartzan itota, bederatzirte betetzera zihoala.

Lehenengo bi udetan, Jose Angel Goikoetxea botikariari alokatu zion egoitza. Franciscaren osasuna, hondartza eta itsasoko bainuekin, asko suspertu zen, eta horrek, zarautzarren adeitasunarekin batera, Madoztarrak Zarautzekin

maitemintzea eragin zuen.

1846tik (40 urte) 1870era (64 urte) hil zen arte, udalerrriaren modernizazioaren, komunikazioen, erakundeen eta industriaren sustatzailea izan zen.

1849an (43 urte) hondartzan eraiki zuen etxea inauguratu zuen, gaur egun Muskaria dena. Bertatik Getariako sagua ikusten zuen.

Era berean, leku lasai bateko egonaldia aprobetxatuz, aurrera jarraitu zuen “Diccionario geográfico-histórico-estadística de España y posesiones de ultramar” obrarekin. “El Madoz” izenaz ezagutzen da eta 16 liburuki ditu. Bere idazketarako, Espainiako probintzia guztietan eta itsasoz haraindiko jabetzetan banatutako 20 korrespondentsal eta 1.000 kolaboratzaile baino gehiagoren laguntza izan zuen. 1845ean hasi zen (39 urte) eta 1850ean amaitu zuen (44 urte). Azken liburukian Zarautzi eskainitako 25 orrialde daude.

Bere bizitzako azken urteetan, Pascual Madozek bere ibilbide politikoa eta negozioak uztartu zituen.

Pascual Madoz, **Hiztegi Entziklopedikoaren egilea** izateaz gain, berak gobernuari proposatutako 1855eko desamortizazioaren onuradun ere izan zen.

1860an “**La Peninsular**” izeneko **aseguru-etxe** bat sortu eta zuzendu zuen. Desamortizatutako finken erosketa, eraikuntza eta errenta izan zen bere aseguru-eragiketen helburu nagusia, eta funtsen zati handi bat desamortizatutako finketan inbertitu zuen.

Gertaerak azkartu egin ziren 1868an (62 urte), eta Isabel II.a Espainiatik kanporatu zuten, “Viva España con honra” oihukatuz. Garai hartan, Madrilgo gobernadore eta behin-behineko Batzordeko estatuburu izendatu zuten.

Madoz 1870ean hil zenean, La Peninsular, izugarritzko garapenaren ondoren 210 milioi errealeko kapital zuzkidura izatera iritsi zena, krisi sakon baten erori zen, familia porrotera eramanez. Bere bizitzan zehar ondasun asko pilatu zituen arren, hondamendi ekonomikoa oso handia izan zen, eta 1875ean Madozen alargunak, bere senarra hil eta bost urtera, testamentua egin ahal izateko ondasunik ez zuela deklaratu zuen. Bere gelan zeuden altzari eta arropa gutxi batzuk soilik omen zituen, eta biziraupenerako pentsioa bakarrik zeukala. Badakigu 1873ko apirilaren 21ean Madozen alargunak Madrilan, Toledon eta Zarautzen zituen ondasunak bahitu zirela.

Horrek eragin zuen, beharbada, Madozen ondorengo edo familiako inork ez jarraitzea Zarautzi lotuta.

Zarauzko nafar koloniak betidanik izan du bere figura eta zarauztartasunaren oroitzapen maitagarria.

## **ZARAUTZ 1840AN. ZER EGIN ZUEN MADOZEK ZARAUTZEN ALDE.**

Zarautz mendiz inguratutako haran ederra zen, inguruko herriein oso gaizki komunikatuta zegoena; duna handi bat zuen itsasora zabalik, eta padura handi bat hegoaldean eta mendebaldean.

1840. urtean Zarautzek 1.300 biztanle zituen; horietako asko nekazariak ziren, eta beste batzuk zuraren eta burdinaren artisauak. 60 bat arrantzale ere bazeuden, tokiko arrantzarekin bizimodua modu pobreak ateratzen zutenak, eta beste marinel batzuk, aldiz, hainbat portutako ontzietan itsasoratzen ziren.

Hirigune txikitik kanpo, parrokiatik frantziskotarretaraino, udalerriak 150 baserri inguru zituen sakabanatuta.

Donostiarekiko lotura Orio, Mendizorroitz eta Igeldo bidez egiten zen, eta diligentziak 5 ordu behar izaten zituen ibilbide hori egiteko. Getariarekiko komunikazioa galtzada erromatarretik zen, Santa Barbaratik eta Garate gainetik igarota.

Garai hartan Zarauzko biztanle gehienak karlistak baziren ere, Madozek beti goraipatu zuen zarauztar guztiek eman zioten harrera ona, batez ere bere alaba Francisca hondartzan itota hil zen gertaera tristea eta gero. Gertaera horrek Zarautzi lotu zuen betiko.

Madoz politikari ekintzaile eta konprometitu zen, eta Zarauzko herriarentzat etorkizun bikaina eta berritzailea bultzatu zuten ekimen eta azpiegitura sorta ederra sustatu zuen, besteak beste:

- 1) 1849an, Igeraindik eta Eztaraindik herriko beste bi iturritara **urak ekartzea**, udalerriak erdigunean zuen ur-horniduraren arazoa konponduz.
- 2) 1853an, **malekoiaren** proiektua martxan jarri zuen, Narrosetik abiatuta.
- 3) 1857an, hondartzan Narros jauregiko uztaiari (gaur egun oraindik ere ikus daitezkeenak) traineruak lotzen zizkieten 60 arrantzale ingururentzako babes-**portua** eraiki zuen. 1865ean portu hori horma berriarekin handitu zen.
- 4) Herrian lehen **mediku ofizial finkoa** izendatzea lortu zuen. Ordura arte asteen



bitan etortzen zen medikua. Haurren heriotza-tasa handia zen. %50a baino ez zen iristen 20 urtera.

- 5) Zarauzko **industrializazio**aren aitzindaria izan zen, eta 1856an (50 urterekin) La Fabril Linera sortu zuen, 170 langilerekin, eta hauek babesteko montepioarekin.
- 6) Kultur solasaldietan aritzen zen **La Zarauzana kultur elkarte**aren sortzaileetako bat izan zen. Suposatzen dugu 1928an sortutako La Reja elkartearen aurrekoa izango zela. Azken hau, besteak beste, Celestino Agirresarobek sortu zuen, garai hartan mundu mailako ibilbide ezaguneko tenorea zenak. Ondoren, 1932an, Gure Kabia elkarte sortu zuen solasaldiak egiteko, bazkaltzeko, bertsoak kantatzeko, txistua jotzeko, etab.
- 7) Zarautz **kanpoko herriekin** komunikatu zuen. 1863an, Zarautzik Getariara doan gaur egungo itsasertzeko errepidearen eraikuntza sustatu zuen. Halaber, Kale Nagusiaren amaieratik San Pelaioraino bide bat eraikitzea bultzatu zuen, eta ondoren Orioraino luzatu zuen, Oria ibaiaren ertzetik Donostiara jarraituz. Bi tramo horiek osatzen dute gaur egun N-634 errepidea. Madozek 12.000 erreale jarri zituen bide hori egiteko, eta Jose de Azlor jaunak, Errealeko kondea eta Zolinako bizkondea zenak, beste 40.000. Horrekin, Zarauzko isolamendu geografiko historikoari amaiera eman zitzaion.
- 8) 1869an Untzaingo gaur egungo **hilerria** eraikitzea sustatu zuen. Aurrekoa Villa Mundaren ondoan zegoen, anatomia konparatuan aditua zen Velasco zirujau udatiarrak eraikia.
- 9) 1870ean, Madoz hil zen urtean, Astazubiko **garbitokia** inauguratu zen Azken Portun, eta ekimen horretan ere parte handia izan zuen.



(Madoz zumardiko argazkia 1900 inguruan).

## 6.3.- ARISTOKRAZIA.

### NARROSKO MARKESAK 1830 ETA 1900 ARTEAN.

XVIII. mendean, Zarauz sendiaren jauregia Narrosko markesaren eskuetara pasa zen, Corral leinuarekin lotuta zegoena, eta ondoren, Granada de Egako dukeengana. Gaur egun, familia horien oinordekoena izaten jarraitzen du.

Jatorrizko tokiko aristokrazia zen, 24 ahaide nagusien ondorengoa, eta hurrengo mendeetan noblezia-tituluak lortu zituen.

XIX. mendetik aurrera honakoak topatzen ditugu:

- Fausto Antonio Maria de Eguia del Corral y Eguia (1758-1837), Narrosko bosgarren markesa, 1810ean ezkondu zen Maria Manuela de Suelves y Azlor-ekin. Haien oinordekoa Josefa alaba izan zen.
- Josefa del Corral y de Suelves (1815 – 1893), Narrosko VI. markesa, 1830ean ezkondu zen Manuel de Areizaga y Magallonekin, 1870ean hil zena. 1866an markesgoari Grande de España titulua eman zitzaion. Markesa andrea 1880an ezkondu zen, bigarren aldiz, Joaquin de Vera Olazabal senatariarekin. Isabel II.a jauregian uda pasatzera gonbidatu zutenak dira.

### ISABEL II, ALFONSO XII ETA ALFONSO XIII.

- **Madril-Irun trenbidea** inauguratu berria zen 1864an.
- **1865eko eta 1866ko udetan, Isabel II.a erregina Narros jauregian** izan zen, 35 eta 36 urterekin, markesek gonbidatuta, itsas bainu osasungarriak hartzeko. Bere mediku belgikarrak, bere gaitzetarako, itsas bainuak, eguzkia eta zozoak zituen leku bat gomendatu zion. Fernando VII.aren eta Maria Cristina de Borbón Dos Siciliasen alaba zen. Azken hau 1843an, 13 urte bete arte, erregeordetzan egon zen erregina izan zen.
- Orduan, Donostia oraindik ez zen helmuga turistikoa, eta gortea gure hondartzetara iritsi zenean, Donostiak Miramar jauregia oparitu zion erreginari 1867an, eta bere jarduera turistikoaren hasiera finkatu zuen.
- Isabel II.ak, *halabehar tristen erreginak* (halaxe deitu izan zaio), aurre egin behar izan zion 1868ko Iraultza Loriatsuari, eta 38 urterekin Donostiatik trenez atzerrira alde egin beharra izan zuen, urte horretan bertan uda pasatzen ari baitzen. Isabel II.a Frantzia erbesteratu zen, eta Parisen bizi izan zen 1904an, 74 urterekin, hil zen arte. Horrela, bizitza erdia Espainian eman zuen, eta beste erdia Frantzia.

- 1870ean, 12 urteko Alfontso XII.a bere semearen alde abdikatu zuen, 1885ean 28 urte tuberkulosiarekin hil zena. Haurra zelarrik, Narrosko lorategiko urmaeletako batean erori zen, ingurukoei izugarrizko sustoa emanaz.
- Isabel II.aren ondoren, Amadeo Savoiakoa errege parlamentarioa izan zen 1871 eta 1873 artean. Pascual Madoz ospetsua, Espainiako errege izateko konbentzitzera joan zitzaion segizioko kide zela, Genovan hil zen 1870ean.
- 1874an Alfontso XII.a borboiaren berrezarkuntza egin zen, Canovasen eta Arsenio Martinez Campos kapitain jeneralaren eskutik. Azken hau Segovian jaio zen 1831n, eta Zarautzen hil zen 1900ean. Karrera militar aparta izan zuen, eta 1895ean bitzita publikotik erretiratu zen. Zarauzko bere etxean hil zen 1900eko irailaren 24an, gaixotasun larri baten ondorioz. Zarauzko parrokian egin zen hileta ohore militar guztiekin, Francisco Silvela gobernuburua eta Pacheco jenerala (Erreginaren ordezkari gisa) bertan zirela. Untzaingo hilerrian lurperatu zuten, eta bi urte geroago, Madrilera eraman zituzten bere gorpuzkiak.
- Alfontso XII.aren oinordekoa bere seme Alfontso XIII.a izan zen. Bere ama Maria Kristina Habsburgo-Lorrenakoaren erregeordetzaren ondoren errege izan zen 1931. urtera arte, II. Errepublika etorri zen arte. Uda Donostiako Miramar Jauregian igarotzen bazuen ere, askotan joaten zen Zarauzko golfera, han ohorezko presidentea baitzen. Erroman erbesteratuta zegoela hil zen 1941ean, 54 urterekin.

Zarauzko hondartza Euskal Herriko zabalena eta Kantauriko luzeenetakoa da; horregatik, "Hondartzen Erregina" goitzenarekin ezagutzen da. 2.150 metroko luzera du. Ura itsasgoran 3,15 eta 4,60 metro artean igotzen da, eta itsasbeheran 0,26 eta 1,53 metro artean jaitsi.

Garai haietan, aristokratak beren artean ahaidetzen ziren, eta modu honetan ezkontideek eta beren seme-alabek noblezia-titulua metatzen eta banatzen zituzten, familia-harremanak eta eragin-loturak bereganatuz.

XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mendearen lehen erdian, gaur egungo itsas pasealekutik hurbil, aristokrazia eta burgesia handiak eraikitako jauregiak eta txaletak zeuden, baina pixkanaka, hainbat solairutako etxebizitzak eraikinek ordezkatu zituzten.

Isabel II.a erreginak Zarautz udarako leku gisa aukeratu zuenetik, herria haziz joan zen turismoko helmuga gisa. Horrela, Pascual Madoz jaunaren ondoren (Isabel II.a baino 20 urte lehenago iritsi zen Zarautzera), aristokratak eta goi mailako jendea udako hilabeteak Zarautzen pasatzen hasi ziren.

XIX. mendearen erdialdean eta XX. mendearen hasieran Zarautzen uda igarotzen zuten aristokrata apur hauek beste batzuk erakarri zituzten. Horrela, noble nabarmenak hasi ziren herria bisitatzen, erakargarritasun handiak topatu baitzizkioten: edertasuna, Donostia eta Biarritzetikiko hurbiltasuna, gorteko ordezkarien presentzia eta dotorezia, etab.

Era berean, Zarautzera bestelako pertsona ospetsu asko gerturatu ziren: Humberto Savoia (Italiako azken erregea), Albako dukesa, Eugenio D'Ors, Marlene Dietrich, Maria Guerrero, etab.

Gerra Zibilean, Ciano kondeak ere bisitatu zuen, Mussoliniren koinatuak. Donibane Lohizunetik etorri zen itsasontziz eta hondartzan lehorreratu zen, Narros jauregian ostatu hartuz.

Isabel II.a baino ehun urte geroago, Belgikako Fabiola erregina ezkontideak, Aguilarreko markesen alabak, uda eman zuen Zarautzen. Gogoan dut Balduino erregea nola joan ohi zen Getariara Vespa bat gidatzen, Fabiola atzean zeramala, arrantzara ateratzeko.

## **ARISTOKRATEN UDALDIAK.**

Esan bezala, Zarautzko uda aristokratikoaren loraldia 1850 eta 1970 artean (120 urte) izan zen, Pascual Madoz jaunak lehendabizi eta Isabel II.ak 20 urte geroago herria aurkitu ondoren. Erreginarenean etorrerak Zarautz Espainiako aristokraziaren modako helmuga bilakatzen lagundu zuen.

Lehen aristokratik gutxi eta bertakoak ziren, Narros etxeak esaterako, baina estatuko beste batzuk erakarri zituzten, familia horiek elkarrekin ahaidetzen baitziren.

Aristokraziari bultzadarik handiena Isabel II.ak eman zion, 1865 eta 1866an uda Zarautzen pasatzean.

Berarekin aristokrata gutxi batzuk iritsi ziren, eta ondoren, Gorteko beste kide asko. Horrek guztiak nazioarteko ospea eman zion herriari. Asko dira aristokrata horiek uda Zarautzen igarotzea erabaki izanaren arrazoiak. Garrantzitsuenetako bat hondartza zabala zen, eta bereziki, itsas bainu horietaz gozatzeko aukera, oso preziatuak baitziren sendatzeko eta osasuntsu egoteko zuten ahalmenagatik. Hondartza duna luze hutsal bat zen orduan, baratze txikiren batekin, non eraikitzea ia borondatezko kontu bat zen. Eta aristokratek aukera hori aprobetxatu egin zuten.

1864an Irun-Madril trenbidea irekitzeak eta 1895ean euskal trenbide-sarea eraikitzeak asko erraztu zituen Madril, Donostia eta Bilborekiko komunikazioak.

Udaldiari zegokionez, gutxi ustiatutako herri bat izatea lasaitasun irrikaz zetorren jende aberatsenaren gustukoa zen. Baina aldi berean, zerbitzu ezinhobeak eskaintzen zituen kokaleku zoragarri batean zegoen. Izan ere, Donostia, Biarritz eta Zestoako bainuetxearen hurbiltasuna zinez erakargarriak ziren.

XX. mendearen hasieran, hogeita lau ordutan iristen zen Madrilera, eta Donostiara ibilbidearen iraupena ez zen ordubetera iristen. Beraz, udan Zarautzera hurbiltzen ziren bisitarien kopurua handituz joan zen.

Gehienak hiru hilabete geratzen ziren: San Pelaio Jaiak baino lehen iristen ziren eta Euskal Jaien ondoren alde egiten zuten, Zarauzko herritarrek aristokraten uda luzatzeko bereziki sortutako festa amaitu ostean.

## **ETXEAK ETA JAUREGIAK HONDARTZAN BERTAN.**

Bisitari gehienek, aristokratek eta goi mailako jendeak, beren txaletak eraiki zituzten hondartzan, duna luze eta zabalaren gainen. Gela ugariko etxeak izaten ziren.

Hainbeste dirudun elkartzea inbertsio ona izan ohi zen haien kontaktu, negozio, ezkontza-lotura eta abarretarako.

Beren lorategietan berbenak, solasaldiak eta antzeko jarduera sozialak antolatzen zituzten, eta hondartzara joaten ziren beren protokolo guztiarekin. Arratsaldean golfera, kasinora (Zarautz, Donostia edo Biarritzera) edo inguruko plazetako zezenketetara joaten ziren.

Historia eta Artean doktore den Carmen Aguirre Delclauxek idatzitako "Zarautz ayer" liburuan, aristokraziak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran hondartzan zehar eraiki zituen txalet guztien historia zehatza aurkitzen dugu. Bertan, nobleziaren inguruabarrak eta ahaidetasun-sareak zehazten dizkigu. Gehienak XX. mendeko lehen bi hamarkadetan eraiki ziren.



(Alfontso XIII.a kaleko argazkia, gaur egun Zumalakarregi kalea dena).

Eraikuntza horietako batzuk eta horien sustatzaileak bakarrik gogoratuko ditugu:

- **Vista Alegre**, Villapadiernako Kondeena. Jauregiak, zaindariantzako Txokolate etxeak eta Torreoiak osatutako multzoa.
- **Val de Erro**, Val de Erroko bizkondeek eraikia. Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa den Monte Albertia lanbide-eskolaren kokalekuan zegoen.
- **Celai-Buru**, Mirandako dukearena, Granadako dukearen alaba batekin ezkondua.
- **Villa Elvira eta Villa M.<sup>a</sup> Teresa** Munoan, Narrosko markesak bere bigarren senar Pepe Veraren seme-alabentzat eraikiak. Semea Elvira Magallonekin ezkondu zen eta bere arreba M.<sup>a</sup> Teresa, Manuel Abellarekin.
- **Sanz Enea**, Elviraren ahizparena, San Adrian eta Castelfuertes markesaren ezkontidearena. Gaur egungo udal liburutegiaren kokalekua da.
- **Hostal Duque**. Hasiera batean, San Miguel markesak eraikitako jauregia izan zen. Hamarkada batzuk geroago hotel bihurtu zen. Gaur egun Duke Enea urbanizazioa da.
- **Aguilafuente**, Monteagudoko markes nafarrek eraikia. Beranduago Aguilafuenteko markesek eta Vegako dukeek erosi zuten.
- **Villa Santillana**, Joaquin de Arteaga Echague Infantadoko duke donostiarrak eraikia. XV. mendeko Santillanako markesaren eta Okendo almirantearen ondorengoa zen. Jauregitxo honetan jaio zen 1902an bere alaba, **Cristina Arteaga, Historian doktore izan zen Espainiako lehen emakumea**. 25 urterekin moja joan zen. Sevillako Arte Ederren Akademiako kidea izan zen 1973an, eta **Jeronima** mojen ordenaren birsortzailea. 1984an hil zen, eta zenbaitek Jesusen Santa Teresa txikitat jotzen dute, bere kezka eta gertakarien paralelismoagatik.
- **Villa Munda**, Zeleta Berri ere deitua. Pedro Gonzalez de Velasco auzitegioko mediku madrildarrak eraiki zuen. Bere historia eta zarauztar anonimoen

garezurrena, udalak 2022an argitaratutako "Velasco" liburuan deskribatzen da. Bere orubearen zati batean hilerria egon zen, 1865ean Untzaingo hilerria eraiki zen arte.

- **Villa San Luis**, San Luis kondeak eraikia.
- **Villa Carmen (Lecera)**, Lecerako dukeek eraikia.
- **Villa San Jose**, Bernako markesek eraikia. Gaur egungo Euomarren kokalekua da.
- **Villa Adanero**, Adaneroko kondeak eraikia.
- **Villa Tarifa (Deleitosa)**, Tarifako dukeak eraikia.
- **Villa San Antonio**, Golfeko lehen lehendakaria izan zen La Romana markesak eraikia.
- **Borghetto**, Borghettoko markesak eraikia. Gaur egungo Los Veleros eta Gaztelu urbanizazioen kokalekua da.
- **Villa Montemar**, Endaya familiarena. Mateo Mujika gotzainak erosi zuen bere erretirorako. Itsua zenean, parrokiako meza nagusira joaten zen ospakizun handietan.
- **Madalen dorrea**, Salinasko markesak eraikia.
- **Txoko Txiki**, Donibane Lohizuneko Enrique Bringeon jaunak eraikia. 1883an iritsi zen Zarautzera hotel bat eraikitzeko asmoz. Ondoren, semeak Gran Hotel erosi zuen.
- **Casa Chica** eta **Fernanda Txaleta**, biak Villa Mundaren parean.

Teilatupe propiorik ez zuen aristokraziak "**Gran Hotel**"-ean (gaur egun Eguzki Lore urbanizazioa) hartu zuen ostatu eta bere txalet eta jauregiak eraikitzen hasi ziren hareatzen. Golf a egin zuten, eta hiru hilabete baino gehiagoko uda luzeek eskatzen zuen jai eta azpiegitura sozial guztia sortu zuten.

Familia horiek Zarautzera etortzen zirenean, beren zerbitzura zegoen segizio oso bat ekartzen zuten, eta hauei herrian kontratatzen zituztenak gehitu behar zaizkie. Andreak bere mirabe partikularra zuen, jaunak bere kameraria. Seme-alaben logela bakoitzak bere dontzeila zuen, edo bizpahiru egon ohi ziren etxe osorako. Hauek atearen eta telefonoaren ardura zuten, eta zilarra eta gelak garbitzen zituzten. Madrildik ekartzen zituzten sukaldaria (askotan frantsesa), laguntzailea eta jangelako zerbitzaria. Zerbitzuan lan egiten zuten zarautzarrak eurekin ikasten zuten eta, modu honetan, euskal sukaldaritz a aberasten joan zen. Seme-alaba txikiak hiru andereñok zaintzen zituzten: Mademoiselle, Miss eta Froilan deiturikoe k, ikasi beharreko hizkuntzaren arabera. Beren heziketaz ere arduratzen ziren, eta familia batzuetan irakasleak ere bazituzten. Zerrenda horretara txoferra eta lekaioa gehitu behar dira. Zarautzen, gainera, inudeak, garbitzaileak, lisatzaileak eta abar zeuden.

Gauza horiek kontaktzen zizkien Maria Padilla andreak Dionisio, Maria Antonia, Segundo eta Maria Amor seme-alabei. Ciudad Realen jaioa, 1927an iritsi zen Zarautzera, Borghettoko markesen dontzeila gisa. Lehenik Jesus Gereka zarautzarrarekin ezkondu zen, markesaren gidaria berau. Gazterik alargundu ondoren, Sasikua baserriko Miguel Zubizarretarekin ezkondu zen, eta Borghetto etxeko zerbitzuan 15 egunean behin arratsalde bakarra libratzen zuela kontaktzen zuten. Horrelakoxeak ziren garai hartako ohiturak.

Lorezaina eta bere familia arduratzen ziren urte osoan etxea zaintzeaz. Ingeles estiloko koltxoiak ere egiten zituzten eta txaleta prestatzen zuten jabeak etortzen zirenerako. Pentsa liteke ez zutela lan gehiegi egiten zerbitzuan hainbeste langile izanik, baina ez zen horrela. Familia ugariako etxe handiak ziren, eta sarritan gonbidatu asko gehitzen zitzaizkien. Txalet batzuetan hirurogeita hamar eta lauogeita hamar lagun artean biltzen ziren.

1960tik aurrera aristokratek beren txaletak saldu zituzten, gaur egun ezagutzen ditugun apartamentu-eraikinak eraikitzeko.

## **6.4.- HEZKUNTZA.**

Zarautzek bazuen zerbait XX. mendearen hasierako urte haietan, artean 2.800 biztanle zituela.

1904an, Frantziako III. Errepublikako parlamentuak erlijio-ordenak erbesteratu zituen, Eliza eta Estatua banatzeko legearen bidez. Lege horrek debekatu egiten zien kongregazio erlijiosoei eskola-irakaskuntzan aritzea, eta 12.500 eskola itxi ziren Frantzian.

Ordena horietako bost Zarautzera iritsi ziren. Urtsulinak, La Salle anaidia, Karmelitak, Probidentziako ahizpak eta San Viator anaidia. Azken hauek, baina, laster joan ziren Aretxabaletara.

Aldez aurretik, hiru erlijio-ordena zeuden Zarautzen: frantziskotarrak, Santa Klarako mojak eta Santa Anako Karitateko Ahizpak. Azken horiek Miserikordiarira iritsi berriak ziren, eta 1804an sortutako ordena espainiar batekoak ziren.

## **URTSULINAK.**

Baionatik 52 moja urtsulinen kongregazio bat heldu zen. 1904an, Villa Manuela (gaur egungo Photomuseum) alokatu eta bertan instalatu ziren 25 urtez, 1929ra arte, Baionara itzuli ziren arte. Beraiekin egon ziren Zarautzko neskek frantsesa



ikasi zuten, aristokraziari zerbitzatzeko atea irekitzeko oso baliagarria zena.

## **LA SALLE.**

Zarauzko San Juan Bautista de la Salleko Kristau Doktrinaren Anaien historiak bi garai ditu: 1904tik 1914ra (10 urte) eta 1929tik 2022ra artekoa (95 urte oraingoz).

1904an anaiak Maulen (Zuberoa) zuten nobizio-etxea eta Zarautzera 3 anai eta 15 nobizio etorri ziren. 3 ikasgela eta 116 ikaslerekin hasi ziren Portu jauregian, gaur egungo udaletxean.

1909an nobizio-etxea Irunera lekualdatu zen.

1914an anaiak Zugaztietara joan ziren, Bizkaiko meatze-gunera, eta Zarautz 10 urtez ordezkari gabe geratu zen.

1929an, Zarautzek 4.700 biztanle zituela, itzuli egin ziren herriko hezkuntza-premiekin bultzatuta, eta Villa Manuelan jarri ziren bizitzen 1967ra arte, 38 urtez, Abendañon gaur egungo La Salle ikastetxea inauguratu zen arte.

Milaka izan ginen La Sallen heziketa jaso genuen zarautzarrak, eta etorriko dira beste hainbat ere. Mendeurreneko liburuan, "Salletarrak 100 urte Zarautzen", ikastetxeko ikasle eta irakasle ohien argazki ugari ikus ditzakegu.

## **ANTONIANOAK ETA J.D. EPELDE ETA BITORIANO GANDIAGAREN FUNDAZIOAK.**

Jose Domingo Epelde frantziskotar azkoitiarrak (1870-1956) Juventudes Antonianas sortu zuen Bermeon, Bilbon, Seguran eta baita Zarautzen ere, 1912an gure herrira iritsi zenean.

1912an Zarautzek 3.200 biztanle zituen eta %24 analfabetoa zen.

Juventud Antonianan Musika, Marrazketa, Tailua eta Modelatua irakasten hasi zen, musikan 80 ikaslerekin eta marrazketan 50 ikaslerekin.

1915ean, La Salleko anaiak joan zirenean, frantziskotarren eskola ireki zen. Handik gutxira, aita Epelde zuzendari izendatu zuten, eta bi maisu nazional tituludun kontratatu zituzten, garai hartan hezkuntza emateko derrigorrezkoa baitzen.

1926an, Lehen Hezkuntza Arautua eskaintzen hasi ziren, eta baita Arte eta Lanbideetako gaueko eskolak ere, kalkulua eta kontabilitatea barne. 1929an norberak bere kabuz Oinarrizko Batxilergoa ikasteko aukera eskaini zen.

1944an Lanbide Eskola sortu zen, aurreko Arte eta Lanbideei Mekanika gehituz. Irakaskuntza adar hauek 1953an ofizial bihurtu ziren.

1958an gaur egungo eraikina inauguratu zen frai Bitor Gorrotxategiren ekimenez.

Ondoren, hezkuntza-kudeaketa guztia Antoniano Eskola Politeknikoaren esku egon zen, baina 2000. urteaz geroztik, bi kudeaketa independentetan banandu ziren: batetik, Jose Domingo Epelde Fundazioa oinarrizko hezkuntzarako, eta bestetik, Bitoriano Gandiaga Fundazioa lanbide-heziketarako, Oteitza Lizeo Politeknikoaren baitan. Bi fundazioak dituzte dagozkien patronatuak, guraso, langile eta fraideek osatuta.

Antoniano ikastetxea oso erreferente garrantzitsua izan da Zarauzko eta Urola Kostako hezkuntzan, bai lanbide-heziketan, baita batxilergoan ere.

Gaur egun 300 ikasle inguru ditu Batxilergoan eta 200 inguru Lanbide Heziketan.

Informazio oso zehatza aurkitu dezakegu “100 urte Antoniano Ikastetxea (1912-2012)” liburuan, Jexux Altuna frantziskotarraren, Arantxa Laskibarren eta Itziar Muruaren testuekin.


## **ESKOLA PUBLIKOAK. GAUR EGUNGO OROKIETA.**

1913an, Ramon Kortazar arkitektoak bi eraikin biki altxa zituen Zigordia kalearen bi aldeetan, gizezkoen eta emakumezkoen eskola publikoak hartzeko.

Gaur egun udal-bulegoak dauden eraikina gizezkoen eskola zen, eta Zaharren Egoitza, berriz, emakumeena.

1919an, 35 urterekin, Maximiliana Orokieta, “señorita Maxi”, iritsi zen nesken irakasle bezala aritzeko, sortzez Artaxoakoa. Ospe handia zuen emakumeen hezkuntzan, eta 1954an erretiratu zen 70 urterekin.

1978an eskolak gaur egungo lekura lekualdatu ziren. Modu mistoan ematen dituzte eskolak, eskolaurretik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte. Heziketa bereziko zerbitzua ere badute.



(Eskola Publikoak sortu aurreko argazkia, ahari-joko batekin, Frontoi Txikiren ondoan).

## **MARIA INMACULADA ESKOLA.**



(Maria Inmaculada ikastetxearen argazkia).

Zarautzen, 1931n, Karitateko Alaben Ahizpak sortu ziren. Haien burko almidoituen ikusgarritasun eta bolumenagatik, "txapelaundiak" deitzen genien.

Eskolaurreko irakaskuntza eta OHO (Oinarrizko Hezkuntza Orokorra) eman zituzten. Seguruena, estatuko lehen emakumezko tuna osatu zuten.

1998an, transferentzia-akordio bat egin zuen Antoniano Eskola Politeknikoarekin,

azken honek DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eman zezan.

Gaur egun geriatría-egoitza pribatu bat da adineko egoiliarrentzat.

### **SALBATORE MITXELENA IKASTOLA.**

Euskarazko hezkuntza sustatzeko Euskal Herriko lehen ikastoletako bat.

Muebles Alfak hutsik utzitako pabiloi industrial batean hasi ziren eskolak ematen, enpresa gaur egun Eroski hipermerkatua dagoen kokalekuan eraikitako fabrika berrira lekualdatu baitzen.

Salbatore Mitxelena ikastola 1965ean sortu zen, guraso-talde baten ekimenez, 120 ikaslerekin. 1972ko azaroaren 22an legez onartua izan zen. Eskolaurrea, Lehen Hezkuntza eta DBH ematen ditu; 1.000 ikasle baino gehiago eta 70 irakasle eta langile inguru ditu. Eskolaz kanpoko jardueren artean bertso-eskola nabarmentzen da.

### **LIZARDI INSTITUTUA.**

1980an sortutako Lizardi Institutuak DBH eta Batxilergoa ematen ditu, A eta D ereduetan.

### **MONTE ALBERTIA LHII, IRUDI PERTSONALEKO PRESTAKUNTZA-ZENTROA.**

1962an Espainiako estatuan ile-apainketa eta estetika espezialitateetan ireki zen lehen zentroa izan zen, eta Gipuzkoan gaur egun esparru horretan espezializatutako erdi-mailako eta goi-mailako ikastetxe publiko bakarra da. Nazioarteko Erasmus gutuna du.

**SAN MIGUEL PATRONATUA ETA ASPACE-ZARAUTZ**, arreta espezializatuko bi eskola dira.

**SANZ-ENEA KULTUR ETXEA**, zerbitzu hauekin: haur eta helduen liburutegia, hemeroteka, fonoteka, diapoteka, hitzaldi-aretoa, erakusketa-aretoa, IMI programa, ikasgelak. Udaleko kultur dinamizatzaile bat du.

## 6.5- INDUSTRIA.

### EHUNGINTZA, ZUR, METAL ETA BESTE INDUSTRIA MODERNOEN JATORRIA.

**XVIII. mendea Ilustrazio**arena izan zen. Espainia, borboien erregealdi absolutisten eskutik, porrot ekonomiko eta sozialez betea egon zen.

**XIX. mendea** Europako garapen industrial, ekonomiko eta sozialaren mendea izan zen, eta oztopoz beteriko isla izan zuen Espainian. Hori dela eta, balantzea ez zen Europan bezain pozgarria izan.

XIX. mendea norgehiagoka etengabekoa izan zen esparru soziopolitiko guztietan. Espainiak, XIX. mende osoan eta XX. mende hasieran, gerra dinastikoak bizi izan zituen etengabe, monarkikoen eta errepublikarren artekoak, kontserbadoreen eta liberalen artekoak, erlijiosoen eta laikoen artekoak eta, horrekin batera, karlismoaren eta bere hautagaiaren artekoak. Horri inperioak Amerika eta Filipinetan izandako gainbehera gehitu behar zaio, zailtasun ekonomiko, sozial eta bizikidetzakoak areagotuz.

Karlismoa, Euskal Herrian oso sustraitua, gutxi gorabehera 150 urte luzez (1833-1983) egon zen Espainian, ia beti dinastia erbestean zuelarik. Nahiz eta hiru **gerra karlisten** sorburu izan (lehen **1833tik 1840ra**, bigarrena **1846tik 1849ra** eta hirugarrena **1872tik 1876ra**), beste une batzuetan karlismoa alderdi politiko bat gehiago izan zen. Frankismoan, bere protagonismoa txikitzen joan zen, lehenengo bi hamarkada demokratikoetan erabat desagertu zen arte, ondoren hondarren bat isolatuta geratu zen arren.

XIX. mendean, trenbide loturen aurretik, lur bidezko oztopoek Espainiako bizitza soziala eta ekonomikoa **eskualdetan** egituratzea ekarri zuten.

Aurretik bankuekin egin zen bezala, 1855eko Trenbideen Legeak sektorea liberalizatu zuen, konpainia pribatuei trenbideen sarea beren interesen arabera marrazteko aukera emanaz.

Trenbidearen garapenak ideia, bidaiari eta merkantzien joan-etorria ahalbidetu zuen, zonaldekako nekazaritza eta industria espezializazioa bultzatuz eta Espainiako kostaldea barnealdearekin lotuz.

1865ean, Espainian 5.000 km trenbide zeuden eraikita, eta beste 2.000 km proiektuan.

## ZARAUZKO INDUSTRIALIZAZIO MODERNOA.

XVIII. mendera arte, Erdi Aro eta Aro Moderno osoan zehar hain ospetsuak egin ziren euskal ontziolek eta haien arma-fabrikek ibai batzuetako ur lasterren energiarekin funtzionatzen zuten, horretarako topografia lagungarria baitzuten. Gure arbasoak trebeak izan ziren beti ibilgu azkar horien energia aprobetxatzen.

Baina James Wattek, **lurrun-makinaren** asmatzaileak, mugimendu lineala zirkular bihurtu zuen beso batekin, eta horrek mendekotasun topografikoaren amaiera ekarri zuen. Bere makinak hirietan kokatutako industrietan instalatu zituen, eta,aldi berean, lanpostu berriek biztanle berriak erakarri zituzten. XVIII. **mendearen azken hamarkadan eta XIX. mendearen hasieran** geunden.

Orduan teknologia ez zen oraingo azkartasunarekin zabaltzen. Ingalaterra industrializatu ondoren, Europako industrializazioa hasi zen, baita Espainiako garapen-prozesu motela ere, XIX. mende oso gatazkatsuan zehar.

Madoz iritsi aurretik, Zarautz, arrantza eta nekazaritzaz gain, Urtetan basoak, ontziolak, burdinolak eta artisautza osagarriak zituen herri bat zen. Eskulan hori oso ugaria ez bazen ere, industriarako, artisautzarako eta kapareen bestelako zerbitzu-jardueretarako egokia zen, besteak beste, eginkizun administratibo, erlijioso, komertzial edo militarretarako.

Gainera, baserrietatik beste industria- edo zerbitzu-jarduera batzuetarako eskulanaren fluxua bermatuta zegoen, baserrietan seme-alaba ugari jaiotzen zirelako, eta lursail txikien minifundioa mantentzeko, maiorazkoa (gizonezko nagusi) bakarrik geratzen baitzen baserriaren buru.

Gaur egun arte, baserriko herentziak hamabi zatitan banatu izan dira. Hamaika zati maiorazkoarentzat izaten ziren, eta hamabigarrena neba-arreba guztien artean banatzen zen, maiorazkoa barne. Gainerakoek baserritik kanpo bilatu behar zuten bizitza, nahiz eta, kasu askotan, maiorazkoak laguntza beharrean egon zitekeen neba-arreba etxean jaso ohi zuen.

Egoera hori kontuan hartuta, Zarauzko industria modernoa Pascual Madoz jaunaren garaian hasi zen. Garai hartan, gizonezkoen analfabetismoa %85ekoa zen Espainian. Ez dakigu zenbatekoa izango zen 1.400 biztanleko Zarautz isolatu batean, baina ziur esanguratsua zela.

1856an Pascual Madozek 50 urte zituen. Urte horretan lihozko ehun-fabrika bat sortu zuen Zarautzen, "**La Fabril Linera**" izenekoa, 170 langilerekin, eta herriaren

garapen industrialari hasiera eman zion. Bere fabrika gaur egungo Muskaria eta Euomar artean egon zen kokatuta. Oihalen, mahai-zapien eta ezpainzapien lehen fabrika hari esker, zarautzarrak beren trebetasunak hobetzen joan ziren industria-asmamen modernoan erabileran.

Madoz aitzindaria izan zen gauza askotan. Adibidez, 1858an, bere fabrikako langileek **“Monte-Pio” moduko barne-araudi bat** zuten, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita, gaixotasun-bajan zeudenei diru-sarrera batzuk ziurtatzen zizkiena, poltsa komun baten funtsekin. Gisa honetako adostasunak gaur egungo Gizarte Segurantzaren aurrekariak izan daitezke. Txomin Arrutik Monte-Pio honen jatorrizko alearen fotokopia bat dauka.

## **ZARAUTZEN GARAPENA 1850ETIK – 1900ERA.**

1865ean, kostaldetik Zarautz eta Getaria lotzen zituen errepide bat eraiki zen.

1895ean Donostiarekin lotzen gaituen trenbidearen geltokia inauguratu zen.

Aristokraziaren txalet eta jauregien eraikuntzak, eta horien altzariek eta zerbitzuek, gero eta jarduera ekonomiko handiagoa sortu zuten, eta Zarautz ekialderantz eta hegoalderantz hedatu zen.

1897 eta 1930 bitartean, Errikobarra eta Santa Klara Zarauzko hiri-garapeneko eremu nagusi bihurtu ziren, eta Bigarren Errepublikan (1931-1936), hirigintza-obra nagusia Foruen plaza eraikitzea izan zen, Zigordia eta Errikobarra kaleak lotuz.

1833an, Zarautzek 1.300 biztanle zituen erroldatuta.

1860an, Zarautzen loraldia hasi zenean, 2.000 biztanle pasatxo zeuden, eta 1910erako 3.300 baino gehiago. Herriaren hazkunde demografikoaren erritmoa 40ko hamarkadara arte mantendu zen, 5.300 biztanle izatera iritsiz. Gaur egunera arte ere ez du etenik izan.

Goranzko erritmo hori gorabehera, XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehen urteetan krisi- eta heriotza-egoerak izan ziren, eta eragin zuzena izan zuten biztanlerian. Besteak beste, 1855eko kolera, 1870, 1875 eta 1897ko urteetako baztanga-epidemiak eta 1918ko gripe arina aipa ditzakegu, 20-30 urteko gazteen artean heriotza eragiten zutenak. Horri buruzko datu zehatzik ez dagoen arren, pentsatzekoa da eragin handia izan zuela herrian.

## **MADOZEN ONDORENGO INDUSTRIA.**

1900etik 1930era, Zarauzko jarduera sozioekonomikoa aldatu egin zen, eta industria (ehungintza, zura eta altzarigintza), zerbitzuak eta uda-egonaldiak garatu ziren.

Gipuzkoako gainerako udalerrietan bezala, XIX. mendearen erdialdean hasi zen herriaren bizitza ekonomikoa eraldatzeko prozesu handia, industria- eta zerbitzu-sektorean oinarritutako egitura ekonomikoa garatuz.

Esan bezala, eraldaketa hori gauzatzeko, erabakigarria izan zen Pascual Madoz Zarautzen egotea, lehen industria modernoa sortu baitzuen, **La Fabril Linera**, 1857an. Beste enpresa handi batek (**Seguros La Peninsular**), porrot egin ondoren, La Fabril Linera enkantean jarri zuen eta 1898ra arte iraun zuen beste jabe batzuen eskuetan.

La Fabril Linerari beste ehun-lantegi batzuk batu zitzaizkion, hala nola **Berazadi Vargasena** eta **Alberdiren**a 1897an, eta beste lau gehiago 1900 eta 1937 bitartean: **Lizundia, Araquistain, Braceras eta Echeveste**.

Horrela, 1860an La Fabril Linera soilik izatetik, 1897an hiru lantegi eta 1919an bederatzi izatera igaro zen Zarauzko industria-errola.

## **LAS DELICIAS GOZOTEGIA ETA GUERECA TXOKOLATEAK.**

Zarautzek 2.000 biztanle baino ez zituen arren, bere ekimenaren beste erakusgarri bat Las Delicias gozotegia izan zen. 1871n Donostiako Boulevardean sortu zuten Marcial eta Ramon Gereka Beldarrainek, Zarauzko familia zabal bateko kideek eta Madozen garaikide izandakoek.

Badirudi beste anaia batek Oñatin Chocolates Guereca sortu zuela.

## **ANDAZARRATEKO BURDIN MEATEGIAK ETA MOLLARRIKO KARGALEKUA.**

1908an **Mollarriko mineralen kargalekua** ireki zen, burdinazko mineralen kargamentuak ontziratzeko. Kargamentu horiek 6 km-ko aireko linea baten bidez iristen ziren Andazarrateko (Asteasu) meategietatik Zarautzeraino. Jabetza Belgikako akziodun batzuen zen eta Compañía Minera de Álava y Guipúzcoa deitu zioten. Proiektua Koloniako ingeniariak batek egin zuen, eta gure ustez,



enpresa honek **Wilhelm Vahl Muller** ingeniari alemaniarra bidali zuen, besteak beste kargalekua eta garraio- eta gordailu-lineak eraikitzeko. Lignito-mea agortzeagatik meatzea itxi ondoren, Vahl 1924an Zarautzera etorri zen bizitzera. Kargaleku hark egitura metalikoa zuen itsasontziak kargatzeko. 1949ko uztaileko egun batean, Xixario oriotarrak, Orioko izen bereko jatetxearen jabeak eta soldatzaile ere izan zenak, karga-egitura desmuntatu zuen.

Joxe Mari Izaga Reiner ingeniari debarrak instalazio konplexu honen planoen fotokopiak gordetzen ditu gaur egun, behin desmuntatuta Arroako Cementos Albedik erosi eta erabili zituenak. Jatorrizko planoak Gallartako Meatzaritza Museoaren esku utzi zituen Izagak. Minerala kargatzeko biltegiak udalak zaharberitu ditu eta gaur egun Mollarrin bisita daitezke.

Wilhelm Vahl Zarautzen geratu zen, eta Meagaseko igoeran purpurina fabrika bat sortu zuen, metalezko egituretarako pintura antioxidatzailea ekoizteko. Sei seme-alaba izan zituen: Joxe, Jaime, Valentin, Angel Mari, Carmelo eta Emma, herrian negozio ezberdinak hasi zituztenak.

2022an, Xabier Eizagirrek 3Dko film labur polit bat egin berri du kargalekuari eta gordailuei buruz. Xabier Euzkitzek eta Asier Mendozak kolaboratu zuten, besteak beste.



(Mollarriko kargalekuaren argazkiak 1908an).

## ALEMANIAR EKINTZAILEAK ZARAUTZEN.

Mollarriko kargalekutik abiatuta, alemaniar ekintzaile batzuk gure herrian kokatu ziren hainbat arrazoiengatik eta zarautzarren bizitza industrialerako esanguratsuak izan ziren.

- Lehen aipatutako **Wilhelm Vahl**, Mollarriko kargalekua eraikitzaera iritsi zen Zarautzera eta ondoren purpurina antioxidatzailea egiteko fabrika bat sortu zuen.
- **Hans Linke** (1890 Nuremberg - 1963 Zarautz). Lehen Mundu Gerran Madrilera iritsi eta Infantadoko dukearekin hasi zen lanean, Natalia Figueroaren aitonaarekin, Raphael abeslariaren emaztearekin. Madrilen ezkondu zen Lazkano zarautzarrarekin, Lecerako dukesaren zerbitzura zegoenarekin. Biak Zarautzen kokatu ziren. Suhia Carlos Rech jaunaren fabrikari kargudunetako bat izan zen, eta haren biloba Jose Antonio Zabala Linkel ere bertan aritu zen lanean.
- **Federico Pielhoff**, sare elektrikoetarako zeramikazko isolagailuen industria handi bat sortu zuena. Bere biloba, Kristian Pielhoff, Bricomania brikolaje saioko telebista aurkezle ezaguna da.
- **Enrique Keller**, 1944an akordeoi, gitarra, jostailu eta abarren fabrika muntatu zuena.
- **Carlos Rech**, Talleres Auxiliares de Fundación TAF sortu zuena.
- **Guillermo Sharfe**, jostailu eta arrantza-gaien denda bat izan zuena, gaur egun Kupela taberna dagoen lekuan. Bere dendan erosten zituen udalak hondartzako hareazko marrazkien lehiaketetarako opariak. Lehiaketa haietako txapeldun izan zen Javier Mendikute okulista behin baino gehiagotan.
- **Hermann Linder**, TAFen lan egitera etorri zen ingeniaria, gero independizatu eta System Technik muntatu zuena, garraio pneumatikoko ingeniari-tza propioa.

## INDUSTRIA GERRA ZIBILAREN ONDOREN.

1936-1939ko Gerra Zibilaren ondoren, hirugarren sektoreak garrantzitsua izaten jarraitu zuen, Zarautz turismorako eta udaldietarako leku bezala sustatu baitzen.

Hala eta guztiz ere, bigarren sektoreak, industriakoak, hirugarren sektorea baino pisu gehiago zeukan, eta zuraren eta altzarien industria nabarmentzen zen bereziki.

1960 inguruan, Zarautzek Gizarte Laguntzarako bulegoa zuen, Gizarte Segurantzaren aurrekoa, Eusebio Bastida txirrindulari entzutetsuaren bizikleta-tailerraren parean. Txirrindulari hori Espainiako ziklo-kros txapelduna izan zen

1931n. Bulegoan Juanita Gordo ari zen lanean, Jose Mari Larrañagaren aginduetara.

Berak kontaktatu zuten, Zarautzek 8.000 biztanle zituen, eta horietatik 6.200 pertsona zeuden Gizarte Segurantzari alta emanda Zarauzko enpresetan, (industriakoetan, ostalaritzakoetan eta gainerako jarduera-sektore guztietan: merkataritza, banka, hezkuntza, osasungintza eta abarretan). Izan ere, egunero Oriotik eta Zumaiatik trenaz iristen langileak Zarautzera, gehienak eskualdera bizitzera etorritako Estatuko langile etorkinak. Zarautz benetan industria- eta enplegu-herria zen, eta langile haietako asko, aurrezkiak metatu ahala, Zarautzen erroldatu eta bertan bizitzen hasi ziren.

Garai hartan Zarautz Gipuzkoako hirugarren herri industrialia zen, Eibar eta Errenteriarren atzetik.

Jarraian, XX. mendean funtzionatu zuten jarduera desberdinetako 100 enpresa industrial baino gehiago aipatuko ditugu. Gehienek mendearen bigarren erdian izan zuten jarduera nagusia.



(Zarauzko industria haien iragarkiak).

## EHUNGINTZA.

Esan bezala, zarauztarrek antzinatik ulertzen zituzten makina eta adimen mekanikoak, eta Pascual Madoz jaunaren mihise-fabrika ere ekimen-hazitegia izan zen. Ikus ditzagun beste ehun batzuk:

1. **Fausto BERAZADI VARGAS** jaunak bazuen jada ehungintza industria bat 1897an.
2. **Textil LIZUNDIA.** Parrokiatik gertu zegoen, Menendezekin elkartuta, eta gero banandu egin ziren.
3. **Textil GUIPUZCOANA.** Textil Lizundia eta beste bi bazkide batzearen emaitza izan zen. 43 langile izatera iritsi ziren.
4. **Textil BERAZADI,** Jose Mari, Sabino eta Esteban Berazadirena, Fausto Berazadi Vargasen bilobak. ETak hildako Aingeru Berazadiren lehengusuak ziren, Elgoibarko SIGMA josteko makinen gerentea berau. Angel Irastorza aita izan zen enpresaren arduradun nagusia. Bere lurretan egon ziren gero **Torneados Aranoa** fabrika eta ondoren **Torneados Messil.**
5. **Textil AZPIROZ,** geltokiaren ondoan zegoen. Trakak egiten zituzten jantziatarako, eta geroago, makina berriein, kotoizko ehunak jeans-etarako. Une batean, bazkideak banandu, lokala zatitu eta independizatu egin ziren. 1980an itxi zuten. 15 langile inguru ari ziren lanean, horietako batzuk Zumaiatik zetozenak, eta horien artean 19 urte egin zituen Maria Antonia Gereca zarauztarrak, gero Hendaiara ezkondu zenak.
6. **GÓMEZ familia,** Bilbokoa, Azpirozko bazkide ohia.
7. **Textil MENENDEZ,** Menendez familiako ehundegi txiki bat izan zen. Jose Mari Menendez ospetsuak itxi zuen. Bere osaba batek “Stábat Mater Dolorosa” bat konposatu zuen, Aste Santuan beti parrokiari abesten dena.

## ALTZARIAK.

Aristokraziaren txalet eta jauregitxoek hasiberria zen altzari-industriari bultzada eman zioten, herriko biztanleriaren hazkundera eta garapen ekonomikoa egonkortuz.

1. **MUEBLES ARRUTI, El Palacio del Mueble.** Arruti familiakoa. Lehenengo herriaren erdian egon zen, Laguntasuna kooperatibaren ondoan, eta gero San Pelaioko “Palacio del Mueble” delakora joan zen. Azken kudeatzailea Iñaki Arruti izan zen, altzari modernoak diseinatzen zituena. Azken urteetan, Abendaño industrialdera lekualdatu zen. 120 lanpostu ere izan zituen. Nire aita, tabernaria izan baino lehen, lehen mailako ofiziala zen Arrutin.

Industria Ingeniaritza ikastera 17 urterekin Madrilera iritsi nintzenean, gurasoekin Sortaldeko Jauregia bisitatzen ari nintzela, aitak esan zidan: “altzari hori guk egin genuen Arrutin”.



(Laguntasuna kooperatiba, Muebles Arruti eta Villa Josefinaren argazkia, XX. mendearen lehen laurdenean).

2. **Muebles ALFA**, josteko makinentzat mahaia eta etxeke eta bulegoko altzariak egiten zituen. 308 lanpostu izatera iritsi zen. Pedro Irure jauna urte askotan izan zen gerentea.
3. **REVESPAN** (Revestimientos de Poliester Alfa S.A.). Bulegoko altzarientzako PVCz estalitako panelak. 40 lanpostu ere izan zituen.
4. **Torneados ARANO**, aita Adolfo, eta seme Adolfo eta Juanek eraman zuten. Hanken torneaketak eta taila mekanikoak egiten zituzten. 40 langile ere izan zituzten.
5. **Muebles FLORENCIO JUARISTI**, Noiz Bait pilotalekutik gertu. 60 enplegatu. Gaur egun Pilar plaza da.
6. **Muebles MURGUIA**. Bere orubean, gaur egun, Elkano, Urdaneta, Legazpi eta Txurruka nabigatzaileen urbanizazioa dago.
7. **Muebles GARRASTAZU**. Odriozolarekin bazkide izan zen eta gero banandu egin ziren. 15 langile izatera iritsi zen.
8. **Muebles ODRIOZOLA**, Valero. 13 langile izatera iritsi zen.
9. **Muebles MANUFACTURAS ZARAUZ**, Jose Mari Urbieta eta Dionisio Zubeldia koinatuenak. 60 langile ere izan zituzten.
10. **Muebles BEIZAMA**, Juan Beizamarena. 35 lanpostu.
11. **Muebles ESNAL**, 27 langile izatera iritsi zen.
12. **Muebles ITURRIA**, 13 lanpostu.

13. **Muebles IZIAR**, 26 enplegaturekin.
14. **Muebles URIA**, 12 lanpostu, Patxiku kalean.
15. **Muebles URIA**, Herrikobarran, aurrekoen lehengusuak.
16. **Muebles ECHAVE**, Juan Manuel, jantokiak eta logelak. 22 langile ere izan zituen.
17. **José Manuel AZCUE**, zurgindegia, 12 langile izatera iritsi zen.
18. **Muebles ECHAVE**, "Munioso", sukaldeko altzariak.
19. **Muebles TREKU**, bere loraldian 100 langile izan zituen.
20. **Muebles GARCHOTENEA**, Modesto Fernandezek bazkide izan zena. Zigordia kalean zegoen, batzokiaren aurrean. Batzoki hori Cinema zine-aretoa izan zen diktaduran eta demokrazian berriro ere batzoki bihurtu zen.
21. **MUEBLES LOYOLA**, Modesto Fernandezek sortu zuen Garchoteneatik banandu zenean.
22. **Muebles JUARISTI**, gaur egungo Laboral Kutxaren ondoan. Altzariak egiten zituzten, eta hilkutxak ere bai, hiru preziotan, 1., 2. eta 3. mailako ehorzketentzat.
23. **Muebles BALENCIAGA**. Iñaki Balenciaga izan zen sortzailea. 12 langile ere izan zituen.
24. **ARIN**, zurezko pertxen eta osagarrien fabrika. Leandro Arinek sortua.



(Arin Hermanos enpresaren argazkia geltoki ondoan, 1960 inguruan).

25. **Muebles AZPIAZU.**
26. **Muebles AMILIBIA** eta Fermin Iruretagoiena. Bulegoko altzariak egiten zituzten.
27. **Muebles AGOUES.**
28. **Muebles UNANUE.** Sukaldeko altzariak. 70 langile izatera iritsi zen.
29. **Muebles LOPETEGUI.**
30. **Muebles ARRILLAGA.**
31. **Muebles BERISTAIN.**
32. **Muebles ZUZUARREGUI.**
33. **Muebles Aguirrezabalaga KAPAXKO,** Anbrosio eta Xanti anaienak.
34. **Muebles EMBIL,** Santi Enbilen aitak sortua.
35. **FABRICANTES UNIDOS,** Nazario Larrañaga, Antonio eta Ignacio semeekin. 13 langile izatera iritsi ziren.
36. **GUMERSINDO ARAMBARRI,** zurezko hainbat pieza egiten zituen, eskopetakulatak eta abar.
37. **Muebles ACARREGUI.**
38. **Muebles ZARAUZ,** Azpeitiko Amadeo Aizpitartek eta Andres Tantonek sortua. Azken honek altzariak saltzeko denda bat izan zuen gaur egungo Sayalero gozotegian. 40 langile ere izan zituen.
39. **CODEFA S.L.** altzariak, 35 langilera arte iritsi zen.
40. **BARNIZADOS RUEDA,** 11 langile izatera iritsi zen.
41. **ZARAUZ S. Koop.** sukaldeko altzariak, 31 langile ere izan zituen.
42. **FABRIN,** moldurak eta tailu mekanikoak, Abendañon. Suarez modelistarena eta "Jangoikua" zenarena. 50 langile ere izan zituen. Juanito Olazabal "Paxo" arduraduna Frantzian hil zen, auto batek harrapatuta.
43. **CIOMU,** altzarien apainketa, 49 langile izatera iritsi zen.
44. **Curvados PAGOETA,** txapeatutako kurbaduren ekoizlea. 16 lanpostu ere izan zituen.
45. **Muebles LEIKA,** 80 langile izatera ere iritsi zena.
46. **Muebles OLAETA,** Gineako zuren zerrategia eta zur finak.
47. **Muebles ECENARRO.** Benito Ezenarro Rementeriak sortu zuen, eta Sabino Ezenarro Roteta semeak eta Sabin Ezenarro Atorrasagasti bilobak jarraipena eman zioten. Benito aitonak Torrent kataluniarrarekin ikasi zuen lanbidea, Javier Torrenten aitonarekin, hain zuzen ere. Azken hau Kutxako langilea izan zen eta Regina Caminorekin ezkondata dago. Fabrikak 15 langile izan zituen garairik onenetan eta bere bezero garrantzitsuenak Getariako armadoreak ziren.
48. **Muebles LETAMENDIA Y CÍA.,** Herrikobarra kalean.

## **ARTISAU MAISUAK.**

### **ZIZELKARIAK**

1. Martin Gallastegi, zurezko eskultorea, 1909an Bergaran jaioa. Maria Luisa eta Maria Antoniaren aita. Bere tailerra eta denda gaur egun Tip Top alemana ikasteko akademia kokatutako lokalean zeuden. Leku berean, Larrañaga familiak, Pastor, Jose Ignacio eta Romanen gurasoek eta abarrek, abarketak egiten zituzten eskuz. Bertan erosten zituen Carmen Polok, Francoren emazteak, urte osorako abarketak.
2. Epelde anaiak.
3. Gereka anaiak, Joseba, Angel eta Mariano.
4. Pablo Alkorta.
5. Zaporra pilotaria.
6. Santos Azpeitia.
7. Jose M.<sup>º</sup> Etxeberria.
8. Patxi Etxabe "Patxi Seme", itsasoko bainu beroen jabea, gaur egun Cachi Bachi elkarte gastronomikoa dagoen lekuan.
9. Donato Intxauspe, beste zizelkari handi bat, Juan Carlos erremonteko munduko txapelkun izandako pilotariaren aita.

### **Zurezko TORNULARIAK**

1. Vicente Iturralde.
2. Eulogio Zulaika.

### **TAPIZATZAILEAK**

1. Areizaga,
2. Peral.
3. Eizagirre.
4. Lucio Azpiazu "Manu".
5. Juan eta bere seme Eugenio Ezenarro "Kotxo".
6. Trula.

## **INDUSTRIA METAL-MEKANIKOAK.**

1. **TAF (Talleres Auxiliares de Fundición) RECH**, galdaketarako moldekatze-makinak eta granailatzekoak. 110 langile ere izan zituen. Carlos Rech alemaniarrek sortu zuen, naziengandik ihesi Zarautzera iritsi zenean. Pertsona ona zen; horren adibide, tornu edo makina berri bat erosten zuenean, zaharra saldu beharrean, Frai Bitorri oparitzen zion eskola profesionalerako. Carlos jaunak, goiz afaldu ondoren, kafea hartu eta 3 zenbakiko Montecristo habano



- bat erretzen zuen egunero Royaltyn, egunkari aleman bat irakurtzen zuen bitartean, zeina, berandu bazen ere, egunero jasotzen baitzuen Casa Urkian. Egun batean, Jose Mari Menendez ospetsua hurbildu zitzaion, baliabide ekonomikoak agortu eta familiako ehungintza enpresa itxi ondoren, eta esan zion: “Carlos jauna, zu piztutako habano bat zara eta ni itzalitako zigarrokin bat. Lana emango al zenidake?” Carlos jaunak erantzun zion: “Zatoz bihar lantegira”. Eta orduko arduradunak, Erkiziak, biltegizain postu bat eman zion TAFen, erretiroa hartu zuen arte. Gaur egun, TAFen pabiloi horietan Forum Sport, Aner Informatika, Peugeot-Citroën eta IAT-ITV daude.
2. **Antuñano**, egurrarentzat makineria: zinta-zerrak, zorrozteko makinak, tupiak, garlopak, etab. Baita galdaketa bat eta DUX markako zotz biribilen fabrika bat ere. 100 langile ere izan zituen.
  3. **PIELHOFF**, izen bereko alemaniarrek sortua, portzelanazko tresna elektrikoak egiten zituen, eta PISA bere filialean, goi-tentsioko isolagailuak. 100 langile ere izan zituen.
  4. **Fundiciones Múgica**, estolda-erregistroen estalkien galdaketa, erresistentzia elektrikoaren labetxoak, etab. Maza familiarena, azken kudeatzailea Jose Luis Maza izan zen. 34 lanpostu ere izan zituen. Toribio Mazak galdategia zuen. Bere anaia Jose Mari dentista zen eta beste anaia Javier, Hotel Zarauzen jabea.
  5. **Construcciones Metalicas ARREGUI**, metalezko eraikuntzak, Alejandro Arregi “Aixiya” eta Miguel Larrañaga “Irusta” bazkideek sortua. Xafla hestekatuko ordeko piezak egiten zituzten motoen eta autoen karrozeriarako. Geroago, etxeko postontziak. 100 langile ere izan zituzten. Bi bazkideak enpresa osoagatik lizitatu ziren eta Irustak irabazi zuen. Alejandrok hondarribi zuri mahatsa landatu zuen gero, San Martin ermitaren inguruan, eta haren seme-alabek Arregi txakolina egiten dute gaur egun.
  6. **DERLAN eta BOAR motorrak**, Sorasu anaiena. 125 cc-ko motorrak eta motogurdiak egiten zituzten, garai hartako LUBE, MONTESA, SANGLAS eta antzeko marka onenekin lehiatzen zirenak. Gasolinazko bibragailu bat ere egiten zuten olibak eta beste fruitu batzuk biltzeko. Ander Iruretagoiena, Luis Iruretagoiena “Kiriki” nazioarteko futbolariaren semea, Mexikora joan zen bibragailuak saltzera, baina mexikar batekin ezkondu zen eta han bizi eta aberastu zen.
  7. **Máquinas BALENCIAGA**, Alberto Balenciagarena, Antonianotan Lanbide Eskolako irakaslea izan zenarena. Moldurak lixatzeko makinak egin zituzten, 1958tik 2000ra. 10 langile izatera iritsi ziren.
  8. **Talleres AGUIREZABALAGA**, egurrerako makineria. 27 langile izatera iritsi zen.
  9. **Máquinas LEGORBURU**, Miramar hoteleko seme ziren Jaime eta Ignacio Legorburu anaiena. Neurrira egindako makinak egiten zituzten. 8 enplegatua. Antonianotako Lanbide Eskolako irakasle ere izan ziren.
  10. **Construcciones ZURLAN**, Juan Antonio Egiguren eta bere semeena, gortina-

barnizagailuetarako banda zabaleko lixagailuak. 37 langile ere izan zituen. Gaur egun, altzairu herdoilgaitzeko tankeen txapak egiteko lixagailuak ekoizten dituzte. Osaba Juanek eta lehengusu Juantxok tornu-fabrika bat zuten Zestoan.

11. **Talleres ELOLA**, Fermin Elolak sortua. Zulagailu kulunkariak, zerra-arkuak eta bestelako zerrak egiten zituzten. 11 langile ere izan zituen. Ferminek autoak konpontzeko tailer bat zuen udan, baina neguan ez zuen lanik eta fabriketako makinak konpontzen zituen. Gero bere enpresa muntatu zuen, lehenengo Patxiku kalean eta gero Urtetako bidean.
12. **Engranajes JUARISTI**. Gervasio Juaristi Ostolaza 15 urterekin hasi zen ikasten, Fermin Elolarekin. Aldi berean, Ruperto anaia bikiak Zestoako Tornos Eguigurenen lan egiten zuen. 1958an, bi anaiak neurriera egindako engranajeak tailatzen hasi ziren soto batean, Santa Ana egoitzaren aurrean. Horrekin batera, azken teknologiako engranajeak zizelkatzeko makina bat erosi zuten, eta sotoan sartzerik izan ez zuten, Aritzbatalden pabiloi bat alokatu behar izan zuten. Pabiloi hori aurrez **bizikletentzako kate-fabrika** izan zen. Aingeru Berazadik eta Manolo Arbizuriagak ("Plazentxi", Koro Parrokialeko baju aparta izan zenak) sortu zuten, eta hastapenetan, Bigarren Mundu Gerraren garaian, arrakasta izan zuen. Engranajes Juaristi Aritzbataldetik Abendaño errekarara igaro zen eta duela 20 urte Abendañoako industrialdeko gaur egungo kokalekura. 50 lanpostu dituzte.
13. **Talleres ALBIZU**. Celestino Albizuk sortu zuen 1957. urtean gutxi gorabehera, lehenik Miserikordiaren aurrean eta gero M<sup>a</sup> Etxetxiki kalean. Material elektrikoa edo erdi-tentsioko eta goi-tentsioko tresneria eta elektrobalbulak fabrikatzen zituzten, Concordia enpresa alemaniarren lizentziarekin. 1970-1978 urteetan 70 langilerainoko plantilla izan zuen, baina 1979. urtean krisi batean sartu eta enpresaren etorkizuna birplanteatu behar izan zuen. 1980. urtearen amaieran 40 pertsonako lantalde batean geratu zen, **ELECTROTAZ, S.A.** izenarekin. Ondoren, lan-kontratuko izaera hartu zuen, langile guztiak bazkide zirelarik, eta **ELECTROTAZ S.A.L.** bihurtu zen. 1983. urteaz geroztik, haurrentzako parkeetako elementuak fabrikatzeko linea berri bat (aurrekoekin zerikusirik ez zuena) sortu zuten, JOLAS izeneko, egurra eta poliesterez eta beira-zuntzez moldekatutako piezak erabiliz. Hori dela eta, enpresa hiru fabrikazio-linea izatera pasa zen: ELECTROTAZ markako tresneria eta elektrobalbulak eta JOLAS markako haur-parkeak. 1990. urtearen inguruan, enpresak ELECTRO TALLERES ZARAUZ S.A.L. izena hartu zuen, eta, geroago, sozietate anonimo bihurtu zen, (S.A.), gaur egun sozietate-izen horrekin jarraituz. 2017an, akzio gehienak Txileko enpresa batek erosi zituen, eta orain arte izen eta sozietate-izen berari eutsi dio (**ELECTRO TALLERES ZARAUZ S.A.**). Une honetan, tresna eta elektrobalbulez gain, **JOLAS** aitzindaria da azken produktuatarako plastiko birziklatuak erabiltzen. 35 langile ditu.

14. **ELECTROMECHANIQUE ESPAÑOLA “ELESA”**, elektrobaldulen eta puntuzko soldadura-makinen Belgikako enpresa baten filiala. 85 lanpostu izatera iritsi zen. Celestino Albizu bertako bazkide eta kudeatzailea izan zen. 1986an itxi zen.
15. **ELESA transformadores**, Electromecanique enpresatik irten zirenetako batzuk Abendañon jarraitzen dute soldatzeko makinetarako transformadoreak fabrikatzen. 20 langile inguru dira.
16. **Manufacturas Aranzabal, Bombas ITUR, gaur egun KSB**, aireko eta urpeko ponpa hidraulikoak. Aranzabalek sortua, Antonio, Ignacio, Adolfo semeekin eta M.<sup>a</sup> Pilar alabaren senarrarekin. 200 langile ere izan zituen. Alemaniako KSB enpresak erosi zuen (tamainari dagokionez, munduko rankingean bigarrena denak). Zarautzen jarraitzen du.
17. **PEDRO EIZAGUIRRE** (Castronekua) brontzeko txorrota eta baldulen galdaketa bat izan zuen Purpurinetan. 10 lanpostu ere izan zituen.
18. **Talleres ERKO**, Gregorio Elorza “Gringo”-rena. Egurrerako kola beroko irabiagailuak egiten zituen Urtetarako bidean. 10 lanpostu ere izan zituen.
19. **Industrias RA-ZA**. Sortzaileak Ricardo Lonbide aita, Ignacio Mendizabal “Mini” ezagunaren aita, eta “Bizkonde” izan ziren. Hauspodun kortxo-kentzekoak eta makineria-konponketak egiten zituzten. 15 langile gehienez.
20. **FRESMAK**, baraila mekanikoak, gehienez 16 langile.
21. **SOLDIMES**, neurrira egindako soldadura-makinak. Felix Kortajarenak eta beste batzuk sortua Andoainen. Abendañon kokatu zen ondoren, eta 20 langile ere izan zituen. 2018an itxi zuten eta **PUKASek** bere pabiloia erosi zuen surf taulak egiteko.

## MUSIKA INSTRUMENTUAK ETA JOSTAILUAK.

**SAN PELAIO JAIK**, ekainaren 26an eta 27an. XIX. mendean zezenketak ere egiten ziren. Ondoren, parrokiatik San Pelaioarainoko prozesioa, Frantziako Tourraren aurreko txirringulak profesionalen lasterketak (Barrutia, Talamillo, Fausto Iza eta abarrekin) arratsaldeko erromeria San Pelaion, eta abar. Gaur egun, bezperan, Imanol Urbietak maisuak konposatutako danborrada egiten da.

**SANTA MARINAKO JAIK**, maiatzaren 20an. Harro egoteko modukoa da Santa Marinako eta inguruko kaleetako bizilagunentzat, Santa Marinako urteroko ospakizunengatik. Santuaren prozesioa, haurrentzako krosak, anaitasun bazkariak, danborrada, berbena, etab.

**AMA BIRJINAREN JAIK** abuztuaren 15ean, estropadekin eta su artifizialekin.

## **DANTZARIAK ETA POXPOLINAK.**

**Batzokiak**, **1924**an, bere dantzari taldea osatu zuen. Esteban Berazadi ere partaide izan zen. Gerra Zibilean, erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzako Eresoinka talde folklorikoko kide izan zen Esteban. Gerra ostean, Zarautzen izan ziren talde ezberdinetako irakaslea izan zen.

**Circulo Carlista**: 1934an, dantzari talde bat egon zen Circulo Carlistan, frantziskotarren aurrean kokatua zegoena, orain hizkuntza eskola bat dagoen lekuan. Elkarte honek antzoki-areto zabala zuen.

**Juventud Antoniana** taldeak bere dantzari taldea izan zuen **1945**ean.

**La Salle:** 1945ean izan zuen bere dantzari taldea. 1957an Ricardo anaiak talde berri bat sortu zuen. Bertan izan ginen, 12-14 urterekin, Mariano Lertxundi, Rafael Eizagirre "Txintxarri" (gaur egun Getariako parrokoa dena), Jose Ignacio Larrañaga "Xanglin", Iñaki Albizu, Jose Mari Zabalegi, Angel Mari Lertxundi, Hilario Urkia, Mikel Olaeta, Angel Lazkano "Peluso", Juantxo Silvan, ni neu, eta abar. Horietaiko asko Ondartza taldera pasatu ziren gero. Bere txistulariak Ander Alberdi, Joseba eta Anjel Gereka anaiak eta Laskibar danborraria ziren, Juanito Laskibarren anaia. Azken hau, era berean, Koro Parrokialeko organista eta zuzendaria eta NAYA orkestrako teklatu jotzailea izan zen.

**Irritzi eta Ondartza:** 1953an sortu ziren. Mutiletakoz batzuk La Salleko Ricardo anaiaren taldekoak ziren: Jose Ignacio Larrañaga "Xanglin", Mariano Lertxundi, Felix Kortajarena, etab. Beste batzuk fraideen taldekoak, Benito anaiak, Juan Ignacio Albizu, etab. Neskek, "poxpolinek", talde ederra osatu zuten beren errepertorioekin. Pilartxo Gesalaga eta bere lehengusina Mari Nieves, Ana Mari Maza, Itziar Alberdi eta abar aipa ditzakegu.

**Hodeiertz** taldea 1970ean sortu zen.

**Itsasertz** taldea 1978an sortu zen, 1986ra arte.

**Mollarri** taldea 1980an sortu zen.

**Iratzarri** taldea 1981ean sortu zen batzokian. 2005ean 25. urteurrena ospatu zuen.

**Pirmin Treku.** Pirmin Aldabaldetrekuz zarauztarra, Londresko Royal Opera Housen lehen dantzari izatera iritsi zen. Lesioengatik erretiratu zenean, dantza klasikoko akademia bat izan zuen Porton urte askoan.

Informazio gehiago aurkitu daiteke Marina Aranzabal eta Agurtzane Azpeitiaren "Zarauzko Euskal Jaiak" eta Xabier Lonbide eta Xabier Etxaberen "Zarauzko folklorea" liburuetan.

## **PINTURA.**

**Sabino Izetak** (1876-1918) Erroman ikasi zuen eta erretratuak eta paisaiak margotzen zituen. 36 urterekin hil zen. Nire aitona Pako Iraolari, bere arrebarekin ezkondu eta alargundu zenari, koadro bat oparitu zion, baina margolaria gazte hil zenez, errematatu gabe geratu zen.

**Flores Kaperotxipi** (1901-1997) margolari, idazle eta kazetari bikaina. Argentinan erbesteratuta bizi izan zen bere bizitzaren zati handi batean, eta Zarautzen hil zen Franco hil ondoren. Bera izan zen Euskal Jairen sustatzailea.

**Julian Ugarte** (1929-2015), Antonianoko Arte eta Lanbide Eskolan hasi zen Angel Cavanasekin. Gero Madrilera joan zen eta ondoren Parisera 7 urtez. Zarautzen euskal pintoreen antologia eta aire zabaleko pintura lehiaketa ospetsuak antolatu zituen.

**Ignacio Txapartegi**, Zarauzko alkatea izateaz gain, marrazkilari eta margolari afizionatua izan zen. Ezagunak dira Zarauzko antzinako eraikinetako lumazko marrazkiak.

**Angel Uranga** 1961ean jaio zen eta Arte Ederretan graduatuta dago. Izen handiko margolaria da, eta sari nabarmenak lortu ditu Espainian, Alemanian eta Suitzan. Bere estudioa Kale Nagusian dago.

**Jose Antonio Legorburu**, 1952an jaioa, Aparejadore eta diseinu ikasketak egin zituen. Bartzelonan, Tenerifen, Palentzian, Sevillan, Marbellan, San Telmon, Hondarribian eta abarretan egin ditu erakusketak. Bere arreba Maria Josek, artista hau ere, Zazpi galeria zuzentzen du.

**Daniel Txopitea**, Zarauzko margolari eta eskultorea. Autodidakta figuratiboa eta berritzailea izan zen. Gazte hil zen, 46 urte zituela. Bere alaba Ainitzek bere urrats artistikoak jarraitzen ditu.

**“Luziano”** Lucio Ruiz Poveda Elgoibarren jaio zen 1931n. Autodidakta, Pigalleko erretratuak margotuz irabazi zuen ogia, eta ondoren AEBetan, Marokon, Turkian, Iraken, Indian eta Madrilen ibili zen, Zarautzen egonkoritu zen arte.

**Juan Luis Mendizabal “Mendi”** (1928-2019) Lekeition jaioa, urtebeterekin Zarautzera etorri zen bizitzera. Martiarenarekin ikasi zuen margotzen, estilo inpresionistan. Bizitzaren behatzaile, itsasoa eta mendia izan zituen gai nagusi. Urtebetez, Zarauzko itsasoa margotu zuen, postal baten tamainan, urteko 365 egunetan, malekoiairen puntu beretik.

**Imanol Urdanpilleta**, paisajista autodidakta ona.

**Hilario Urkia**, diseinatzaile grafikoa eta paisaien margolaria.

**Jose Mari Zabalegi**, marrazkilari eta margolari ona bere erretiroan.

## **ESKULTURA.**

**Palmiro Haro**. Bere aita zizelkaria izan zen Muebles Odriozolan eta bera 13 urterekin hasi zen zizelkatzen. Parisera joan zen ikastera, gero Suediara, eta Parisera itzuli zen Parisko Operako Eskultura Tailerreko buru gisa. Bueltatu zenean, gure kaleetan ikusten ditugun Basarri, Escudero edo Epelde aitaren eskulturak egin zituen.

**Juanjo Gurrea** eskultorea da aisialdian. “Lema” izeneko eskulturaren egilea da, hondartzaren hasieran (Narros jauregiaren ondoan) dagoen itsasontzi baten lemaren irudikapenarena. Azpimarratzekoa eta ezaguna da bere lan eta sari sorta zabala.

**Juan Antonio Mendizabal** eskultore autodidakta, bere lanak burdinazkoak dira. Bere hobya, halterofilia.

**Jose Luis Lasa**, zurezko eskultorea. Bere bilduma eliptikoak harrigarriak dira.

### **Jorge Oteiza**

Jorge Oteiza Zarautzen bizi izan zen bere bizitzako azken urteetan. 1908ko urriaren 21ean jaio zen Orion, baina gaztetatik Donostiara joan zen bizitzera. Nazioartean ospe handiena duen euskal artistetako bat da. Hego Amerikan, Madrilan eta Alzuzan (Nafarroa) bizi ondoren, Zarautzen kokatu zen behin betiko 80ko hamarkadaren amaieran.

2003ko apirilaren 9an hil zen, Donostian.

## **ZINEA.**

### **Eloy de la Iglesia**

Filmografia zabala du. 10 urteko haurrak ginenean eta egun osoa kalean eta hondartzan pasatzen genuenean, aktoreetara jolasten genuen, berak filmazio bat simulatzen zuen bitartean.

**Anjel Lertxundik** zinemara eraman zituen bere bi lan, “Kareletik” eta “Hamaseigarrenean aidanez”.

## **Arantxa Lazkano**

Berak zuzendutako “Urte ilunak” filmak Locarnoko (Suitza) zinemaldiko lehen saria irabazi zuen eta zuzendari berrien Goya sarietarako izendatu zuten.

## **Telmo Esnal**

Sei pelikula eta film laburren zuzendari eta gidoilari izan da. Euskal Herriko Aurreku Txapelketa irabazi zuen. Bere “Dantza” filma Vista Alegreko Torreoian grabatuta dago. Zuzendari berrien Goya sarietarako izendatu zuten, “Aupa Etxebeste” filmarekin.

**Zine-kluba**, asteroko programazioarekin urte osoan zehar.

**ARGAZKILARITZA**ri buruzko aipamenen bat egin dugu aurrez PHOTOMUSEUMen inguruan hitz egiterakoan.

## **6.10.-ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA.**

**ZarautzOn**, Zientzian eta Teknologian herritarren garapena sustatu asmo duen elkarte da.

Udalak herri-interesekotzat jotzen du.

Talde sortzailea honako hauek osatzen zuten: Natalia Vhal, Ane Bustinduy, Ana Belen Juaristi, Ana Aranda, Jose Mari Larramendi, Juan Carlos Berraondo, Pedro Lizarriturri, Anjel Irastorza, Fernando Lopetegi, Txomin Lasa, Gabi Hernandez, Asier Mendoza eta kontakizun honen egileak.

Bederatzi urteko ibilbidean 120 jarduera eskaini ditu, besteak beste, hitzaldiak, bisita gidatuak eta tailer monografikoak. Guztira 8.500 pertsona baino gehiago bertaratu dira, eta 4.000 baino gehiago konektatu dira streaming bidez.

ZarautzOnek bere espezialitatean punta-puntako hizlariak hurbildu ditu Zarautzera, Cristina Narbona Ingurumen ministroa barne, 2015eko Paris COP 21 Akordioaz hitz egiteko.

**“Zarautzen Zientziaz Blai”** bere urteroko zikloan, Zientzia edo Teknologian gailentzen diren gazteak aurkezteko tokiko plataforma gisa pentsatutako

ekimenean, 22 gazte zarautzar igo dira dagoeneko oholtzara.

**ARKAMURKA NATUR TALDEA**, naturazaleen eta ekologisten elkarte, modalitate zientifiko guztietan ingurumena aztertzeko eta kontserbatzeko.

### **6.11.- KIROLA ZARAUTZEN.**

Zarauzko lautada nagusia inguratzen duen itsaso- eta mendi-eraztuna, urdina eta berdea, kirol-jarduera desberdinak egiteko oso leku egokia izan da, lehorrean, hondartzan eta itsasoan.

Zarauztarrek orografia berezi hau kirolerako aprobetxatzen jakin dute, eta gaur egun hogeita hamar kirol mota inguru praktikatzen dira, 5.000 kirolari federatu baino gehiagorekin, eskola-kirolaz gain.

### **MOLLARRI SPORTS CLUB.**

**1922**an jaio zen, hiru sailekin: futbola, mendizaletasuna eta atletismoa.

Futbol taldean jokatu zuten, besteak beste, "Txorten" Etxabe atezainak (Jesus Mari, Salvador eta Joxe Mari futbolarien aitak), Hilario Muruak, Manolo Larrañagak eta nire aita Juanito Iraolak.

Mollarriko jubeniletan Luis Iruretagoiena "Kiriki"-k jokatu zuen eta Realak fitxatu zuen 18 urterekin. 8 denboraldi eman zituen Realean, 118 partida jokatzuz eta 50 gol sartuz. Espainiarekin 3 nazioarteko partida jokatu zituen 1928ko Amsterdamgo Joko Olinpikoetan.

Aritzbatalden jokatzuz, udalak erositako zelaian.

Mollarri **1929**an desagertu zen, zuzendaritzako kideren batek ezkutuan partiduren bat erosteak ekarri zuen iskanbila eta ondorengo zigorraren ondorioz.



## ZARAUZKO KIROL ELKARTEA, ZKE. 75 URTE BAINO GEHIAGO.

Gerra Zibilaren ondoren, aurreko futbol-taldeak (Mollarri Sports Club eta geroago sortutako Beti Alegre F.C.) desagertu ostean, ekimen handiko gazte talde batek kirol elkarte berri bat sortzea erabaki zuen, kultura eta kirol arloan zegoen hutsunea estali nahian. Ahalik eta zarauztar gehien bilduko litzuzkeen elkarte bat sortzea zen helburua, ideologia edo egoera sozialagatik inor baztertu gabe.

Bitarteko oso gutxi eta diru-kutxak ia beti hutsik zituzten batzordekideek maitasunez egindako lan ausart horrek onarpen handia izan zuen gizartean eta kirolean, eta babes horrek gaur egun ere hazten jarraitzen du.

Kluba **1944ko** otsailaren 8an sortu zen, **Zarauzko Kirol Elkarte**a izenarekin.

Sortu zenetik kirol askotariko elkarte izan da, hasiera-hasieratik honako kirol modalitate hauek biltzen baitzituen:

- **Futbola**
- **Plaieroak. Emakumezkoen hondartzako futbola** 1980an hasi zen.
- **Pilota.**
- **Atletismoa.** ZKEk 1945etik urtero antolatzen zuen Zarauzko krosa. 1984an, 40. urteurrenean, izugarrizko arrakasta izan zuen lehen kros mistoa antolatu zuen, seguruenik Estatuko lehen kros mistoa.

Hurrengo urtean, **1945**ean, honakoak batu ziren:

- **Xakea.** 1984an, 24 orduko etenik gabeko xakea antolatu zuen, txandaka aritu ziren 100 jokalarirekin.
- **Arrauna,** 1952ra arte klubean egon zena.
- **Mendizaletasuna,** 1958ra arte klubean egon zena.
- **Boxeo**a, 1952ra arte klubean egon zena. Cachi-Bachi izena hartu zuen eta arrakasta nabarmenak izan zituen: Juan Cruz Zubiaurre pisu astunetan Espainiako txapeldun izan zen, eta Carlos Martínez Arostegi pisu erdiastunetan. Gipuzkoako txapelketetan nabarmendu ziren beste batzuk ere: Ruperto eta Gervasio Juaristi, Alcedo, Kayo Larrañaga, Amenabar, etab.

**1965**ean batu zirenak hauek izan ziren:

- **Eskubaloia.** 1980an dagoeneko baziren emakumezkoen taldeak. Bere

lehen 40 urteei buruzko informazioa, urteurren horren aitzakian plazaratutako liburu interesgarrian jasota dago.

- **Saskibaloia.** Adiskidetasunezko pasadizo maitagarri betea.

**1968an Halterofilia** batu zen. Enrike Kortajarena eta Juan Antonio Mendizabal "Mendi" izan ziren kirol honen arima nagusiak 40 urtez. Gaur-gaurkoz indartsu jarraitzen du.

**1978an** errugbia gehitu zen, bere garapen ikusgarriarekin. Aste Santutan urtero karpa bat jartzen dute Munoan, atal hau finantzatzen laguntzen duena.

**1981ean, 2006ra arte: igeriketa.**

**1982an, 1985era arte: surfa.**

**1988an, 2001era arte: tenisa**

**2004an: aretoko futbola.**

**2008an: squash.**

**2012an: Herri Kirolak.** Harri-jasotze, aizkora, txinga, ingude, gizon proba, pentatloi, trontza, lokotxak eta abarren eskola da, Jose Ramon Iruretagoiena, Izeta II.aren ekimen eta zuzendaritzapean. Azken hau harri-jasotzaile mitikoa izandakoa da, hainbat errekor dituena.

Bere kirolarien artean, Izeta saga (Agustin, Jexux Mari, Hodei, Jakes, Unax, Gotzon), Jagoba Otaegi, Iñigo Eiza, Xabat Olaizola, Paulo Azpiazu, Iraitz Arruti, eta Mikel Lopetegi "Urra" ditugu, egungo kintopekoen (20 urtetik beherakoen) errekorra daukana, eta baita Andoni Iruretagoiena Izeta VI.a ere, pentatloiko banakako eta binakako txapelduna eta ETBko "EL conquistador del fin del mundo" biziraupen lehiaketako irabazlea.

Beste harri-jasotzaile zarauztar handi bat Jokin Eizmendi da, Joseba Ostolazaren Orioko klubean entrenatzen aritzen dena.

Azken urteotan gora egin du emakumeen parte-hartzeak herri kiroletan. ZKEn Lierni Osa, Lur Errekondo, Ainitze Zumeta, Rakel Arranz eta Mayi Gesalaga ditugu.

**2017an: Irristaketa.** Atleta eta krosetako txapeldun izan den Karmele Ezenarro, bi gurpil-lerroetara pasa da, eta oso emaitza onak lortu ditu 60 urtetik gorakoetan.

**Eskola-kirola.** Hasieratik, ZKEk kudeatzen du eskola-kirolaren sarearen funtzionamendua.

**Kultura Saila.** Halaber, hainbat hamarkadatan kultur sail bat egon zen ZKEren barruan, hitzaldi, musika eta filmen aste intelektuala antolatzen zuena (16 mm-tan).

### **ZKE-REN IBILBIDE SOZIALA HERRIAN.**

Gaur egun, **Zarauz Kirol Elkarte (ZKE)** du izen ofiziala, eta 75 urteko historia bete berri du 2019an.

**ZKEk** 1.800 lizentzia federatu inguru **kudeatzen** ditu bere modalitate ezberdinen artean, gehi Eskola Kiroleko 3.000 inguru eta Hondartzako Futbol Txapelketako fitxak. Lan eskerga da, diskrezioz, apaltasunez eta baliabide gutxirekin burutua.

ZKEren bokazioa, 1944tik gaur egunera arte, zarauztarren kirol praktika osasungarria sustatzea da, azken helburu gisa elite edo profesional mailako klub bat izateko asmorik gabe.

Aitzindaria izan da beti emakumeak ia modalitate guztietan sartzen.

ZKEk aipamen berezia merezi du Zarauzko kontakizunean eta bere historian. ZKEren historiaren zati handi batean, gure aitona-amonak eta hauen ondorengo belaunaldiak izan dira protagonistak.

ZKE milaka zarauztarren borondatezko auzolanaren adibide bat da, doakoa eta eskuzabala, 75 urte baino gehiagoko historian zehar gure herrian kirola sustatzea eta bertako herritarrei balio positiboak ematea ahalbidetu duena. Eskerrik beroenak hainbeste presidente, batzordekide, entrenatzaile, jokalar, laguntzaile, zale, senide eta abarri.

Interesa duten adituentzat, dokumentu historiko asko daude gordeta ZKEren artxiboetan, Esteban Collantesen hemerrotean eta Casa Urkian, milaka argazkirekin. Argazki horietan gertaera eta pasadizo interesgarriak gogoratzen dira, kirol-bildumetako protagonistak argazki-oinetan

identifikatuta ageri dira, eta abar. Material hori interesgarria izan daiteke kirol-atal bakoitzaren historia zehatzago ezagutu nahi dutenentzat.

75 urte baino gehiagotan, ZKEk krisi ekonomiko askori egin behar izan die aurre, eta baita boluntarioen faltari ere. Bi aldiz porrot egindakoa ere bada. Baina beti agertu dira lekukoa hartu eta ZKEren biziraupena bermatu duten zarauztarrak.

Hainbeste boluntario aipatzea erronka zaila den arren, izen batzuk behintzat aipa ditzagun, familiakoek, lagunek eta ondorengoek gogoratuko dituztenak.

### **ZKE-KO PRESIDENTEAK**

Lehen presidentea Alfonso Basurko izan zen. Bere lehen zuzendaritza batzordean Emilio Olazabal, Paul Aranburu, Aingeru Berazadi, Lazaro Beristain, Cornelio Bastarrika, Modesto Juaristi, Mariano Lazkano, Domingo Iribar, Eduardo Garcia eta erretorea izan zituen lagun.

Presidenteak, orden kronologikoan (bateren bat agintaldi batean baino gehiagotan egon zen arren), honako hauek izan dira:

Alfonso Basurko (4 urte)  
Joxe Axpe Argote (urte bat)  
Aingeru Berazadi (2 urte)  
Joxe Aizpurua (urte bat)  
Angel Azkue (urte bat)  
Ramiro Goñi, semea (urte bat)  
Martin Gorrotxategi (urte bat)  
Jose Antonio Pertusa (urte bat)  
Jon Arruti (urte bat)  
Faustino Bodas (6 urte)  
Maximiliano Llamas (urte bat)  
Jose Luis Samaniego (urte bat)  
Adolfo Aranoa (2 urte)  
Pako Urkia (18 urte)  
Luis Ulibarri (2 urte)  
Jose Manuel Gesalaga (urte bat)  
Gorka Landaburu (2 urte)  
Rafa Olaizola (4 urte)  
Juan Mari Arrizabalaga "Belarrio" (14 urte)  
Esteban Collantes (2022an 14 urte daramatza)

Emilio Olazabal, inoiz presidente izan ez zen arren, sortzaile eta zuzendaritzako partaide izan zen urte askoan, batzorde askotan. Eskerrak eman behar dizkiogu kirolaren eta balio olinpikoen alde buru-belarri lan egiteagatik. Halterofilia eta nazioarteko maratokia bezalako tokiko ekitaldi garrantzitsu gehien bultzatzailea izan zen.

Duela urte batzuetatik hona, klubaren antolaketa-egiturak, klubeko presidente nagusiaz gain, kirol-modalitate edo -atal bakoitzeko presidente eta batzar partikular desberdinak ditu.

Horien artean, Juan Irigarai nekazina, Gonzalo Urkia, Joxean Urbieta eta bere kuadrilla hondartzako futboleant, eta abar luze bat.

Futboleant: Inazio Mendizabal "Mini", Jose Luis Martinez eta Fernando Caballero, Jose Luis Marin eta beste hainbat.

Eskubaloiant: Daniel Larrañaga, German Eizagirre aita, Josu Balenciaga, Josetxo Landa "Kotxo", Gorka Landaburu, ...

Pilotan, Jose Inazio Garate eta aipatzea merezi duten beste hainbat.

## **ZKE-REN MUGARRIAK:**

- **Klubaren egoitza**, Alejandro Aginagaren Txoko tabernan egon zen lehenik, Musika Plazan. Ondoren, Torre Luzean egon zen urte dezentetan eta 1984-6-8tik aurrera jabetzan eskuratutako oraingo egoitzan kokatu zen, Kale Nagusiko 7. zenbakian. Erosketa bazkideen 5.000, 10.000 eta 25.000 pezetetako ekarpenekin finantzatu zen (itzuli beharrik gabeko bonuen formatupean), eta horretaz gain zozketak, diru-bilketak eta antzekoak ere egin ziren.
- **40. urteurrenean, 1984an**, klubaren historia gogorarazten zuen 500 argazkiz osatutako erakusketa bat antolatu zen.
- Lehen futbol-zelaiak Aritzbatalden izan zen 40 urtez, 1984-8-5ean **Astiko zelaiak** inauguratu ziren arte. Real-Sanse eta Athletic-Bilbao Athletic taldeek elkarren aurka jokatu zuten.
- **Kiroldegiaren** inaugurazioa 1981ean izan zen.
- **Guinness errekorra** 1994an, ZKEren 50. urteurrena ospatzeko, 50 futbol partida jokatu ziren hondartzan aldi berean. Horretarako, arauzko neurrien 50 futbol-zelai markatu ziren, gutxieneko dimentsioak betez, eta paraleloan jarri ziren bi lerrotan. Gizonezkoen

eta emakumezkoen 100 talde lehian izateko, Donostiako eta Zumaiako hondartzako txapelketetako taldeek parte hartu zuten, Zarautzekoetz gain.

- Hondartzako Txapelketa Frantziako telebistak grabatu zuen, kirola sustatzeko adibide mirezgarri bat in situ jasotzeko. Dokumentala 50 milioi frantsesek ikusi zuten.
- **Nazioarteko 4 maratoiak** 1966-67-68 eta 69an. Lehenengoa Abebe Bikilak irabazi zuen, bigarrena eta hirugarrena Mamo Woldek eta laugarrena Gebruk (etiopiarrak guztiak). Carlos Perez galiziarra bigarren sailkatu zen birritan. Londresen ospitaleratuta zegoela, Abebe Bikila ZKEko batzordekide batzuek bisitatu zuten. Pozez gainezka egon omen zen. Handik gutxira hil zen.
- Espainiako **50 km martxako** txapelketa.
- Espainiako **kros** txapelketa goiko kanpinean.
- Nazioarteko kros lasterketa, olinpiar txapelaldunen parte-hartzearekin (Colette Besson frantsesa, adibidez, 400 metrotan urrezko eta zilarrezko hainbat domina dituen).
- **Sambo borrokako** Munduko Txapelketa.
- **Espainiako Itzulian** erlojuaren aurkako etapa baten helmuga.

#### **Jasotako sariak:**

- 1964. Gipuzkoako elkarte onena.
- 1969. Kirol Merezimenduaren Domina.
- 1990. Euskadiko elkarte onena, kirolaren alde egindako lanagatik.
- Probintziako elkarterik onena xakea, pilota, futbola, eskubaloia eta igeriketa ataletan.

#### **Herriko kirol-figurak:**

##### **Plaieroak eta futbola:**

1944an sortu zenetik, ZKEk urtero antolatu du bere hondartzako txapelketa. Milaka eta milaka haur, gazte eta heldu kirola egiten. Gizonezkoena eta baita emakumezkoena ere, 1980tik.

2019ra arte, **futbolari oso onak** atera dira Zarautzik.

Bateren bat ahazteko arriskuarekin, hona hemen zenbait datu:

##### **Gizonezkoak:**

- Absolutu mailan nazioarteko partidak jokatu dituzten 4 jokalaria: Luis Iruretagoiena "Kiriki" (Amsterdamen olinpikoa), Jose Angel Iribar, Iñaki

Txurruka, eta Estanis Argote.

- 18 jokalarari Lehen Mailan: aurrez aipatutako laurak, gehi Benito eta Ignacio Beitia anaiak, Jorge Izeta, Larrabeiti, Salvador eta Jose Mari Etxabe anaiak, Jesus Mari Landa "Berasa", Iñaki Irure, Anjel Mari Zubizarreta, Benigno Gesalaga, Pardina, Manu Urbieto, Dani Estrada eta gaur egun Yuri Berchiche Athleticen.

- 20 jokalarari baino gehiago Bigarren A Mailan.

- Bigarren B Mailako edo Hirugarren Mailako 30 jokalarari baino gehiago.

### **Emakumezkoak:**

Maria Jauregi, Andere Alkorta, Nerea Alberdi, Marina Agoues, Itziar Gurrutxaga, Laura Gomez, Maite Lizaso, Oihana Galdona, Ainhoa Mateos, Ane Orbegozo, Ainara Manterola, etab. Irene Paredes, nazioarteko jokalaria eta gaur egun Bartzelona F.C. taldean dagoena, ZKEren emakumezkoen taldean ibili zen Realera pasa aurretik.

### **Pilota:**

- 1945ean eskuz binakako txapeldun profesional izan ziren Txikito de Iraeta eta Mariano Lazkano zarauztarrak Eibarko Astelena pilotalekuan.
- Sebastian Aristi, Munduko eta Espainiako txapelduna pala motzean.
- Javier Aizpitarte, Munduko eta Espainiako txapelduna palan.
- Alejandro Sanchez, 23 urtez azpiko Munduko txapelduna.
- Santos Salsamendi, pala jokalaria, ibilbide bikainarekin.
- Ospetsuak izan ziren, baita ere, Zinema pilotalekuko pala erdiko Lancaster Txapelketak eta gaur egun indarrean dagoen Frontoi Txikiko esku-huskako txapelketak.
- ZKEko diziplinatik kanpo, Juan Carlos Intxauspe aipatu beharko genuke, erremonte profesionaleko banakako txapeldun absolutua. Bere osaba ZKEko futboleko atezaina izan zen denboraldi askotan.

### **Atletismoa:**

- Manuel Olazabal "Torito", beteranoen mailan Espainiako txapelduna krozean eta Cross Beachen. Fondista zarauztarren maisua.
- Jose Miguel Maiz, Lasarteko Krosaren irabazlea.
- Patxi Larrañaga, Bartzelonako Jean Bouin lasterketako irabazlea.
- Jon Larrañaga, Gipuzkoako txapelduna haurren krozean.
- Karmele Ezenarro, emakumezko atleta, Kantauriko Jokoetan urrezko 2 domina eskuratutakoa eta Espainiako txapeldunordea. Irristaketara pasatu da 60 urtetik gorakoetan, esan bezala.
- Margarita Illaramendi, Gipuzkoako txapeldunordea krozean.

- Paben Solaberrieta, Espainiako txapelduna izan zen xabalina jaurtiketan hirurogeiko hamarkadan.
- Espainiako lehen kros mistoa Zarauzkoa da. Txumai Fernandez Leundak 35 urte daramatza antolatzen.
- Iratxe Aranburu izan da beste fondista nabarmen bat.

### **Eskubaloia:**

- Karmele Makazaga, 130 aldiz nazioartekoa eta 1992ko olinpiadako kapitaina.
- Oso interesgarria da eskubaloi sailaren 40. urteurrena dela eta 2005ean argitaratutako liburua kontsultatzea. Aitzindarien artean, Pertusa, Juan Mari Enbil, Imanol Urdanpilleta, Jose Inazio Agirre "Xagua", Juanjo Rekondo, Paben Solaberrieta, Danel Iruretagoiena eta abar egon ziren.

### **Igeriketa:**

Zarautzek beti izan ditu igerilari onak.

Gerra Zibilaren aurretik, Zarautzen zeharkaldi handiak egin ziren: Zarautz-Getaria, Zarautz-Mollarri eta Zarautz-Donostia. Izen asko nabarmendu ziren: Manuel Urzelai, Pedro Egibar, Pedro Zabalegi, Luis Amilibia, Aingeru Berazadi, Jose Mari Fernandez, Pedro Jose Aristi, Segundo Eizmendi (Basarriren anaia), Antonio Alberdi, Felix Alberdi jostuna eta Euskal Jaietako Goiztiarrak sortu zuena, Murua, Lertxundi, etab.

1981ean igeriketa atal bat sortu zen ZKEren barruan. 2006an Zarautz Balea Igeriketa izenarekin independizatu zen.

**Eskuragarri dagoen dokumentazioa:** Esteban Collantesek digitalizatuta gordetzen ditu prentsan agertutako albiste guztiak, ZKEko kirol-atal guztiei buruzkoak, hasieratik gaur egunera arte. Zarauzko kirolari buruzko dokumentazio oso zehatza.

### **Egilearen eta Jose Angel Iribarren pasadizo bat.**

Kontakizun honen egilea Industria Ingeniaritza ikasten zebilen Madrilen. Jose Angel Iribar Athleticetako atezain gaztea zen eta astelehenetan, atsedean egunean, gurasoen etxera etortzen zen, Musika Plazako Makatza etxera, Royalty tabernaren parean. Madrilgo talderen baten aurka jokatu behar zuenean, aitak 300 pezeta ematen zizkion partidatik irteetan Madrilen niri eman ziezakidan. Ni zain egoten nintzen, batzuetan Itsas Ministerioan



soldadutza egiten ari zen bere kuadrillako Roke Eizagirre lagunarekin batera.


Jose Angelek klubeko autobusera igotzen gintuen eta Atotxako biribilgunean zegoen Hotel Nacionalaren inguruetan txikito batzuk hartzen genituen Arieta, Orue, Etura, Agirre eta abarrekin, afaltzeko ordua baino lehen. Jose Angelek ezkondu eta Bilbon etxebizitza erosi zuenean, posta modu hori eta nire 300 pezeta estrak amaitu ziren, ikasle bizitzan hainbeste laguntzen zidatenak. Gaur egungo 1,80€ izango lirateke, pezetaren eta euroaren arteko eros ahalmenaren aldearen erakusle.

## **BESTE KIROLAK ZARAUTZEN.**

### **GOLFA ETA TENISA.**

1916an sortu zen, Narros etxeko Villahermosako dukeak eta udalak utzitako lurretan. Inaugurazioan Alfontso XIII.a erregea, Victoria Eugenia erregina eta Maria Cristina erregina izan ziren. Tenisa praktikatzen zen, baita usakume-tiroa ere, Espainiako txapeldunarekin, Tebako kondearekin.

Evaristo Uranga mediku zarautzarrak elkarte ireki bihurtzea lortu zuen, eta 1970 baino lehentxeago caddie izandakoek, batzuk zarautzarrak, klubeko eskubide osoko bazkide bihurtzeko aukera izan zuten.



(Golf Klubaren argazkia XX. mendearen hasieran).

## **ARRAUNA.**

Gerra baino lehen, XX. mendearen hasieratik, traineru zarauztar batek parte hartzen zuen Kontxako estropadetan.

Ondoren, arrauna ZKEren parte izan zen, baina 1952an klubetik atera eta hamarkada batzuetan bere kabuz funtzionatu zuen. Tarte horretan, Alvaro Azpeitia patrioiaren aginduetara (La Gula del Norteren asmatzailea berau), tripulazio bat osatu zuten Jesus Mari Dorronsorok, Salegik eta abarrek, Kontxan behin baino gehiagotan parte hartu zuena, baina gerora gainbehera eta aldi baterako hutsunea iritsi zen.

1984an sortu zen egungo Zarautz Arraun Elkartea. Sortzaileen artean Santi Sanchez txirrindulari ohi eta kirolzalea egon zen, “txurrero” ezizenez ezaguna zena, bere aita Luisen lanbideagatik.

## **ANTONIANO Kirol Elkartea.**

Antoniano kirol elkartea 1986an sortu zen, kirola hezkuntzarako baliabidetzat hartuz.

11 kiroletan taldeak izatera iritsi da: atletismoa, futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia, karatea, judoa, pilota, frontenisa, xakea eta capoeira.

Gaur egun atletismoan bakarrik dihardu.

## **LIZARDI INSTITUTUA.**

Nire seme Sergiok gaztetan jokatu zuen, Jimmy Algabak entrenatuta.

## **IGERIKETA.**

2006an igeriketa klubetik atera ondoren, Zarautz Balea Igeriketa elkartea sortu zen, arrakasta deigarriekin.

Borja Iradier Agirrezabalak (Zarautz, 1980-3-23) marka nazional batzuk hautsi ondoren, 2008ko Joko Olinpikoetan parte hartu zuen. Estatuko lehen igerilaria izan zen 100 metrotan minututik jaisten.

Pablo eta Mikel Azkue anaiak ere txapeldun izandakoak dira, adin desberdinetan.

### **SURFA ETA PADDLE SURFA.**

Lehenengo surf kluba ZKEren baitan sortu zen 1982 eta 1985 bitartean. Presidentea Txiki Illarramendi izan zen eta hasiberriak Nito Biescas, Miguel Angel Gurrutxaga eta Javier Lazkano, besteak beste.

Sari gehien lortu dituen surflaria Aritz Aranburu Aspiazu da, 1985ean Zarautzen jaioa. Surflari profesionala da eta WTCrako sailkatu den lehen euskalduna da.

Axi Muniain munduko olatu handi ospetsuenetan izan da.

Beste surflari aipagarri batzuk hauek izan dira: Ibon Amatriain, Hodei Collazo, Aitor Francesena, Iñigo Letamendia (Pukasen sortzailea), eta abar.

### **ARKAITZ MENDI, ehiza eta arrantza.**

Lehorretik edo itsasontzitik eginiko urteroko arrantza lehiaketekin.

### **URPEKOAK, urpekaritza.**

Klubak bere urrezko garaia 1958 inguruan izan zuen, sortu zenean. Estatu mailako talde lehiakor bat zuen eta Mendizabal, Santi Gereka, Angel Mari eta Gerardo Gereka lehengusuak eta abar zeuden bertan.

### **PAGOETA Mendizale Elkartea.**

Mendizaletasuna beti izan da oso indartsua Zarautzen.

1927an Mollarri Sports Kluba Euskadi eta Nafarroako Alpinismo Federazioko kide zen.

1935ean, EAJk Pagoetako gurutzea eraiki zuen, herritarren harpidetzen bidez ordainduta. 9,30 metroko altuera du.

1944an ZKE jaio zen, mendizaletasunari lotutako atal batekin.

1958an ZKEtik atera ziren orduko presidentearekin izandako desadostasunengatik, eta lehen egoitza Zabalegi tabernan izan zuten, gaur egun mertzeria dagoen lekuan.

Ezin konta ahala herritarrek parte hartu dute hainbeste urtetan zehar mendizaletasunari lotuta antolatutako jarduera guztietan.

Baina eliteko mendizaleak ere izan ditugu, besteak beste: Jesus Manuel Murua: Kilimanjaro, Alpeak, Andeak, Cervino, etab.

Jon Beloki izeta: Gasherbrun I, III, IV, eta bost kontinenteetako sabai asko, Himalaikoek gain.

Maidar Larrañagak Suitzako, Thailandiako eta Vietnamgo horma nabarmenenak eskalatu ditu, baita Espainiakoak ere.

Lehen mendizaleen artean, Manuel Beloki, Juanjo Aizpurua, Joxe Etxeberria, Alejandro Vazquez, Jose Miguel Gastañares, Txomin Arrona, Jose Mari Zuazobide, Miguel Angel Usobiaga, Juan Ignacio Albizu eta abar luze bat aipatu behar ditugu.

Emakumezkoen artean, Maria Antonia Gereka, Mari Carmen Makazaga, Mari Carmen Muguruza, Mari Carmen Aramendi, Begoña Arrizabalaga eta abar luze bat ditugu.

## **TRIATLOIA.**

Zarauzko lehen triatloi txapelketa 1987an egin zen, udalerraren 750. urteurrena zela eta.

Zarauzko Triatloi Elkarte 1991n sortu zen, kirol honen bost zaleren ekimenez. Gaur egun 120 fitxa inguru ditu. Ainhoa Murua Zubizarreta, 1978an Zarautzen jaioa, nazioarteko triatleta da, eta azken 4 olinpiadetan parte hartu du jarraian. Beste triatleta aipagarri batzuk hauek dira: Jeronimo Esnal (Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatu duena, egin dituen beste zeharkaldi ugariarekin batera) Jon Unanue, Jose Manuel Martinez, Eneko Alberdi, Unai Gastañares, eta abar. Urtero, 750 parte-hartzaile egon ohi dira Zarauzko triatloia irteera marran, eta azken edizioetan 1.000 parte-hartze eskaera baino gehiago geratu dira lekurik gabe.

## **TXIRRINDULARITZA.**

### **ZARAUZTARRA TXIRRINDULARI ELKARTEA**

Zarauzko lehen txirrindulari kluba Guillermo Lasak sortu zuen. Bere familiak bizikleta tailer bat zuen Trinitate kalean, gaur egun jostailu denda dena. Talde horretan afizionatu mailan ibili ziren Jose Manuel Lasa eta Sebastian Elorza, beranduago profesional gisa Frantziako hainbat Tour lehiatzera iritsi zirenak. Beste txirrindulari aipagarri batzuk Jose Mari Murua, Iñaki Aldabaldetretu (gaur egun maketa ederrak egiten dituen), Santi Sanchez txurrerrea, Jose Luis Irastorza "Kolon", Pardina, Manolo Aldabaldetretu, Juan Mari Iturralde eta abar izan ziren.

Izen handiko beste txirrindulari batzuk, herriko taldekoak ez izan arren, honako hauek izan dira:

**Eusebio Bastida**, zazpi denboralditan (1928-1935), errepideko txirrindularitzako elitean egon zen. Bere emaitzak normalean podiumekoak edo lehen 10etakoak izaten ziren eta behin Espainiako ziklo-kros txapelkun izan zen. Oso txirrindulari ona eta pertsona bikaina.

**Haimar Zubeldia**, Usurbilen jaioa eta Zarautzen bizi dena. Profesional mailako palmarekin: Frantziako 15 Tour, Espainiako 10 Itzuli eta Italiako Giro bat korritu zituen.

**JIRA-BIRA**, zikloturismoa eta afizionatuak (EULEN)

### **ZARAUZKO ZIKLOTURISTA ELKARTEA.**

**FANEGAS TXIRRINDULARITZA ELKARTEA**, zikloturismoa.

### **ZARAUTZEN DAUDEN BESTE KIROL-MODALITATE BATZUK:**

**XINGOLA**, gimnasia erritmikoko kluba.

**SHIDOKAN**, karate kluba.

**LIZARDI**, judo-kluba.

**AEROBICA**.

**ZELAI ONDO**, bola jokoa eta toka.

**HONDAR KAYAK**, piraguismoa.

**GOT orientazio taldea**.

**AEROMODELISMOA**.

**DRONAK.**  
**HONDARTZAKO BOLEIBOLA.**  
**SKATEA.**  
**SNOWBOARDA.**

## 7.- ITURRIAK ETA LEKUKOTZAK.

Kontakizun honen iturriak, batez ere, liburu, dokumentu, artikulu, internet eta egileak berak izandako elkarriketetatik datoz.

Hona hemen iturri horiek:

### LIBURUAK ETA DOKUMENTUAK.

1. **“El Madoz” “Diccionario geográfico-histórico-estadístico de España y posesiones de ultramar”**. Zarautz 16. liburukian ageri da.
2. **“ZARAUTZ AYER. Crónicas”**, Carmen Aguirre Delclaux, Historia eta Artean doktorea. Ed. UNO 2019.
3. **“ZARAUTZ”**, Anjel Lertxundi eta 21 egile gehiago, Imanol Muruaren hitzaurrearekin. Ed. Comunicación Gráficas Otzarreta. D.L. SS-218/99.
4. **“La Nao Victoria 1515”**, Sebastián Martija.
5. **“La Getaria de Elkano (1487-1526)”**, Daniel Zulaica. D.L. D 00456-2021.
6. **“Oleskariak. Herriaren ohia”** Ander Letamendiarena. Ed. Itxaropena D.L. SS 1023/2010
7. **“Zarautz a través de la historia”** Piquero, Sánchez eta bost egile gehiagok egin. Hiru liburuki. Zarauzko 1936ra arteko historia du ardatz. Ed. Itxaropena.
8. **“AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA”** Tomo Zara-Zuber, 76-192 orr.
9. **“GUÍA HISTÓRICO MONUMENTAL DE GUIPÚZCOA”**, María Angeles Urteaga. Ed. Itxaropena 1989.
10. **“Pintore euskaldunak eta ez euskaldunak”**, Mauricio Flores Kapetrotxipi. Ed. Itxaropena 1989.
11. **IRRINTZI 50 urte”**, Imanol Epelde. Ed. Itxaropena 2003.
12. **“Ni neu nere buru”**, Jexux Mari Txapartegi eta Ikastolako zazpi ikasle.
13. **“100 urte Antoniano ikastetxean”**
14. **“Zarautz bihotz bihotzez”**, Daniel eta Ainize Txopitea. D.L. SS-913-97.
15. **“ZORIONAK ZARAUTZ (1237-1987)”**, 750. urteurrenaren osagarria, 24 pertsona eta 12 argazki-sorten bilduma. D.L. SS-444/89.

16. **“SALLETARRAK 100 urte Zarautzen (1904-2004)”**, hainbat egile, D.L. SS-330-2005.
17. **“Revista BASCONGADA”** 433 orrialdea eta hurrengoak.
18. **“Breve Historia de España”**, F. Garcia de Cortazar eta J. M. Gonzalez Vesga. Alianza Editorial. D.L. Na. 163.2011.
19. **“ALPROJA 25 urte dantza eta antzerki festan”**, Imanol Epelde. Graficas Otzarreta. D.L. SS-1434/02.
20. **“1958-2008 PAGOETA Mendi Elkarte, milla pauso”**, Imanol Epelde. Otzarreta Comunicación. D.L. SS-769-2008.
21. **“Zarauzko Euskal Jaiak”**, Marina Aranzabal eta Agurtzane Azpeitia. Ed. Zarauzko Udala 1998, DL: SS-975/98.
22. **“Zarauzko folklorea”**, Xabier Lonbide eta Xabier Etxabe. Ed. Zarauzko Udala 2009. DL: SS-1635/09.
23. **“OLAZABAL”**, Emilio Olazabal. Graficas Oltzarreta. D.L. SS-449/99.
24. **“Memoria y cuenta general 1892-1893 de la Casa de Beneficencia de Santa Ana”**.
25. **“Centenario de la antigua Casa de Misericordia y llegada de la Hermanas de la Caridad de Santa Ana”**.
26. **“Comercios Donostiarra. Historias de Pastelerías.”** Blasco, Horcajo eta Beobide. D.L. SS-679-2010.
27. **“Conmemoración del centenario de la antigua “Misericordia” y la llegada de las Hermanas de la Caridad de Santa Ana”**, Ed. Itxaropena.
28. **“Velasco” La casa, el cementerio y los cráneos.** Ed. Zarauzko Udala, Sanz Enea Liburutegia 2022.
29. **Xabier Alberdi Lonbideren hainbat ekarpen: “Itsas Memoria”, “Boletín de Estudios Históricos sobre Donostia”, “IKERKETA berriak Euskal Herriko historian”**.
30. **“Transformaciones económicas en el sector costero guipuzcoano central durante el siglo XVII”** Álvaro Aragón Ruano. EHU.
31. **“ANOTACIONES A LA HISTORIA DE ZARAUZ”** izeneko dokumentu mekanografiatua. Egilea ezin izan dut identifikatu. Bertan 673an Kantabrian baskoien aurka borrokatu zen Wamba bisigodoaren guduetatik hasi eta 1931ra arteko kontuak biltzen dira. Azken



mendeetako notario-dokumentuz eta gertaera puntualei buruzko akta publikoz beteta dago. Ale bat eskuragarri dago Zarauzko Frantziskotarren komentuko artxiboan.

## **BILDUMAK**

**CASA URQUIA**, ZKEren eta bere kirol atal guztien milaka argazki ditu historian zehar.

**ESTEBAN COLLANTES**ek ZKEren prentsa hemeroteca osoa du sortu zenetik gaur egunera arte.

## **XANTI IRURETAGOIENAREN ARGAZKIAK.**

## **INTERNET**

Gai eta pertsonaia desberdinei buruzko orrialde asko eta askotarikoak.

## **ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAK.**

Egileak bere esker ona adierazi nahi die modu eskuzabalean informazioa eskainiz parte hartu duten guztiei:

- 1. Jose Ignacio Lertxundi.**
- 2. Anjel Irastorza Eizagirre.**
- 3. Gervasio Juaristi Ostolaza.** Simon Altuna alkate zela, 1968-1972ko alkateordea izan zen. Aldi horretan, Azken Portu Planari eta eraikuntzari ekin zitzaion. Gervasio alkate eta probintziako diputatu izan zen, eta 1972-76an Juan M.<sup>a</sup> Araluce izan zen Diputatu Nagusia. Garai hartan, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan Probintziako Gobernadoreak izendatu zuen alkate, eta 10.000 biztanle baino gehiagokoetan Barne Ministroak. 1976an, Gervasiok bi karguetatik dimititu zuen, Gobernuaren eta Martin Villa ministroaren jarduerekin ados ez zegoelako.
- 4. Alberto Balenciaga Eizmendi.**
- 5. Juan Aranoa.**
- 6. Felix Kortajarena.**

7. Agustin Iruretagoiena "Rekondo".
8. Santos Salsamendi.
9. Santiago Sanchez.
10. Esteban Collantes.
11. Iñaki Balenciaga Villar.
- 12, 13. Rosarito eta Jone Alkorta Zabalegi.
- 14, 15, 16. Pako Iraola, Mari Kontxi eta Arantza Aizpurua.
17. Jose Ignacio Agirre "Xagua".
- 18, 19. Pedro Mari eta Miguel Angel Urbieta.
20. Jose Mari Izaga Reiner.
21. Xabier Alberdi Lonbide.
- 22, 23. Arantxa eta Jose Mari Zabalegi.
24. Fausto Berazadi Larrea.
25. Jose Juan Osa.
26. Imanol Agirre Illarramendi.
- 27, 28. Angel Gereka eta Ana Mari Iruretagoiena.
29. Jose Antonio Zabala Linke.
30. Pio Illarramendi.
- 31, 32, 33. Maria Antonia Gereka, Segundo eta Maria Amor Zubizarreta.
- 34, 35. Pedro Mari Silban eta Amaia Subiñas.
36. Maria Antonia Gallastegi.
37. Valentin Aristi.
38. Martxel Itxaso.
39. Jesus Mari Fernandez Leunda "Txumai".
40. Juan Manuel Etxabe.
41. Asier Azpiroz.
42. Eneko Alberdi.
43. Ramon Arrillaga.
44. Sebastian Martija.
45. Jose Mari Arrazola.
46. Javier Carballo.
47. Javier Beristain.



